ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

ORDENANTZA FISKALAK

2025

ORDENANZAS FISCALES

UDALBATZAREN
OSOKO BILKURA
2025/06/03

GAO – 144-2025/07/30

Aurkibidea 2025

I ZERGAK 3

1 . ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA *3*

2 . JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGA *10*

3 . IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA *14*

4 . HIRI-LURREN BALIOA GEHITZEAREN GAINEKO ZERGA *23*

5 . ERAIKIN, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA *33*

II ZERBITZUAK EMAN ETA JARDUERAK EGITEAGATIKO TASAK 41

A EPIGRAFEA - *hirigintza lizentziak ematea* 45

B EPIGRAFEA - Establezimenduak irekitzeko lizentziak ematea, edo kontroleko administrazio jarduerak egitea, nahitaez izan beharreko lizentziaren ordez erantzukizunpeko adierazpena edo aldez aurreko jakinarazpena aurkezten den kasuetan 46

C EPIGRAFEA - Beste lizentzia edo baimen batzuk ematea 48

D EPIGRAFEA - Dokumentuak egiteko zerbitzua. 48

E EPIGRAFEA - Udal hilerriaren zerbitzua 50

F EPIGRAFEA - Azpiegitura hidraulikoak 51

G EPIGRAFEA - Hiri hondakin solidoak biltzeko zerbitzua (zaborrak): 52

H EPIGRAFEA - Edateko uraren hornikuntza eta saneamendu zerbitzua 57

I EPIGRAFEA: KIROLDEGIKO instalazioen erabilera 62

J EPIGRAFEA – Iturbide Egoitzan zerbitzuak ematearen tasa. Indargabetuta 69

K EPIGRAFEA - Etxez etxeko zerbitzua 70

L EPIGRAFEA – TUTORETZAPEKO ETXEBIZITZA ZERBITZUA 74

M EPIGRAFEA - Azoka 77

N EPIGRAFEA - Kontagailuak mantendu eta kontserbatzea 77

Ñ EPIGRAFEA - Udal euskaltegi zerbitzua ***Error! Bookmark not defined.***

O EPIGRAFEA - Ingurumen hezkuntzari buruzko jarduerak (EMA) ***Error! Bookmark not defined.***

Q EPIGRAFEA - Ibilgailuak bide publikotik eramateko eta ibilgailuok zaindu eta ibilgetzeko zerbitzua 78

R EPIGRAFEA - Bide publikotik ibilgailu abandonatuak eramateko eta ibilgailuok zaintzeko zerbitzua 81

S EPIGRAFEA - Txakurrak kaletik jasotzeko zerbitzua 81

T EPIGRAFEA - Adinekoentzako jantoki zerbitzuagatiko tasa 81

U EPIGRAFEA - Termitak prebenitu, tratatu eta desinfektatzeko zerbitzua emateagatiko tasa. Indargabetuta 82

V EPIGRAFEA - Salmenta ibiltariko salgaiak konfiskatu eta eramateagatiko tasa 82

W EPIGRAFEA – Hautaketa Prozesuetan Parte Hartzeko Tasa 82

X EPIGRAFEA - Aparkaleku arautuagatiko tasa (TAO – OTA) 84

Y EPIGRFEA - Larreak erabiltzeagatiko tasa 84

Z EPIGRAFEA - Garagartzako ortu ekologikoen zerbitzuaren tasa 84

III . ZERBITZUAK EMAN ETA JARDUERAK BURUTZEAGATIKO PREZIO PUBLIKOAK **85**

A EPIGRAFEA - Pertsonalaren zerbitzuak (BEZa aparte) *88*

B EPIGRAFEA - Zerbitzuak emateko materiala (BEZa aparte) *88*

C EPIGRAFEA - AMAIA ANTZOKIA alokatzea (BEZa aparte) *89*

D EPIGRAFEA - KULTURATEko lokalak alokatzea (BEZa aparte) *90*

E EPIGRAFEA - ETXALUZEKO lokalak alokatzea (BEZa aparte) *90*

F EPIGRAFEA: SANTA MARINAKO LEHENGO ALKATETZAren lokala alokatzea (BEZ aparte) *91*

G EPIGRAFEA - JAIALDI ETA OSPAKIZUNETAN BAXERA MAILEGUZ EMATEA (BEZa aparte) *92*

H EPIGRAFEA – JAME AUDITORIUM eta APRENDIZESA ANTZOKIAREN ALOKAIRUA (BEZa aparte) *92*

IV . UDAL JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBO ETA APROBETXAMENDU BEREZIAGATIKO TASAK **94**

A EPIGRAFEA - Kalikatak eta zangak irekitzea *99*

B EPIGRAFEA - Jabari publikoa eraikuntzako materialez okupatzea *99*

C EPIGRAFEA - Udal bide publikoetako lurzoru, lurpe edo hegalduraren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia, hornidura-zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresen alde *100*

D EPIGRAFEA - Bide publikoko zorua, hegaldura eta lurpea modu pribatiboan erabiltzea *100*

E EPIGRAFEA -Ibilgailuak finketara sartzeko eta bide publikoan aparkalekuak erreserbatzeko udal lizentzia *104*

F EPIGRAFEA – Landa-bideen erabilera berezia *105*

G EPIGRAFEA – Jabari publikoa kutxazainekin, "vending" makinekin eta antzekoekin okupatzea *105*

V KONTRIBUZIO BEREZIAK **106**

I ZERGAK

1 . ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA

ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGAREN KUOTAK ZEHAZTEKO OINARRIZKO ELEMENTUAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua

Udal honek, ondasun higiezinen gaineko zergaren uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauaren 14. artikuluak ematen duen baimena erabiliz, zerga honen karga-tasa ondorengo artikuluan ezartzen diren terminoetan finkatu du.

II. KARGA-TASAK

2. artikulua

1. Hiri-ondasunei aplikagarri zaien ondasun higiezinen gaineko zergaren karga-tasa ERANSKINean adierazten den ehunekoetan finkatu da.

2. Landa-ondasunei aplikagarri zaien ondasun higiezinen gaineko zergaren karga-tasa ERANSKINean adierazten den ehunekoetan finkatu da.

III. Zerga-oinarriak, kuotak eta kudeaketa

3.artikulua

1. Hiri-ondasunei aplikatutako ondasun higiezinen gaineko zergaren zerga-oinarria bere balio katastralak eratuko du.

2. Landa-ondasunei aplikagarri zaien ondasun higiezinen gaineko zergaren zerga-oinarria, arauz onartutako balio katastralak eratuko du.

3. Zerga honen kuota zehazteko, aurreko ataletan adierazitako zerga-oinarriei Ordenantza honetako 2. artikuluan ezarritako karga-tasak aplikatuko zaizkie.

4. Martxoaren 27ko 4/2007 Foru Arauaren, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Finantza eta Aurrekontuaren, 25. Artikuluan oinarrituta, ez dira 8 euro edo gutxiagoko ordain agiriak ordainaraziko, gestio, likidazio eta kobrantzaren kostua baino zenbateko txikiagoa izateagatik.

IV. HOBARIAK

4. artikulua

1.Ondasun higiezinen gaineko zergaren uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauaren 15. artikuluak ematen duen baimena erabiliz, zerga honetan ondorengo hobariak ezartzen dira:

1) Familia ugarientzako hobaria, diru-sarreren mailaren arabera:

DIRU-SARRERAK

	0€ - 18.000€	18.000€ - 24.000€	24.000€ - 40.000€	40.000€ - 60.000€
3 seme alaba arteko familiak	%90	%50	%20	%10
Familiak 4 seme-alaba	%90	%70	%40	%30
5 seme-alaba edo gehiago	%90	%90	%60	%50

Familia ugari bateko kideetako batek elbarritasunen bat edo lan egiteko ezintasunen bat aitorturik izanez gero, familia unitateko kideen kopuruaren arabera egokitu zaion baino maila bat goragoko hobaria baliatu ahal izango du.
Halaber, hobari hau eskuratu ahal izango dute, bi seme alaba edo gehiagoko familiak, ezkontideetako baten heriotzaren ondorioz, kide ugariko titulua eskuratzean.

Diru-sarreren maila honela zehaztuko da: zerga-oinarri orokorra eta zerga-onuraren aurreko urteko pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aurrezkiaren zerga-oinarria batuta, familia unitatea osatzen duten guztiak kontuan hartuta.

Deuseztasun, banantze edo dibortzio kasuetan, batuko dira laguntza eskatzen duen aitaren edo amaren PFEZren zerga oinarri orokorra eta aurrezkiaren zerga oinarria, Hitzarmen Arautzailearen edo epai judizialaren arabera seme-alaben zaintza duenarena, eta gehituko dira ezkontidearen edo oraingo izatezko bikotearen diru sarrerak, hala izanez gero.

Familia unitatea hauek osatzen dute:

a) Eskatzaileak;

b) Haren ezkontideak, deuseztasunik, banantzerik edo dibortziorik ez badago, edo ohiko izatezko bikote moduan berarekin bizi den pertsonak, betiere behar bezala egiaztaturik; eta

c) Zaintzapean dauden seme-alabek, etxe berean bizi badira.

<u>Zerga-hobariaren mugak</u>

- Katastro balioa 150.000 euro baino gehiago bada, hobaria aplikatuko da, baina gehienez ere balio horrekiko.
- Diru-sarrera gordinen muga, zerga-hobaria aplikatu beharrekoa ez baina aurreko urteko pertsona fisikoen errentaren gaineko zergatik hartuko da, betiere familia ugaria osatzen duten kide guztiak kontuan hartuta.
- Familia ugaria izateagatik ematen den hobaria bateraezina izango da OHZri buruz ezarritako edo ezar daitezkeen beste hobari batzuekin.
- Hobaria hauei bakarrik aplikatuko zaie: familia unitatea bizi ohi den ondasun higiezinean dauden etxebizitzari, eta ganbarari edo trastelekuari.
- Ondasun higiezin bat ohiko bizitegitzat jotzeko, ezinbesteko baldintza izango da ondasun higiezin horretan erroldaturik egotea zerga-hobaria izateko eskubidea duten familiako kide guztiak.
- Ez du izango atzera eraginik, hau da, hobari-eskabidea (epe barruan) aurkeztu den urtetik aurrera izango du eragina.

<u>Hobariaz baliatzeko baldintza eta tramite formalak</u>

- Subjektu pasiboa familia ugariaren titularra izan beharko da zergaren sortzapen-datan (urteroko urtarrilaren 1ean), eta dokumentazio hau aurkeztu beharko du:
  - Interesdunaren eskabidea, hobariaren xede den ondasuna identifikatuta.

39/2015 Legearen 28.artikuluan eta 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1. artikuluan ezarritakoari jarraiki, Arrasateko Udalak, interesdunak horren aurka egiten ez badu, Eusko Jaurlaritzaren erregistroan eta Nisae elkarreragingarritasun nodoaren bidez, zuzenean informazio hau kontsultatuko du, hobaria eskuratzeko baldintzak betetzen dituzten egiaztatzeko:

- Polizia Zuzendaritza Nagusia: Nortasun datuen kontsulta eta egiaztatzea.
- Foru Ogasunaren PFEZ kontsulta.
- Katastroko Zuzendaritza Nagusia: katastroko datuen kontsulta.
- Foru Ogasunaren Ondasun Higiezinen kontsulta.
- Gipuzkoako Foru Aldundian Familia ugarien tituluen kontsulta.

2016ko apirilaren 27ko Datuak Babesteko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 21 artikuluarekin bat etorriz eskatzaileak bere datuak kontsultatzearen aurka egin ahal izango du, aurka egiteko arrazoiak adieraziz; eta kasu horretan, Udalak dagokion agiria aurkeztera behartu ahal izango du.

Udalak eskaera jasotako unean beharrezkoa den dokumentazioa ezin badu modu telematikoan lortu edo daturen bat falta bazaio eskaera ebazteko, eskatzaileak dokumentu horiek aurkeztu beharko ditu udalak dokumentuak aurkezteko errekerimendua jakinarazi eta 10 egunetara.

- Eskabideak aurkezteko epea zazpi hilekoa izango da, urte bakoitzeko ekaina-abendua bitartean, eta ordaindutako zenbatekoaren zati bat itzultzea bezala izapidetuko da, dagokion ordainagiria ordaindu izana egiaztatu eta gero.

2**)** Eusko Jaurlaritzak 466/2013 Dekretuaren babesean bultzatzen duen "Programa vivienda vacía" barruan sartzen diren etxebizitzak %99ko hobaria izango dute lagapen kontratua sinatu eta ondorengo ekitalditik eta lagapena bukatu eta ondorengo ekitaldi arte. Hau da, zergaren sortzapenean, urtarrilaren 1ean, lagapen kontratua sinatuta dutenei aplikatuko zaie hobaria.

3) Zergaren kuotan %50eko hobaria, eguzki energia edo beste energia berriztagarri batzuen sistemak jartzeagatik ondasun higiezinetan:

<u>Betebeharrak eta baldintzak:</u>

- Pertsona fisikoa izango da jabea.
- Higiezinaren erabilera nagusia etxebizitzarena izango da, lurzoru urbanizagarri edo urbanizaezinezko etxebizitzak (adibidez baserriak), baldin eta eguzki energia edo beste energia berriztagarri batzuen sistemak instalatzeko obra horiek borondatez egiten badira, hau da, indarrean dagoen araudiak ezartzen ez baditu.
- Beroa sortzeko instalazioek administrazio eskudunaren homologazioa duten kolektoreak edo berokuntzako eta ur bero sanitarioko sistemak (UBS) eduki behar dituzte.
- 2005 baino lehen eraikitako etxebizitzak izan behar dira.
- Eskaera egin beharko da eguzki energia edo beste energiaren aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak instalatu ostean eta Hirigintza, Mugikortasun eta Ingurumen sailak onespen txostena eman beharko du instalatutako sistema hobariarekin bat datorrela onesteko.

- Hobaria bakarrik aplikatuko da eguzki energia edo energia berriztagarriak aprobetxatzeko sistema jarri den ondasunaren OHZ ordainagirian, hots, sistema etxebizitzan bertan instalatu behar da, eta sistemari lotutako etxebizitzaren OHZ ordain agirian soilik aplikatuko da hobaria.
- Hobaria aplikatzeko beharrezkoa izango da aurreko ekitaldietako OHZ ordainagiriak eta obraren Instalazio, Eraikuntza eta Obren gaineko Zergaren likidazioa ordainduta izatea.
- Hobari hau ez da bateragarria izango udalak helburu berarentzat eman ditzakeen dirulaguntzekin.

- Eraikin plurifamiliarren kasuan, hobaria jabekide erkidegoak eskatu beharko du. Horrenbestez, eskaera onesten bada, hobariaren zenbatekoa jabekide erkidegoari itzuliko zaio, ekitaldiko etxebizitza bakoitzeko OHZ guztiak ordainduta daudela ikuskatu ondoren**, onestea ebazten den urte berean, eta, gehienez, egindako inbertsioaren %10eko zenbatekoa hobarituko da, 5.000 euro arte (barne).**

- Eraikin unifamiliarren kasuan, eskaera onetsi eta ondorengo bost urteetan zehar aplikatuko da hobaria, eta **bi hauetatik altuena hartuko da kontuan hobaria kalkulatzeko: 150.000 euro arteko balio katastralari dagokiona edo egindako inbertsioaren %2a, 1.000 euro arte (barne).**

- Eskaera kudeaketak: eskaerak instalazio obrak amaitu ostean aurkeztu beharko dira, dokumentu hauekin:

  - Hobariaren eskabidea eskatzailearen NAN fotokopiarekin
  - Obra amaierako likidazioa eta ziurtagiria

- Instalatutako energia sistemaren homologazioa

4) Zergaren kuota osoaren %15eko hobaria babes publikoko etxebizitzei, baita ere, garajeei eta trastelekuei, horiei lotuta doazenean.

– Babes ofizialeko etxebizitzak, erregimen orokorrekoak.
– Babes ofizialeko etxebizitzak, erregimen berezikoak, edo etxebizitza sozialak.

Hobariak ez dira bateragarriak izango. Bat baino gehiago aplikatu behar den kasuetan, ekonomikoki onuragarriena dena aplikatuko da.

Halaber, familia ugarien hobaria izan ezik, gainontzekoak, onespen ebazpenaren hurrengo ekitalditik aurrera aplikatuko dira.

V. ERREKARGUA

6. artikulua.

Gipuzkoako Katastroan etxebizitza erabilera duten eta subjektu pasiboaren edo hirugarren baten ohiko etxebizitza ez diren arrendatu gabeko ondasun higiezinek, %50eko errekargua izango dute zergaren kuota likidoan.

Errekarguaren sortzapenak zergaren sortzapenarekin bat egingo du, eta urtero zerga kuotarekin batera ordainaraziko da. Errekargu hau aplikatuko da, Katastroan zergaren sortzapen unean, urtarrilaren 1ean, etxebizitza erabilera daukaten ondasun higiezinetan, zergadunaren ohiko etxebizitza ez denean eta hirugarren bati arrendatu gabe dagoenean, hots, inor erroldatu gabeko etxebizitzak direnean.

Haatik, **errekargu gabeko ordainagiria ordainaraziko zaie zuzenean urtarrilaren 1etik apirilaren 1era jarraian azalduko diren salbuespenen kasuetako bat betetzen duten zergadunei.** Horretarako, zergadunek salbuespen eskaerak aurkeztu beharko dituzte aipatutako epearen barruan eta udalak onetsi egin beharko ditu. Edonola ere, **epe horretatik kanpo, ordaintzeko borondatezko epea amaitu eta hurrengo hilabetean zehar salbuespen eskaerak aurkeztu ahal izango dira**. Kasu horretan, salbuespen eskaerak aztertu eta onetsi ondoren, errekarguaren zenbatekoaren diru itzulketa egingo da ordainagiria helbideratuta dagoen banku korrontera. Oro har, beharrezkoa izango da errekargudun ordainagiriaren zenbateko guztia ordainduta egotea eta eskatutako dokumentazio guztia aurkeztea.

Salbuespen kasuak:

1. Zerga honen kuotan onetsitako hobaria daukatenak.
2. Errentan emandakoak. Indarrean dagoen Eusko Jaurlaritzako fidantzen gordailu eta hiri finken errentamendu kontratuen erregistroko ziurtagiri bat aurkeztu beharko da. Horren arabera, errekarguaren sortzapen unean, urtarrilaren 1ean, indarrean dagoen errentamendu kontratua egon beharko da edo urtean gutxienez sei hilean indarrean dagoena. Beraz, kontratuak aurreko urteetan edo urtean bertan sinatutakoak izan daitezke. Ez dira onartuko doako lagapenak, ezta prezio sinbolikoa duten kontratuak ere.
3. Errentan erakunde publiko baten esku jarritakoak (BIZIGUNE). Behin betiko lagapen kontratuak aurkeztu beharko dira, aurreko urtean edo urtean bertan sinatutakoak.
4. Heriotza baten ondorioz jasotakoak. Salbuespen honek, heriotza egunetik kontatuta, bi urteko iraupena izango du.
5. Udal baimena duten ostatu eta hostal jardueretara atxikitakoak.
6. Udala jakitun delarik eta modu jarraituan lanbide-jardueretarako edo merkataritza-jardueretarako erabiltzen direnak. Nekazaritza ustiaketak ere salbuetsita egongo dira, Foru Aldundiaren Nekazaritzako ustialekuen erroldan egonez gero. Elkarte baten kultura jardueretara bideratutako etxebizitzak ere salbuetsita daude.
7. Udalaren eskariz etxebizitza horietan inor bizi ez denean.
8. Aurreko urtean eskuratu eta urtarrilaren 1ean udal baimenarekin obratan dauden etxebizitzak.
9. Aurreko urteko urria, azaroa edo abenduan eskuratu eta eskuratzaileak ekitaldiko lehen hiru hilabeteetan zehar erroldatzen direnen etxebizitzak.
10. Bi etxebizitzarekin etxebizitza bat eginda badago, bi etxebizitzak errekargutik salbuetsita egongo dira, baldin eta agrupazio espedientea hasita badago urtarrilaren 1a baino lehen. Gehienez bi ekitaldietan aplikatuko da salbuespen hori.
11. Hondamendi natural edo ezbehar batengatik bizitoki izan ez daitekeen ondasun higiezina denean (suteengatik, uholdeengatik eta abarrengatik) Horretarako beharrezkoa izango da urtarrilaren 1 baino lehen Gipuzkoako Katastroan ondasun higiezinaren erabilera aldaketaren eskaera eginda izatea.

VI. KUDEAKETA ARAUAK

7. artikulua

1.Zerga hau kudeatu, likidatu, bildu eta ikuskatzeko ahalmenak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskuordetu ahal izango zaizkio, Udalbatzak horretarako dagokion hitzarmena sinatuz zehazten dituen termino, eduki eta irismenaren arabera.

2. Hartutako udal akordioa GAOn argitaratuko da.

VI. AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau, bere Eranskinarekin batera, Udalbatzak 1989ko irailaren 29an izandako bilkuran behin betiko onetsi zuen eta 1990ko urtarrilaren 1ean sartu zen indarrean.

Aldaketen historialean agertzen diren aldaketekin dago indarrean, eta indarrean segituko du indargabetzea erabaki arte.

VII. ALDAKETEN HISTORIALA

Udalbatzaren onespen data	GAOn argitaratze data eta zenbakia.	Indarrean sartzen den data	Aldaketak
1989 IRA 29	89ABE30 - 247	90 URT 1	1. onespena
2001 IRA 13	01ABE31 – 249	02-URT 1	Zerga-tasak
2001 URR 25	01ABE31 – 249	02-URT 1	Zerga-tasak
2002 URR 18	02ABE31 – 247	03-URT 1	Zerga-tasak
2003 URR 20	03ABE26 - 246	04-URT 1	Artikuluak eta zerga-tasak
2003 ABE 15	03ABE26 - 246	04-URT 1	Familia ugarien hobaria
2004 URR 25	04ABE20 - 242	05-URT 1	Zerga-tasak
2005 URR 25	05ABE15 - 236	06-URT 1	Zerga-tasak
2006 URR 23	06 ABE 20 - 240	07-URT 1	Tasak, hobariak
2007 ABE 13	07 ABE 27 – 251	08 URT 1	Tasak, hobariak
2009 AZA 05	09 ABE 30 – 246	10 URT 1	FU hobaria. Eskaera epea
2010 URR 7	10 ABE 1-230	11 URT 1	Balio katastrala %2a
2011 ABE 20	11 ABE 27 – 244	12 URT 01	Bk %2 T/I
2012 URRIA 30	12 ABE 24 – 244	13 URT 01	Errekargua, familia ugaria, karga-tasak
2013 ABE 17	13 ABE 30 – 247	14 URT 01	Z/t eta Errekarguaren salbuespen berriak
2014 ABE 18	2014 ABE 26 – 246	15 URT 01	
2015 ABE 15	2015 ABE 23 - 245	16 URT 01	Gainkargua kendu
2016 UZT 12	2016 IRA 16 - 177	16 URTA 01	Zerga tasak
2016 URR 25	2016 ABE 22 - 241	17 URT 01	Hobariak
2017 URR 03	2017 ABE 15 – 238	18 URT 01	Zerga tasa
2018 URRI 02	2018 ABE 18 -242	19 URT 01	
2019 URRI 01	2019 ABE 19-242	20 URT 01	Karga Tasa eta hobariak
2020 UZT 28	2021 AZAR 5-190	21 URT 01	Hobariak
2021 UZT 13	2021 IRAI 14-176	22 URT 01	Hobariak
2022 URR 4	2022 ABE 5 - 230	23 URT 01	Hobariak
2023 ABE 05	2023 ABE 20 - 243	24 URT 01	Karga Tasa, hobariak eta errekargua indarrean
2024 ABE 03	2024 ABE 18 -243	25 URT 01	Kudeaketa, hobariak eta errekargu salbuespenak

ERANSKINA

I. ONESPEN DATA:

2024ko abenduaren 3an

II. KARGA-TASAK

. Industria-lurzoruan dauden hiri-ondasunak ..... % 0,6000
. Gainerako hiri-ondasunak ..... % 0,2459
. Landa-ondasunak ..... % 1,1

ALKATEA **IDAZKARIA**

2 . JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGA

UDALERRIKO JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGAREN EXAKZIORAKO ZENBAIT AHALMEN ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua

Udal honek Ordenantza Fiskal honetako koefizienteak eta indizeak ezarri ditu, jarduera ekonomikoen gaineko zergaren testu bategina onartzen duen apirilaren 20ko 1/1993 Foru Dekretu Arautzailearen 11. artikuluan xedatutako ahalmenak erabiliz.

II. GUTXIENEKO KUOTEN PONDERAZIOA

2. artikulua

Zerga honen tarifetan Foru Aldundiak ezarri dituen gutxieneko kuotak, zeinak Udalerri honetan zergapetutako jarduerei aplikatuko baitzaizkie, 1. ERANSKINean azaltzen diren gehikuntza eta ponderazio koefizienteen arabera gehituko dira.

3. artikulua

Zerga honek udalerri barruan zergapetzen dituen jarduerak gauzatzen diren lokalen eta establezimenduen kokapena ponderatzeko, aurreko 2. artikuluaren arabera gehitutako kuotei 2. ERANSKINean adierazitako indizeak aplikatuko zaizkie, bide publikoak duen kategoria kontutan hartuz.

4. artikulua

Gehikuntza koefizientea eta kokapen indizea, zeinak ordenantza honen 2. eta 3. artikuluetan hurrenez hurren ezartzen baitira, ez zaizkie aplikatuko kuota probintzialei eta bereziei, ezta foru errekarguari ere.

5. artikulua

Aipatutako 3. artikuluan esandako indizeak aplikatzeko, udalerriko kale, plaza eta auzoak sailkatu egiten dira 2. ERANSKINean zerrendatutako kategorien arabera.

III. TRIBUTU KUOTA

6. artikulua

Zerga honen tributu-kuota, tarifek dituzten gutxieneko kuotez osatuko da, gehi subjektu pasiboaren negozio-zifraren araberako ponderazio koefizientea eta Ordenantza honen 2. eta 3. artikuluen araberako udal koefizientea eta kokapen indizea. Koefiziente horiek Eranskinean azaltzen dira.

IV. KUDEAKETA ARAUAK

7. artikulua

1.- Zerga honen kudeaketa, likidazio, bilketa eta ikuskapen ahalmenak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskuordetu ahalko zaizkio, Udalbatzak aldez aurretik erabakitako termino, eduki eta irismenarekin; horretarako, zergak ondorioak izango dituen urtearen hasiera baino lehen, dagokion hitzarmena sinatuko da.

2.- Erabaki eta hitzarmen horiek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira sinatu eta hurrengo lehen sei hilabeteen barruan. Era berean, aldizkari horretan bertan hitzarmen horien salaketa argitaratuko da.

3.- Artikulu honen 1. zenbakian erabakitakoa gorabehera, bertan adierazitako ahalmenak Foru Aldundiarenak izango dira betiere, bai kuota probintzialei bai bereziei dagokienez.

V. HOBARIAK

8. artikulua

Ondorengo hobariak ezin izango dira aldi berean eta ekitaldi berdinean aplikatu.

1) Kuotaren %50eko hobaria aplikatuko zaie 1/1993 Foru Dekretu Arauemailearen 5-1-b artikuluan oinarrituz salbuespena duten eta udalaren gutxieneko kuotagatik zerga ordaintzen duten jarduerei, horren garapeneko bigarren zergaldia bukatu eta hurrengo 5 jarduera-urteetan.

Hobaria aplikatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da aurrez jarduera ekonomikoan beste titulartasun batekin aritu ez izana. Fusio, zatiketa nahiz jarduera adarren ekarpen kasuetan, ulertuko da dena delako jarduera ekonomikoan aurrez beste titulartasun batekin ibili izan dela.

2) Kuotaren %25eko hobaria aplikatuko zaie enplegua sortzen duten subjektu pasiboei, baldin eta udal kuota ordaintzeaz gainera, hobaria aplikatu aurreko lehen zergaldian kontratu mugagabea duten langile kopuruaren batezbestekoa aurreko zergaldiaren aldean %10 handitu badute.

VI. AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau, bere Eranskinekin batera, 1991ko urriaren 11an izandako bilkuran behin betiko onetsi zuen Udalbatzak, eta 1992ko urtarrilaren 1ean sartu zen indarrean. Aldaketen historialean agertzen diren aldaketekin dago indarrean, eta indarrean segituko du indargabetzea erabaki arte.

VII. ALDAKETEN HISTORIALA

Udalbatzaren onespen data	GAOn argitaratze data eta zenbakia	Indarrean sartzen den data	Aldaketak
2000 URR 26	00ABE29 – 246	01-URT 1	Udal koefizientea eta hobaria
2001.URR 25	01ABE31 – 249	02-URT 1	Udal koefizientea
2002 URR 18	02ABE31 – 247	03-URT 1	Udal koefizientea
2003 URR 20	03ABE26 - 246	04 URT 1	6. eta 7. artikuluak eta udal koefizientea, op. bolumena
2004 URR 25	04ABE20 - 242	05 URT 1	6. artikulua
2005 URR 25	05ABE15 - 236	06 URT 1	Udal koefizientea
2006 URR 23	06 ABE 20 - 240	07 URT 1	Udal koefizientea
2007 ABE 13	07 ABE 27 – 251	08 URT 1	Zerga-tasak, hobariak
2008 ABE 11	08 ABE 31 -251	09 URT 1	OSORIK ARGITARATUA
2009 AZA 05	09 ABE 30 - 246	10 URT 1	
2010 URR 7	10 ABE 1 - 230	11 URT 1	Udal koefizientea
2011 ABE 20	11 ABE 27 – 244	12 URT 01	Bk %2 Z/T
2012 URR 30	12 ABE 24 – 244	13 URT 01	Udal koef. Ponderazio indizeak
2013 ABE 17	13 ABE 30 – 247	14 URT 01	Zerga-tasa
2014 ABE 18	2014 ABE 26 – 246	15 URT 01	
2015 URR 13	2015 ABE 23 - 245	16 URT 01	
2016 URR 25	2016 ABE 22 - 241	17 URT 01	Zerga tasa
2017 URR 03	2017 ABE 15 – 238	18 URT 01	Zerga tasa
2018 URR 02	2018 ABE 18 -242	19 URT 01	
2019 URR 01	2019 ABE 19-242	20 URT 01	Hobariak
2023 ABE 05	2023 ABE 20- 243	24 URT 01	Indizea
2024 ABE 03	2024 ABE 18 -243	25 URT 01	Zerga oinarria, hobariak eta errekargu salbuespenak

ALKATEA **IDAZKARIA**

1. ERANSKINA

Onespen-data: 2024ko abenduaren 3an

Foru Arauan ezarritako gutxieneko kuoten gehikuntza-koefizienteak:

- Udal koefizientea: 2,2

- Ponderazio koefizientea. Subjektu pasiboaren negozio-zifra garbiaren arabera

Negozio-zifraren kopuru garbia
(FDA 1/1993 11. artikulua) (4/2012 Foru Araua. 2 .artikulua, uztailaren 4koa)

1.000.000,00 €-tik	5.000.000,00 €-ra	 1,29
5.000.000,01 €-tik	10.000.000,00 €-ra	 1,30
10.000.000,01 €-tik	50.000.000,00 €-ra	 1,32
50.000.000,01 €-tik	100.000.000,00 €-ra	 1,33
100.000.000,00 €-tik	aurrera	 1,35
Negozio-zifra garbirik gabe		 1,31

2. ERANSKINA

Bide publikoen sailkapena eta kokapen indizea

- Kategoria: ..... Bakarra
- Indizea: 1,07

ALKATEA **IDAZKARIA**

3 . IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA

TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGAREN KUOTAK ZEHAZTEKO OINARRIZKO ELEMENTUAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua

Zerga hau uztailaren 5eko 14/1989 foru arauak arautzen du. Foru arau horrek xedatzen duenaren arabera arautzen dira, hain zuzen, zergaren izaera, egitate zergagarria, salbuespenak eta hobariak, eta subjektu pasiboak.

II. TRIBUTU-KUOTA

2. artikulua

14/89 Foru Arauaren 4.3 artikuluan xedatutakoan oinarrituz, zergaren kuota kalkulatzeko, 4.1 artikuluko tarifa taulan zehazten diren kuotak eranskinean adierazten den koefizientea aplikatuz gehituko dira. Koefiziente hori aplikatzearen ondoriozko kuotak ere Eranskinean jasotzen dira.

III. ZERGAREN KUDEAKETA

3. artikulua

1. Zerga hau autolikidazio-erregimenean exijituko da, udal administrazioak zerga honen subjektu pasiboei eta dagozkion espedienteak tramitatzen dituzten kudeatzaileei horretarako emango dien ereduan.

2. Zerga hau autolikidazioa aurkeztean ordainduko da.

4. artikulua

Zerga ordaindu izana egiaztatzen duen dokumentua, zorra kitatzean udal administrazioak emandako behin betiko ordainagiria izango da.

5. artikulua

1. Zerga honen tributu-zorraren ordainketan egunean egotea egiaztatzen duen dokumentua aurkeztea ezinbestekoa da Trafiko Buruzagitzan honako hauei buruzko espedienteak tramitatzeko eskaerak hasteko:

a) Ibilgailua zirkulatzeko gai dela egiaztatzen duen agiria.
b) 15 urtetik beherako ibilgailuaren behin-betiko baja.
c) Ibilgailuon erreforma, baldin eta zerga honen ondorioetarako sailkapena aldatzen bazaie.
d) Ibilgailuaren transferentzia.
e) Ibilgailuaren zirkulazio-baimenean agertzen den subjektu pasiboaren helbide-aldaketa.

2. Kuota korronteak ordaindu izana egiaztatzen duen agiria aurkeztea ezinbestekoa izango da zerga honen xede diren ibilgailuen matrikulazio-espedientea Trafiko Buruzagitzan hasteko.

IV. KUOTAK ITZULTZEA

6. artikulua

Subjektu pasiboaren alde ateratzen den kuota proportzionala, ibilgailuaren behin betiko baja kasuan nahiz lapurretagatiko baja kasuan, banketxearen bidez itzuliko da. Ordaintzera behartuta dagoen pertsonak eskatu beharko du kuota zatiaren itzulketa diru bilketako 38/2006 Foru Dekretuaren 25.artikuluaren arabera.

Edozein pertsonak ordaindu dezake, obligazioa betetzeko interesatua izan edo ez, borondatezko epean nahiz epe exekutiboan, bai ordaintzera behartutakoak horren berri izan eta onartzen badu eta bai ez badu horren berri.
Zorra ordaintzen duen hirugarren bat ez dago legitimatuta ordaintzera behartutakoaren eskubideak Administrazioaren aurrean erabiltzeko.

Kuota proportzionalaren itzulketa, banku helbideraketa daukatenek zergaldi berdineko ekainaren 1etik abenduaren 31 arte eskatu ahal izango dute, gainontzekoek, ekitaldi guztian zehar.

Ordainagiriak oraindik eman barik egonez gero eta behin betiko baja edo lapurretagatiko bajaren berri izanez gero, zuzenean emango da ordainagiria, dagokion zenbateko proportzionalarekin.

Halaber, zergadunak ibilgailu beragatik beste udalerri batean ere ordaindu badu zerga, eta, subjektu pasiboak ordainketa horren ziurtagiria eta sortzapen datan, hots, zergaldiko urtarrilaren 1ean, ibilgailua Trafikoko Zuzendaritza Nagusian beste udalerri horretan helbideratuta zegoela egiaztatzen duen frogagiria aurkezten badu, ordaindutako kuotaren zenbatekoa itzuliko zaio. Horretarako, beharrezkoa izango da eskaera orriari ondorengo dokumentuak atxikitzea:

- Urtarrilaren 1ean ibilgailuaren helbideraketa DGTn.
- Beste udalerriko zergaren ordainketaren ziurtagiria

V. KUDEAKETA

7. artikulua

Tarifak aplikatzeko, honako arau hauek hartuko dira kontuan: (A.F. 114/1999)

1. Zerga honen ondorioetarako, zerga-tarifetan zerrendatzen diren ibilgailu mota desberdinen kontzeptua hauxe izango da: Ibilgailuen Erregelamendu Orokorra onartzen duen abenduaren 23ko 2.822/1998 Errege Dekretuak II. eranskinean jasotzen duena.
2. Furgoi edo furgonetek, ibilgailu misto moldagarriek eta turismo-ibilgailuek turismo gisa ordainduko dute zerga, beren potentzia fiskalaren arabera. 1.000 kilogramotik gorako karga erabilgarria garraiatzeko baimena duten ibilgailuek, berriz, kamioi gisa tributatuko dute.

3. Autokarabanek turismo gisa tributatuko dute, beren potentzia fiskalaren arabera.

4. Edozelan ere, aipatutako tarifetako D) letran adierazten diren traktoreen errubrika generikoak bere baitan hartzen ditu «traktokamioiak», «obra eta zerbitzuetako traktoreak» eta trakzio mekanikoko beste ibilgailuek garraiatu edo eramanak izan gabe bide publikoetatik zirkula dezaketen makina autobultzatuak.

5. Hiru gurpileko ibilgailuak eta kuatrizikloak motozikletatzat hartuko dira zerga honen ondorioetarako eta, beraz, beren zilindradaren arabera tributatuko dute. Kuatriziklo arinek, bestalde, ziklomotore gisa tributatuko dute.

6. Ibilgailu artikulatuen kasuan, arrasteko potentzia daramanak eta herrestan eramandako atoiek eta erdi-atoiek aldi berean eta bereizita tributatuko dute.

7. Zaldi fiskaletan adierazitako potentzia fiskala ezarriko da Ibilgailuen Erregelamendu Orokorra onartzen duen abenduaren 23ko 2.822/1998 Errege Dekretuak V. Eranskinean xedatutakoaren arabera.

8. Motozikleta elektrikoek 125 cm3-rainoko motor gisa ordainduko dute zerga.

VI. SALBUESPENAK ETA HOBARIAK

8. artikulua. SALBUESPENAK

1. Zerga ordaintzetik salbuetsita daude 14/1989 Foru Arauaren 2. artikuluan adierazitako ibilgailuak. Hauek dira:

a) Estatuaren, Euskal Autonomia Erkidegoaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Gipuzkoako udal entitateen ibilgailu ofizialak, defentsari edo herritarren segurtasunari atxikita badaude.

b) Ordezkaritza diplomatikoen ibilgailuak, bulego kontsularrenak, eta atzerriko agente diplomatiko eta akreditatuta dauden karrerako funtzionario kontsularrenak, kanpotik identifikatuta badaude eta beren mailan eta hedaduran elkarrekikotasun baldintza betetzen bada. Baita Espainiako Estatuan egoitza edo bulegoa duten nazioarteko erakundeen ibilgailuak ere, eta estatutu diplomatikoa duten funtzionario edo kideenak.

c) Nazioarteko itun edo hitzarmenen ondorioz salbuestekoak diren ibilgailuak.

d) Osasun laguntza emateko nahiz zauritu edo gaixoak garraiatzeko erabiltzen diren gainerako ibilgailuak.

e) Mugikortasun murriztua duten pertsonentzako ibilgailuak, abenduaren 23ko 2.822/1998 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Ibilgailuen Erregelamendu Orokorraren II. eranskineko A letran aipatuak, pertsona desgaituen izenean matrikulatuta daudenean. Era berean, salbuetsita daude 14 zaldi fiskaletik beherako ibilgailuak, baldin eta desgaituen izenean matrikulatuta egonik beraiek ez beste inork erabiltzeko badira. Salbuespen hau zirkunstantzia horiek betetzen diren artean aplikatuko da, pertsona desgaituek gidatutako ibilgailuak izan nahiz horiek garraiatzeko ibilgailuak izan. Aurreko bi paragrafoetan aipatutako salbuespenak ibilgailu batengatik bakarrik izango zaizkie aplikagarriak horien onuradun diren subjektu pasiboei. Letra honetan xedatutakoaren ondorioetarako, honako hauek hartuko dira pertsona desgaitutzat:

a') 100eko 33ko edo hortik gorako eta 100eko 65etik beherako desgaitasun maila aitortua duten pertsonak, mugikortasun murriztuko gabezia egoeran badaude. Mugikortasuna murriztuta dutela joko da Mugikortasun Jardueren Mugen azpibaremoan, desgaitasun maila aitortu, ezarri eta kalifikatzeko prozedura ezartzen duen urriaren 18ko 888/2022

Errege Dekretuaren bidez onetsian, 100eko 25eko edo hortik gorako mugikortasun falta ematen zaienean.

b´) Desgaitasun maila 100eko 65ekoa edo handiagoa duten pertsonak. Aurreko a´) eta b´) letretan aipatutako pertsonak mugikortasun murriztuko egoeran badaude eta Mugikortasun Jarduerak Mugatzeko azpibaremoa aplikatuta (desgaitasuna maila aitortu, deklaratu eta kalifikatzeko prozedura ezartzen duen urriaren 18ko 888/2022 Errege Dekretuaren bidez onetsitako azpibaremoa), ondorioztatzen bada haien mugikortasuna 100eko 75ean edo hortik gorako portzentajean dagoela mugatuta, ez zaie aplikatuko 14 zaldi fiskaleko muga, betiere eta ibilgailua gurpil aulkia eramateko egokituta badago. Era berean, ibilgailuak zergatik salbuetsita geratuko dira haien titularrek frogatzen dutenean guraso ahalagatik, tutoretzagatik edo kuradoretzagatik beren kargura pertsonaren bat dutela eta haien desgaitasun maila 100eko 65ekoa edo handiagoa dela. Ibilgailu baten baino gehiagoren titularrak badira, bakar bati aplikatuko zaio salbuespena.

f) Autobusak, mikrobusak eta hiri garraio publikoari atxikita dauden gainerako ibilgailuak, baldin eta plaza kopurua, gidariarena barne, bederatzitik gorakoa bada.

g) Nekazaritzako Ikuskapen Kartilla daukaten traktoreak, atoiak, erdi-atoiak eta makinak.

2. 14/1989 Foru Arauaren 2.1. artikuluko e) eta g) paragrafoetan aipatutako salbuespenak lortu ahal izateko, ibilgailuen titularrek udalerri honetan erroldatuta egon behar dute. Salbuespena eskatzearekin batera, ibilgailuaren ezaugarriak, matrikula eta onura jasotzeko arrazoia adierazi eta alegatu duten guztia egia dela frogatzen duten agiriak aurkeztu beharko dituzte.

Salbuespena onartzea ebazten duen dokumentua, salbuespen horren egiaztagiri gisa baliatu ahal izango da.

Aurreko atalean adierazitakoaren ondorioetarako, interesdunek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte eskabidearekin batera:

1- e) paragrafoan azaltzen den hobariaren eskaerarako, (minusbaliotasunarena):
   - NANaren fotokopia.
   - Gizartekintzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko zerbitzuak edo beste organo eskudun batek emandako elbarritasun-agiria.
   - Gidabaimenaren fotokopia (aurrealdea eta atzealdea).
   - Zirkulazio-baimenaren fotokopia.
   - Ibilgailuaren fitxa teknikoaren fotokopia.
   - Aseguruaren poliza eta ordainagiriaren kopiak.
   - Ibilgailua elbarriak bakarrik erabiltzen duela adierazten duen zinpeko aitorpena.
   - Minusbaliotasuna duen pertsonaren bat beren ardurapean duten pertsonek Udalaren aurrean egiaztatu behar dute minusbaliotasun maila eta minusbaliotasuna duen pertsonarekin duten harremana. (familia liburua edo tutoretza nahiz kuradoretza agiria)

39/2015 Legearen 28.artikuluan eta 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, Arrasateko Udalak, interesdunak horren aurka egiten ez badu, Eusko Jaurlaritzaren erregistroan eta Nisae elkarreragingarritasun nodoaren bidez, zuzenean informazio hau kontsultatuko du, hobaria eskuratzeko baldintzak betetzen dituzten egiaztatzeko:

- Polizia Zuzendaritza Nagusia: Nortasun datuen kontsulta eta egiaztatzea.

- Gizartekintzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko zerbitzuak edo beste organo eskudun batek emandako elbarritasun agiria.

2016ko apirilaren 27ko Datuak Babesteko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 21 artikuluarekin bat etorriz eskatzaileak bere datuak kontsultatzearen aurka egin ahal izango du, aurka egiteko arrazoiak adieraziz; eta kasu horretan, udalak dagokion agiria aurkeztera behartu ahal izango du.

Udalak eskaera jasotako unean beharrezkoa den dokumentazioa ezin badu modu telematikoan lortu edo daturen bat falta bazaio eskaera ebazteko, eskatzaileak dokumentu horiek aurkeztu beharko ditu, udalak dokumentuak aurkezteko errekerimendua jakinarazi eta 10 egunetara.

Elbarrituen salbuespena duen ibilgailuari behin betiko baja eman eta, aldi berean, zergadunak ibilgailu berria erosten badu, ibilgailu berriari salbuespena emango zaio baldin eta beste baldintza guztiak betetzen jarraitzen badu, ibilgailu berriari salbuespena aplikatzeko eskari berri bat egiten badu, eta behin betiko baja egunetik ibilgailu berria erosi arte hilabete bi baino gutxiago igaro bada.

Mugikortasun gutxiko pertsonek ibilgailuen gaineko zergan daukaten salbuespena eskatzeko epea urtarrilaren 31rarte izango da. Egun horretatik aurrera eskatutako salbuespenak hurrengoko urtetik aurrera izango dute eragina.

2- g) paragrafoan azaltzen den hobariaren eskaerarako (nekazal traktoreak):

- Zirkulazio-baimenaren fotokopia.
- Ibilgailuaren ezaugarri teknikoen agiriaren fotokopia.
- Nekazaritzako makineriaren inskripzio-kartillaren fotokopia edo Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Ingurumen Saileko Nekazaritzako Makineriaren Erregistro Ofizialean altan egotearen ziurtagiria, nahitaez ibilgailuaren titularraren izenean egon behar duena.

3. Salbuespenak eskaera egin eta hurrengo zerga-aldian jarriko dira indarrean, elbarrituen salbuespena izan ezik.

9. artikulua. HOBARIAK

Jarraian jasotzen diren hobariak ez dira bateragarriak. Bat baino gehiago aplikatzeko aukera dagoenean zergadunarentzat ekonomikoki onuragarriena dena aplikatuko da.

1.- Familia ugaria direnei hobari hau emango zaie, diru sarreren arabera:

	DIRU-SARRERAK			
	0€ - 18.000€	**18.000€ - 24.000€**	**24.000€ - 40.000€**	**40.000€ - 60.000€**
3 seme-alaba arteko familiak	% 50	% 30	% 20	% 10
Familiak 4 seme-alaba	% 50	% 30	% 20	% 10
5 seme-alaba edo gehiago	% 75	% 60	% 40	% 30

Zerga hobariaren mugak

Hobariak honek baldintza eta ezaugarri hauek izango ditu:

1. Kide ugaridun familia unitate titulua izan beharko da, OHZ-ren Ordenantzan azaltzen den termino berdinetan.
2. Familia unitateko kide guztiak etxebizitza berdinean erroldatuak egon behar dira.
3. Familia unitate berdinak ibilgailu bat baino gehiago badu, bakarrari aplikatuko zaio hobaria, ekonomikoki hobaririk onuragarriena duenari.
4. Ibilgailuak gutxienez bost eserleku izan behar ditu, eta ez zaie hobaria aplikatuko abenduaren 28ko 38/1992ko Zerga Berezien Legeak barne hartzen duen, Zenbait Ibilgailuri aplikatzen zaien Zerga Bereziko, "etxebizitza" kategorian azaltzen diren ibilgailuei. Ondorengo kategorian daudenak, hain zuzen ere:

   "48. Ibilgailu etxebizitza: Ibilgailu egokitua etxebizitza moduan erabiltzeko."

5. Hobaria aplikatu ahal izateko ibilgailuak ezingo du 15,99 baino zaldi fiskalak gehiago izan.

Hobariaz baliatzeko baldintza eta izapide formalak

- Subjektu pasiboa familia ugariaren titularra izan beharko da zergaren sortzapen datan (urteko urtarrilaren 1ean), eta dokumentazio hau aurkeztu beharko du:
  - Interesdunaren eskabidea, hobariaren xede den ibilgailuaren fitxa teknikoarekin.
- Eskabideak aurkezteko epea zazpi hilekoa izango da, urte bakoitzeko **ekain-abendu bitartean** eta ordaindutako zenbatekoaren zati bat itzultzea bezala izapidetuko da, dagokion ordainagiria ordaindu izana egiaztatu eta gero.

39/2015 Legearen 28.artikuluan eta 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1. artikuluan ezarritakoari jarraiki, Arrasateko Udalak, interesdunak horren aurka egiten ez badu, Eusko Jaurlaritzaren erregistroan eta Nisae elkarreragingarritasun nodoaren bidez, zuzenean informazio hau kontsultatuko du, hobaria eskuratzeko baldintzak betetzen dituzten egiaztatzeko:

- Polizia Zuzendaritza Nagusia: Nortasun datuen kontsulta eta egiaztatzea.
- Foru Ogasunaren PFEZ kontsulta.
- Gipuzkoako Foru Aldundian Familia ugarien tituluen kontsulta.

2016ko apirilaren 27ko Datuak Babesteko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 21 artikuluarekin bat etorriz eskatzaileak bere datuak kontsultatzearen aurka egin ahal izango du, aurka egiteko arrazoiak adieraziz; eta kasu horretan, udalak dagokion agiria aurkeztera behartu ahal izango du.

Udalak eskaera jasotako unean beharrezkoa den dokumentazioa ezin badu modu telematikoan lortu edo daturen bat falta bazaio eskaera ebazteko, eskatzaileak dokumentu horiek aurkeztu beharko ditu, udalak dokumentuak aurkezteko errekerimendua jakinarazi eta 10 egunetara.

2.-Zerga kuotaren %50eko hobaria izango dute motor hibridoa (argindarrarekin eta gasolinarekin, argindarrarekin eta dieselarekin edo argindarrarekin eta gasarekin) duten ibilgailuak. Etxetik bertatik homologatuta etorri beharko dira.
Zerga onura mugatzen da lehen matrikulazio ondorengo bi ekitaldietara.
Hobaria aplikatzeko baldintza izango da ibilgailuak gehienez 20.000 euroko balorea izatea, Estatuko Ogasunak ezarritako balore ofizialen arabera.

3.-Zerga-kuotaren %75eko hobaria izango dute lantegitik bertatik homologaturik datozen motor elektrikoko ibilgailuek.
Zerga onura mugatzen da lehen matrikulazio ondorengo bi ekitaldietara.
Hobaria aplikatzeko baldintza izango da ibilgailuak gehienez 20.000 euroko balorea izatea, Estatuko Ogasunak ezarritako balore ofizialen arabera.

4.- Zerga-kuotaren %100eko hobaria izango dute ibilgailu historikoek. Ibilgailuak historiko gisara katalogatuta egon beharko du.

Zergadunak berak eskatu beharko du hobaria zerga ekitaldian zehar edo hobarirako ezarritako epean. 1. hobaria izan ezik, 2, 3 eta 4. hobariak onetsi eta hurrengo ekitalditik aurrera izango dute eragina. 1. hobaria urtero eskatu beharko da baina 2, 3. eta 4. hobariak behin eskatu eta onetsita hurrengo ekitaldietan ofizioz aplikatuko dira.

VII. AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau, bere Eranskinarekin batera, 1989ko irailaren 29an izandako bilkuran behin betiko onetsi zuen Udalbatzak eta 1990ko urtarrilaren 1ean sartu zen indarrean. Aldaketen historialean agertzen diren aldaketekin dago indarrean, eta indarrean segituko du indargabetzea erabaki arte.

VIII. ALDAKETEN HISTORIALA

Udalbatzaren onespen data	GAOn argitaratze data eta zenbakia.	Indarrean sartzen den data	Aldaketak
1989 IRA 29	89ABE30 - 247	90 URT 1	1. onespena
2001. URR 25	01ABE31 – 249	02-URT 1	Koef. tarifak eurotara
2002 URR 18	02ABE31 – 247	03-URT 1	1. artikulua eta Tarifak
2003 URR 20	03ABE26 - 246	04-URT 1	5. eta 8. art. eta tarifak
2004 URR 25	04ABE20 - 242	05-URT 1	8. eta 9. art. eta tarifak
2005 URR 25	05ABE15 - 236	06-URT 1	Koefizientea eta kuotak
2006 URR 23	06ABE 20 - 240	07-URT-1	Koefizientea eta kuotak
2007 ABE 13	07 ABE 27 – 251	08 URT 1	Koefizientea eta kuotak
2008 ABE 11	08 ABE 31 - 251	09 URT 1	OSORIK ARGITARATUA
2009 AZA 05	09 ABE 30 – 246	10 URT 1	Salbuespenak eta tf taula
2010 URR 7	10 ABE 1-230	11 URT 1	Koefizientea eta salbuesp.
2011 ABE 20	11 ABE 27-244	12 URT 1	KOEFIZIENTEAK
2012 URR 30	12 ABE 24 – 244	13 URT 01	KOEF/HOBARIAK
2013 ABE 17	13 ABE 30 – 247	14 URT 01	Udal koefizientea
2014 ABE 18	2014 ABE 26 – 246	15 URT 01	4. HOBARIA-BERRIA

2015 ABE 15	2015 ABE 23 – 245	15 URT 01	HOBARIAK %75-%95
2016 URR 25	2016 ABE 22 - 241	17 URT 01	Hibridoak 5 urte hobaria
2017 URR 03	2017 ABE 15 - 238	18 URT 01	Kuotak eta arauak
2018 URR 02	2018 ABE 18 -242	19 URT 01	
2019 URR 01	2019 ABE 19-242	20 URT 01	Karga Tasa eta hobariak
2020 UZT 28	2021 AZAR 5-190	21 URT 01	Hobariak
2022 URR 4	2022 ABE 5 - 230	23 URT 01	Kuotak itzultzea eta hobariak
2023 ABE 05	2023 ABE 20 - 243	24 URT 01	Karga tasa eta hobariak
2024 ABE 03	2024 ABE 18 - 243	25 URT 01	Kuotak itzultzea, salbuespenak eta hobariak

ERANSKINA

TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA.

ONESPEN EGUNA: ..... 2024ko abenduaren 3an
ZERGA-OINARRIA: ..... 4/2009 Foru Araua - 8.2. art

	KOEF.	€
TURISMOAK		
9 HP baino gutxiago	2,5656	47,18
9-11,99 HP	2,5656	94,36
12-13,99 HP	2,5656	157,27
14-15,99 HP	2,6771	229,75
16-19,99 HP	2,6771	295,75
20 HPtik gorakoak	2,7028	364,5
AUTOBUSAK		
21 eserlekutik behera	2,4669	205,49
21-50 eserleku	2,4669	292,67
50 eserlekutik gora	2,4669	365,84
KAMIOIAK		
1.000 kg-ko zama erabilgarritik behera	2,4669	104,30
1.000 - 2.999 kg	2,4669	205,49
2.999 - 9.999 kg	2,4669	292,67
9.999 kg-tik gora	2,4669	365,84
TRAKTOREAK		
16 HP fiskaletik behera	2,4669	43,59
16-25 HP	2,4669	68,51
25 HPtik gora	2,4669	205,49
ATOIAK ETA ERDI-ATOIAK		
750 kg-tik 1.000 kg-rainoko zama erabilgarria	2,4669	43,59
1.000 - 2.999 kg	2,4669	68,51
2.999 kg-tik gora	2,4669	205,49
BESTE IBILGAILU BATZUK		
Ziklomotorrak	2,5656	11,57
125 cm3-rainoko motorrak	2,5656	11,57
125-250 cm3	2,5656	19,81
250-500 cm3	2,5656	39,64
500-1.000 cm3	2,7897	86,20
1.000 cm3-tik gora	2,7897	172,38

ALKATEA **IDAZKARIA**

4 . HIRI-LURREN BALIOA GEHITZEAREN GAINEKO ZERGA

HIRI-LURREN BALIOA GEHITZEAREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua
Udal honek, Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen 11/89 Foru Arauan, tributuari buruzko 16/89 Foru Arau berezian (biak ere uztailaren 5ekoak) eta uztailaren 2ko 3/92 Foru Arauan xedatutakoari jarraituz, hiri-lurren balioa gehitzearen gaineko zerga ezartzen eta exijitzen du ordenantza honen bidez. Balioaren gehikuntza ateratzeko ehunekoen taula eta aplika daitezkeen tarifak jasotzen dituen eranskina ere ordenantza honen atalak dira.

2. artikulua
Ordenantza udalerri osoan aplikatuko da.

II. EGITATE ZERGAGARRIA

3. artikulua
1. Hiri-lurren balioak zergaldian izan duen balio gehikuntza da egitate zergagarria, bai hiri-lurren jabetza edozein tituluren bidez eskualdatu denean bai hiri-lurren jabaria mugatzen duen edozein gozamen-eskubide eratu edo eskualdatu denean.

2. Ondorio hauetarako, honako hauek joko dira hiri-lurtzat:

Hiri-lurzorua, urbanizatzeko modukoa, urbanizagarri programatua edo urbanizagarri programatu gabea, Hirigintza Jarduketarako Programa onartzen den unetik; bide zolatu edo espaloi zintarridunez gainera, estolderia, ur-hornidura, energia elektrikoaren hornidura eta argiteria publikoa dituzten lurrak, eta hiri-eraikuntzek okupatzen dituztenak.

Nekazaritzako legerian xedatutakoaren aurka zatikatzen diren lurrak ere halakotzat hartuko dira, betiere zatikapen horrek nekazaritza-erabilera hutsaltzen badu, eta, hala ere, haien landa izaeran aldakuntzarik ez bada, zerga honekin loturik ez dauden beste ondorioetarako.

III. LOTURARIK EZA , SALBUESPENAK ETA HOBARIAK

4. artikulua. Loturarik eza.
Ondoko kasuak ez dira zerga honekin lotuta egongo:

a) Ondasun higiezinen gaineko zerga dela-eta landa-lurtzat jotzen diren lurren balio-gehikuntza. Zerga hau ordaindu egingo da, berriz, ondasun higiezinen gaineko zerga dela-eta hiri-lurtzat jo behar diren lurren balioaren gehikuntzagatik; alde batera utzita haren erroldan edo katastroan horrela jasota dauden edo ez.

b) Zergari lotu gabe egongo da, era berean, sozietateen gaineko zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauak VI. tituluaren VII kapituluan araututako erregimen berezia aplikagarria zaien eragiketetatik eratorritako eskualdaketen ondorioz hiri-lurrek izan duten balio-gehikuntza, salbu-eta aipatutako 2/2014 foru arauak 111. artikuluan jasotakoaren arabera ematen diren lurren gaineko eskualdaketak, jarduera adar batean sartuta ez daudenean.

Aipaturiko lurrak geroago eskualdatzen badira, VI. tituluaren VII. kapituluan jasotako eragiketetatik eratorritako eskualdaketak ez du etenaraziko balio-gehikuntza sortu den urte kopurua.

c) Ezkontideek ezkontza sozietateari egindako ondasun eta eskubideen ekarpenen kasuan, ekarpen horien ordainetan haien alde egiten diren adjudikazio egiaztatuak eta ezkontideei beren hartzeko erkideen ordainetan egiten diren eskualdaketak.

Xedapen bera aplikatuko da, aurreko paragrafoan aipatutako kasu berberetan, izatezko bikotekideek egiten dituzten ekarpen, adjudikazio eta eskualdaketei dagokienez.

Zergari lotu gabe egongo da, orobat, ezkontideen artean, izatezko bikotekideen artean edo seme-alaben alde ondasun higiezinak eskualdatzea, baldin eta eskualdaketa hori gertatzen bada ezkontza baliogabetu edo senar-emazteak banandu edo dibortziatzean edo izatezko bikotea deuseztatzean emandako sententziak betetzeagatik, ezkontza ko erregimen ekonomikoa edo izatezko bikotearen ondarezko erregimen ekonomikoa zeinahi dela ere.

d) Lurren eskualdaketak ez dira egongo zergari lotuta eskualdatze eta eskuratze datetan lursail horien balioen artean dagoen diferentzia kalkulatzean egiaztatzen denean ez dela izan balio gehikuntzarik.

Horretarako, balio gehikuntzarik ez dagoela frogatu gura duen pertsona edo entitate interesdunak eskualdaketa deklaratu beharko du, eta eskualdatzea eta eskuratzea egiaztatzen duten tituluak aurkeztu ere bai; ondorio horietarako, pertsona edo erakunde interesduntzat hartuko dira Ordenantza honen 6. artikuluan aipatzen diren pertsona edo erakundeak.

Eskualdaketan balio gehikuntzarik ez dela izan egiaztatzeko, lurraren eskualdatze edo eskuratze baliotzat hartuko da, kasu bakoitzean, balio hauetatik handiena: eragiketa dokumentatzen duen tituluan ageri dena edo, hala badagokio, Zerga Administrazioak egiaztatutakoa. Ondorio horietarako, ezingo dira konputatu eragiketa horietan izandako gastuak edo aplikatutako tributuak, eta ez da inolako eguneratzerik izango denbora igarotzeagatik.

Higiezinaren eskualdaketan lurzorua eta eraikuntza sartzen direnean, lurzoruaren baliotzat hartuko da zergaren sortzapen egunean lurraren katastro balioak katastro balio osoarekiko duen proportzioa aplikatuta ateratzen dena, eta proportzio hori aplikatuko zaie eskualdatze balioari nahiz, hala badagokio, eskuratze balioari.

Eskuratzea edo eskualdatzea kostu gabekoa izan bada, aurreko paragrafoetako erregelak aplikatuko dira, eta, hala badagokio, konparatu beharreko bi balioetatik lehenengoa hartuko da kontuan, oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergan aitortutakoa.

Lurren balio gehikuntza zenbat urtetan sortu den konputatzeko, ez da kontuan hartuko higiezina eskuratu aurreko denbora.

5. artikulua. SALBUESPENAK eta HOBARIAK

1. Balio gehikuntzak zerga honetatik **salbuetsiko** dira egintza hauen ondorio direnean:

a) Zortasun eskubideak eratu eta eskualdatzea.

b) Ondasun higiezinen gaineko zergaren uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauaren 4.2.e) artikuluan xedatzen duen salbuespena aplikagarri duten ondasunak eskualdatzea, baldin eta haien jabeek edo eskubide errealen titularrek frogaturik uzten badute ondasun higiezin horiek kontserbatu, hobetu edo birgaitzeko obrak euren kontura egin dituztela.

Salbuespen hau aplikatzeko, nahitaezkoa izango da kontserbazio, hobekuntza edo birgaitze obra horiek egiteko udal lizentzia izatea. Era berean, beharrezkoa izango da aipatutako lanak ondasuna besterendu aurreko lehen 10 urteetan gauzatzea.

Ondorio horietarako, kontserbazio, berrikuntza edo birgaitze lantzat joko dira eraikinak fatxaden edo teilatuen kontsolidazio edo tratamendu bidez eraikitzea helburu dutenak, baita obra horien antzekoak ere, obra horien kostua, guztira, balio katastralaren %25 baino handiagoa bada.

2. Era berean, zerga hau ordaindu behar dutenak ondoko pertsona edo entitateak direnean, balio-gehikuntzak **salbuetsita** egongo dira zerga honetan:

a) Estatua, Euskal Autonomia Erkidegoa, Gipuzkoako Foru Aldundia eta, orobat, lurralde administrazio publiko horietako organismo autonomoak nahiz antzeko izaera duten zuzenbide publikoko entitateak.

b) Zerga ezartzen duen udalerria, udalerri horren parte diren edo izan daitezkeen gainerako udal entitateak, eta lurralde administrazio publiko horietako organismo autonomoak nahiz antzeko izaera duten zuzenbide publikoko entitateak.

c) Ongintzako edo ongintza-irakaskuntzako kalifikazioa duten erakundeak.

d) Gizarte Segurantzaren entitate kudeatzaileak eta indarrean dagoen legeriaren arabera eratutako gizarte aurreikuspeneko mutualitateak.

e) Emakida administratibo itzulgarrien titularrak, emakidei atxikitako lurrei dagokienez.

f) Gurutze Gorria eta beronekin pareka daitezkeen beste entitateak, erregelamenduz zehaztuko direnak.

g) Salbuespena nazioarteko itun edo hitzarmenetan aitortu zaien pertsona edo entitateak.

3- Kuotaren %80ko hobaria izango dute, heriotzaren ondorioz, ezkontideen, oinordekoen eta adoptutakoen alde, aurrekoen eta adoptatzaileen alde egiten diren higiezinen eskualdaketek edo jabaria mugatzen duten gozamenezko ondasun eskubideen eraketa edo eskualdaketa ez irabazizkoek, baldin eta higiezin horiek sortarazlearen heriotza-egunean aipatu diren oinordeko eskuratzaile horien ohiko bizileku izan badira azkeneko urtean.

V. SUBJEKTU PASIBOAK

6. artikulua

Hona hemen zergaren subjektu pasiboak:

a) Lurren kostu gabeko eskualdaketetan edo jabaria mugatzen duten **gozamen-eskubide** errealen kostu gabeko eraketan edo eskualdaketan, lurra **eskuratzen duen pertsona** edo, bestela, dena delako eskubide-erreala eratzen edo eskualdatzen zaion pertsona.

b) Lurrak eskualdatzean edo jabaria mugatzen duten **gozamenezko** ondasun-eskubideak ordainik gabe eratu edo eskualdatzean, **lurraren eskualdatzailea** edo dena delako ondasun-eskubidea eratu edo eskualdatzen duen pertsona.

c) Lurrak ohiko etxebizitzaren hipoteka betearazteagatik eskualdatzen direnean, haiek eskuratzen dituen pertsona fisiko edo juridikoa edo Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 35.3 artikuluan aipatzen den entitatea zergadunaren ordezko subjektu pasibo bihurtuko dira.

Aurreko paragrafoan xedatutako kasuetan, ordezkoak ezingo dio eskatu zergadunari ordainduta dagoen zerga-obligazioaren zenbatekoa.

Atal honetan xedatutakoen ondorioetarako, ohiko etxebizitzatzat joko da Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren 10/2006 Foru Arauaren 90. artikuluaren 8. atalean halaxe definitzen dena.

d) Baliabiderik gabeko zordun hipotekarioak babesteko presako neurriei buruzko martxoaren 9ko 6/2012 Errege Lege Dekretuak 2. artikuluan xedatutakoan sartzen diren zordunek euren etxebizitza zorren ordainez emateagatik (arau horren Eranskinaren 3. atalean xedatua) egindako eskualdaketetan, ondasun higiezina eskuratzen duen entitatea izango da zergadunaren ordezko subjektu pasiboa, eta ordezkoak ezin izango dio zergadunari exijitu ordaindutako zerga-obligazioen zenbatekoa.

VI. ZERGA-OINARRIA

7. artikulua

1. Zerga honen zerga oinarria lurren balioaren gehikuntza da, zehazki, sortzapena gertatzen den unean agertzen den gehikuntza eta gehienez ere hogei urtean izandakoa. Zerga oinarriaren zenbatekoa lurzoruaren balioa izango da, hurrengo atalean azaldutakoaren arabera eta dagokion sortzapenaren araberako koefizientearekin biderkatuta.

2. Sortzapen unean lurrak zer balio duen zehazteko, 16/1989 Foru Arauaren 4.2. artikuluko arauak aplikatuko dira.

3. Balio gehikuntzaren sortzeko aldia: gehikuntza hori agerian jartzeko igarotako urte kopurua.

Eragiketak zergari lotuta ez dauden kasuetan, eta, betiere, foru arau bidez besterik esaten ez bada, lurraren geroko eskualdatze batean balio gehikuntza sortzeko aldia zenbatekoa izan den kalkulatzeko, eskuratze datatzat hartuko da, aurreko parrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, zergaren azken sortzapena gertatu zen data.

Igarotako urte kopuruaren konputuan urte osoak hartuko dira kontuan, hau da, urte zatikiak aintzat hartu barik. Sortze aldia urtebetetik beherakoa bada, urteko koefizientea

hainbanatuko da, hilabete osoen kopurua kontuan hartuta, hau da, hilabete zatikiak aintzat hartu barik.

Sortzapenaren unean lurrak duen balioari indarrean dauden gehieneko koefizienteak aplikatuko zaizkio, hau da, 16/1989 Foru Arauaren 4.3. artikuluan jasotako gehieneko koefizienteak eta urtero eguneratuko direnak Foru Arau bidez edo Gipuzkoako Lurralde Historikoko aurrekontu orokorren foru arauen bidez.

Edonola ere, aipatutako xedapenean aurreikusitako gehieneko koefizienteak eguneratuz gero, alkateari ahalmena ematen zaio aplikagarriak diren koefiziente berriak ebazpen bidez argitaratzeko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, baita udalaren webgunean eta iragarki taulan ere.

4. Subjektu pasiboak eskatuta, Ordenantza honen 4.d) artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz egiaztatzen bada balio gehikuntzaren zenbatekoa artikulu honen aurreko apartatuetan xedatutakoaren arabera zehaztutako zerga oinarriaren zenbatekoa baino txikiagoa dela, balio gehikuntza horren zenbatekoa hartuko da zerga oinarritzat.

8. artikulua
Lurrak eskualdatzean, sortzapen-unean ondasun higiezinen gaineko zergaren ondorioetarako finkatuta daukana izango da lurron balioa.

9. artikulua
1. Jabaria mugatzen duten ondasun-eskubideak eratu eta eskualdatzean, 7. artikuluan zehaztutako balioaren zatiaren gainean aplikatuko da Eranskinean jasotzen diren urteko ehunekoen taula. Parte hori aipatutako eskubideen balioaren adinekoa izango da eta balio horren zenbatekoa ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren ondorioetarako ezarritako arauak aplikatuz zehaztuko da.

2. Eraikin edo lursail baten gainetik solairu bat edo gehiago altxatzeko, edo lur azpitik eraikitzeko eskubidearen sorreran eta eskualdaketan –lurrazal eskubide erreal bat izan gabe ere– Eranskinean jasotzen diren urteko ehunekoak aplikatuko dira, hain zuzen ere, 7. artikuluan zehaztutako balioaren partearen gainean, horixe baita eskualdaketaren eskrituran ezarritako proportzionaltasun moduluaren adinakoa, eta hori ezin bada, gorantz edo lur azpian eraikitzeko diren solairuen zabaleraren edo bolumenaren eta eraikitako zabalera osoaren edo bolumenaren arteko ehunekoa zehaztu ondoren aterako dena, solairuak eraiki ondoren.

3. Nahitaezko desjabetzeetan, Eranskinean jasotzen diren urteko ehunekoen taula lurren balioari dagokion balio justuaren parteari aplikatuko zaio.

VII. TRIBUTU-KUOTA

10. artikulua
Zerga honen kuota ateratzen da zerga-oinarriari Eranskinean adierazten den karga-tasa aplikatuz.

VIII. ZERGAREN SORTZAPENA

11. artikulua
1. Data hauetan sortuko da zerga:

a) Lurraren jabetza bizien artean edo norbaiten heriotzak eraginda eskualdatzen denean, bai doan, bai kostu bidez, eskualdaketa gertatzen den unean.
b) Jabaria mugatzen duen gozamen eskubide errealen bat eratzen edo eskualdatzen denean, eraketa eta eskualdaketa gertatzen den datan.

Aurrekoaren ondorioetarako, hauxe izango da eskualdaketa data:

1) Bizien arteko egintzetan edo kontratuetan, agiri publikoa ematen den eguna; agiri pribatua bada, erregistro publiko batean sartzen edo inskribatzen den eguna edo funtzionario publiko bati bere lanbidea dela-eta ematen zaion eguna.
2) Heriotzak eragindako eskualdaketetan, eragilea hil den eguna.

2. Lursaila eskualdatzea edo gozatze-eskubide erreala eratzea edo eskualdatzea ahalbidetu duen egintza edo kontratua auzitegiek edo administrazioek ebazpen irmoz baliogabetu, deuseztatu edo bukarazten badute, ordaindutako zergaren zenbatekoa berreskuratu ahal izango du subjektu pasiboak, baldin eta egintza edo kontratu horrek irabazirik ekartzen ez badio eta ebazpen irmoa eman zenetik bost urteko epean egiten badu diru hori itzultzeko eskaera. Interesatuek Kode Zibilaren 1925. artikuluan aipatutako itzulketak ekarri egin behar dizkietela justifikatu ezean, irabazi asmorik badagoela uste izango da. Egintzak edo kontratuak irabazirik ekartzen ez badu ere, deuseztapena edo suntsiarazpena zergaren subjektu pasiboak bete beharrak ez betetzearen ondorioz adierazten bada, ez da itzulketarik izango.

3. Kontratuaren bi aldeek hala hitzarturik kontratua bertan behera geratzen bada, ordaindutako zerga ez da itzuliko, eta tributatzeko egintza berritzat joko da. Hitzarmen horren adierazlea bi aldeen adiskidetze-ekitaldia izango da, eta demanda onartze hutsa.

4. Tartean baldintzaren bat dagoen egintza edo kontratuetan, Kode Zibilean jasotako aginduen arabera egingo da kalifikazioa. Baldintza hori etenarazlea bada, zerga ez da ordainduko baldintza betetzen den bitartean. Baldintza suntsiarazlea bada, zerga eskatu egingo da, jakina, baina salbuespen honekin: baldintza betetzen denean, dirua itzuli egingo da, aurreko puntuko arauak dioenari jarraituz.

IX. KUDEAKETA

12. artikulua

Subjektu pasiboek Udal Administrazioaren aurrean aurkeztu beharko dute zergagatik dagokien aitorpena, Udalak berak ezarritako eredu ofizialaren arabera egina. Eredu horretan tributu zerrendako elementuak eta kuota zehazteko beharrezkoak diren gainerako elementuak jasoko dira. Aitorpena aurkezten den une berean ordaindu beharko da kuota.

13. artikulua

Aitorpen hori ondoren adierazten diren epeen barruan aurkeztu beharko da, eta ateratako kuota ordaindu, zergaren sortzapena sortzen den datatik aurrera zenbatuko direlarik:

a) Bizidunen arteko egintzetan, epea 30 lanegunekoa izango da.
b) Heriotzagatik egiten diren egintzetan, epea sei hilabetekoa izango da, eta subjektu pasiboak hala eskatzen badu, urtebeteko mugaraino luzatu ahal izango da.

14. artikulua

1. Aitorpenarekin batera, ezarpena sortaraziko duten egintza edo kontratuak bilduko dituen agiria aurkeztuko da ezinbestez, behar bezala egiaztatuta.
2. Eskatzen diren salbuespen edo hobariak ere agiriz egiaztatu beharko dira.

15. artikulua
Horietaz gain, zergaren likidazioa egiteko beharrezko iritzitako agiri guztiak eskatu ahal izango dizkie udal administrazioak pertsona interesdunei. Agiriok aurkezteko epea hogeita hamar egunekoa izango da, eta beste hamabost egunez ere luzatu ahal izango da, interesdunak eskatuz gero. Eginiko errekerimenduak epe horien barruan betetzen ez dituztenei kasuan kasuko arau hausteengatiko zehapenak eta tributu zehapenak ezarri ahal izango zaizkie, aurkeztu gabeko agiriak aitorpena ikuskatzeko beharrezkoak direnean. Falta diren agiriak interesdunak bere onerako alegatutakoak egiaztatzeko bakar-bakarrik direnean, likidazioa, alegatu bai baina justifikatu ez diren zirkunstantzia horiek kontuan hartu gabe egitea izango du ondorio errekerimendua ez betetzeak.

16. artikulua
12. artikuluan xedatutakoa gorabehera, ondoren aipatzen direnek ere derrigorrez eman behar diote udal administrazioari egitate zergagarriaren berri, subjektu pasiboentzako ezarritako epe berberak erabiliz:

a) Zerga Ordenantza honen 6. artikuluko a) hizkian jasotako kasuetan, baldin eta bizidunen arteko negozio juridikoak izan badira, emaileak edo kasuan kasuko eskubide erreala eratzen edo eskualdatzen duen pertsonak.

b) Aipatutako 6. artikuluko b) hizkian jasotako kasuetan, eskuratzaileak edo kasuan kasuko eskubide erreala eratzen edo eskualdatzen zaion pertsonak.

17. artikulua

Era berean, notarioek hiruhileko bakoitzaren lehen hamabostaldian, aurreko hiruhilekoan beraiek baimendutako agiri guztien zerrenda edo aurkibidea igorri beharko diote udal administrazioari. Zerga honen egitate zergagarria udalerrian bete egin dela agerian uzten duten egitateak, egintzak edo negozio juridikoak jasoko dira agiri horietan, azken nahiaren egintzak izan ezik. Halaber, epe berberaren barruan igorri beharko dute sinadurak aintzatesteko edo legeztatzeko aurkeztu izan zaizkien egitate, egintza edo negozio juridikoei buruzko agiri pribatuen zerrenda. Artikulu honetan xedatutakoa, dena den, ez da izango Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean lankidetzarako ezarritako betebehar orokorraren kalterako.

18. artikulua

1. Udal administrazioak aitortu izan ez diren egitate zergagarrien berri duenean, 13. artikuluan adierazitako epeen barruan, interesdunei eskatuko die aitorpena egin dezaten; horrek ez du esan nahi, ordea, tributu-arauak hausteak ekar ditzakeen zehapenak aplikatuko ez direnik.

2. Aurreko paragrafoan xedatutako errekerimenduak eginda ere, interesdunek ez badituzte egin beharreko aitorpenak aurkezten, espediente bat abiaraziko da ofizioz, udal administrazioak eskura dituen datuak erabiliz, eta horren araberako likidazioa egingo du; sarrerak egiteko epeak eta jar daitezkeen helegiteak ere adieraziko ditu administrazioak; horrek ez du esan nahi, ordea, tributu-arauak hausteak ekar ditzakeen zehapenak aplikatuko ez direnik.

19. artikulua

Lurren eta gainerako zergapeko egintzen eskualdaketaren dokumentua ezin izango da inskribatu Jabetzaren Erregistroan, baldin eta zerga honen ordainketa edo, hala badagokio, kuoten ordainketaren atzerapena egiaztatzen ez bada.

20. artikulua
Zerga honen likidazio, bilketa eta ikuskapena gauzatzeko, eta gerta daitezkeen zerga arloko arau hausteak eta kasuan kasuko zehapenak zehazteko, Zerga Arau Orokorrari buruzko Foru Arauan xedatutakoa aplikatuko da.

X. XEDAPEN GEHIGARRIA

8.1 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, eta ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga onartzen duen Foru Araua indarrean dagoen bitartean, honako arau hauek bete beharko dira:

1. a) Aldi baterako gozamenaren balioa ondasunen balioaren proportzioan egingo da, urtebeteko epealdi bakoitzeko 100eko 5 alegia, 100eko 70 gainditu gabe. (13/96 FA)

b) Biziarteko gozamenetan, balioa ondasunen balio osoaren %70ekoa dela iritziko da gozamendunak 20 urte baino gutxiago dituenean, eta adinean gora egin ahala, 100eko 1 murriztuko da urteko, balio osoaren 100eko 10ean jarriz muga, betiere.

c) Pertsona juridiko batentzat eratutako gozamenak 30 urtetik gorako epea badu edo mugaegunik ez badu, baldintza suntsiarazle pean dagoen jabetza osoko eskualdaketatzat joko da zergei dagokienez.

2. Jabetza soilaren balioa kalkulatzeko, gozamenaren balioaren eta ondasunen balio osoaren arteko aldea hartuko da kontuan. Aldi baterako diren biziarteko gozamenen kasuan jabetza soila baloratzeko, aurreko lehen zenbakiko arauetatik baliorik txikiena ematen diona aplikatuko da.

3. Erabiltzeko eta bizitzeko eskubide errealen balioa kalkulatzeko, aldi baterako gozamenak edo biziartekoak –kasuan kasukoak– baloratzeko erabiltzen diren arauak ondasunen zer baliori aplikatu zaizkion ikusi eta balio oso horrexen 100eko 75 hartuko da.

4. Aurreko ataletan sartu gabeko eskubide errealei emango zaien balioa aldeek haiek eratzean hitzartutako kapital, prezio edo balioa izango da, baldin eta urteko errenta edo pentsioaren zerga sortzen den datan indarrean dagoen diruaren legezko interesaren kapitalizaziotik ateratzen denaren berdina edo handiagoa bada, edo azken kopuru honen arabera bestela, hura txikiagoa bada.

XI. AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau eta bere Eranskina Udalbatzak 1989ko irailaren 29an izandako bilkuran onetsi zuen behi betiko, eta 1990ko urtarrilaren 1ean sartu zen indarrean. Aldaketen historialean agertzen diren aldaketekin aplikatzen da eta indarrean segituko du indargabetzea erabaki arte.

XIII. ALDAKETEN HISTORIALA

Udalbatzaren	GAOn argitaratze	Indarrean sartzen	Aldaketak

onespen data	data eta zenbakia.	den data	
1989 IRA 29	89ABE30 - 247	90 URT 1	Hasierako onespena
2000. URR 26	00ABE26 – 246	01-URT 1	Hobaria
2001			Aldaketarik ez
2002 URR 18	02ABE31 – 247	03-URT 1	Zerga-tasa
2003 URR 20	03ABE26 - 246	04-URT 1	4., 5. eta 7. artikuluak eta ehunekoen taula
2004 URR 25	04ABE20 - 242	05-URT 1	Zerga-tasa
2005 URR 25	05ABE15 - 236	06-URT 1	Zerga-tasa
2006 URR 23	06 ABE 20 - 240	07-URT-1	K/t, %ko hobaria, %ko bg
2007 ABE 13	07 ABE 27 – 251	08 URT 1	Zerga-tasa
2008 ABE 11	08 ABE 31 – 251	09 URT 1	OSOA ARGITARATUA
2010 URR 7	10 ABE 1 - 230	11 URT 1	Zerga-tasa
2011 ABE 20	11 ABE 27-244	12 URT 1	ZERGA-TASA
2012 URR 30	12 ABE 24 – 244	13 URT 01	Zerga/tasa eta hobaria herentziak
2013 ABE 17	13 ABE 17 – 247	14 URT 01	Zerga-tasa
2014 ABE 18	2014 ABE 26 – 246	15 URT 01	4. HOBARIA-BERRIA
2015 URR 13	15 ABE 23 - 245		
2016 URR 25	16 ABE 22 - 241	17 URT 01	Zerga tasa
2017 URR 03	17 ABE 15 - 238	18 URT 01	Zerga tasa
2018 URR 02	2018 ABE 18 -242	19 URT 01	
2022 EKAIN 14	2022 EKAIN 23 - 119	22 EKAIN 24	Oinarri ezargarria eta karga tasa
2022 URR 4	2022 ABE 5 - 230	23 URT 01	Oinarri ezargarria eta karga tasa
2023 ABE 05	2023 ABE 20 - 243	24 URT 01	Karga tasak
2024 ABE 03	2024 ABE – 18 - 243	25 URT 01	Karga tasak

ERANSKINA

HIRI-LURREN BALIOA GEHITZEAREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA

I. ONESPEN EGUNA:

2024ko abenduaren 3an

II. EHUNEKOEN TAULA (INDARGABETZEN DA)

III. KARGA TASA:

URTEAK	EHUNEKOA
5 URTE EDO GUTXIAGO	%7,39
10 URTE ARTE	%12,85
15 URTE ARTE	%22,66
20 URTE ARTE	%11,70
20 URTE EDO GEHIAGO	%9,32

ALKATEA **IDAZKARIA**

5 . ERAIKIN, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA

ERAIKIN, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua

Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/89 Foru Arauan eta tributuari bereziki dagokion 15/89 Foru Arauan xedatutakoaren arabera, Udal honek eraikin, instalazio eta obren gaineko zerga ezartzen eta exijitzen du Ordenantza honi jarraituz. Tarifa aplikagarriak jasotzen dituen Eranskina Ordenantzaren barruan dago.

2. artikulua

Ordenantza udalerri osoan aplikatuko da.

II. EGITATE ZERGAGARRIA

3. artikulua

Hirigintzako obretarako lizentzia behar duen edozein eraikin, instalazio edo obra egitea da egitate zergagarria, lizentzia hori jaso nahiz jaso ez, baldin eta lizentzia ematea Udal honi badagokio. Era berean, erantzukizunpeko aitorpena edo aurretiko komunikazioa aurkeztea eskatzen duten eraikin, instalazio edo obrak ere egitate zergagarriak dira.

4. artikulua

Besteak beste, honako hauek zergapeko egitate zergagarriak dira:

1. Planta berriko mota guztietako eraikin eta instalazioak egiteko obrak.
2. Mota guztietako eraikin eta instalazioak handitzeko obrak.
3. Egitura ukitzen duten aldaketak edo berrikuntza obrak egitea, mota guztietako eraikin eta instalazioetan.
4. Kanpoko itxura aldatzen duten obrak egitea, mota guztietako eraikin eta instalazioetan.
5. Eraikinen barne-antolamendua aldatzen duten obrak, edozein dela ere eraikinaren erabilera.
6. Behin-behineko izaeraz egin beharreko obrak, Lurzoruari buruzko Legearen testu bateginaren 58. artikuluko 2. atalean jasotzen direnak.
7. Zerbitzu publikoak instalatzeko obrak.
8. Lur-mugimenduak, hala nola lur-erauzketak, hondeaketak eta betelanak, salbu eta halako lanak urbanizazio edo eraikuntza proiektu onetsi eta baimenduetan xehatuta eta programatuta daudenean.
9. Eraikinak eraistea, hur-hurreko aurriaren deklarazioa dutenak izan ezik.
10. Lurpeko instalazioak: aparkalekuak, industria, merkataritza edo lanbide jardueretarako instalazioak, zerbitzu publikoenak edo lur azpiari ematen zaion beste edozein erabilera dutenak.

11. Propaganda kartelak bide publikotik ikusteko moduan jartzea.
12. Ahalmen ekonomikoa agerian jartzen duten baliabide ekonomikoen inbertsioa eskatzen duten obra, eraikin eta instalazio guztiak, baldin eta obra lizentzia edo hirigintzako lizentzia behar badute.

5. artikulua

1. ZERGAPEAN EZ

Ez dira zergapekoak izango Udal honen jabariko higiezinetan egiten diren eraikin, obra eta instalazioak, baldin eta obraren jabea Udala bera bada.

2. SALBUESPENAK

1. Zerga ordaindu beharretik salbuetsita daude Estatuaren, autonomia erkidegoen, lurralde historikoen edo toki erakundeen jabetzapeko era guztietako eraikin, instalazio eta obrak, baldin eta aipatutako zergapean egonik, errepide, trenbide, portu, aireportu, obra hidrauliko, biztanle-guneen eta bertako hondakin uraren saneamendura zuzenki bideratuta badaude. Hori horrela izango da kudeaketa-erakunde autonomoek egiten badute ere, hala inbertsio berriko obrak direnean nola kontserbazio obrak direnean.

3. HOBARIAK

Hobari hauek ez dira aplikatuko aldi berean eraikin, instalazio edo obra berdinaren gain, nahiz eta hauek egikaritzeko hirigintza lizentzia bat baino gehiago eman. Lizentzia ugari eskatu diren eraikin, instalazio edo obra beraren kontzeptuaren barne egongo dira, urte berean eta etxebizitza edo eraikin bera eraldatzeko xedez egiten direnak. Hobari bat baino gehiago aplikagarria den kasuetan, zergadunarentzat onuragarriena dena aplikatuko da, eta, horretarako, obra amaierako datuak aztertuko dira.

Jarraian jasotzen diren hobariak zergadunak eskatu beharko ditu, obra amaierako aurrekontua aurkeztu eta aztertu ondoren Udalak igorritako behin betiko likidazioa jakinarazten den egunetik kontatzen hasi eta 6 hilabeteko epera arte, 2. hobaria izan ezik, hau da, babestutako etxebizitzen birgaitze obrak (Eusko Jaurlaritza) izan ezik.

1. **Interes berezia edo udal onurakoak izateagatik zirkunstantzia sozial, kultural edo historiko-artistikoa izateagatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak gertatzeagatik, ondorengo hobariak aplikatuko dira**. Horiek aplikatzeko beharrezkoa izango da zergadunak eskatu, Errenta eta Exakzio Sailak eta Hirigintza, Mugikortasun eta Ingurumen Sailak aldeko txosten teknikoa ematea eta Udaleko Osoko Bilkurak onestea, batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoekin. Halaber, hobariak ez dira bateragarriak izango eta bat baino gehiago aplikatu daitekeen kasuetan ekonomikoki onuragarriena dena aplikatuko da:

    2. Baserriak.

    a) Baserrietako birgaitze obrek %90eko hobaria jasoko dute. Horretarako baserriaren titularrak izena emanda izan beharko du Gipuzkoako Foru Aldundiko Sustapen Ekonomiko, Landa Ingurune eta Lurralde Orekatuko sailean, Nekazal Garapen eta Nekazaritza orokorreko Zuzendaritzan.
    b) Baserrien teilatuak konpontzeko obrek %95eko hobaria jasoko dute. Horretarako baserria, azken urtean gutxienez, hutsik egon beharko da. Baserria hutsik dagoela kontuan hartzeko udal biztanle errolda aztertuko da eta zerbitzuetako kontsumoak hutsak eta erdi hutsak izan beharko dira.

c) AHAPOren arabera baserri bezala katalogatutako eraikinetan egiten diren birgaitze obrek %50eko hobaria.

b. Babestutako etxebizitzen birgaitze obrek kuotaren %50eko hobaria izango dute, baldin eta udalak obra egiteko diru laguntzarik eman ez badu eta Eusko Jaurlaritzaren laguntza ekonomikoa (mailegua edota diru laguntza) jasotzen bada. Hobaria eskatzeko epea urtebetekoa izango da, Eusko Jaurlaritzak obren ziurtagiria ematen duen egunetik zenbatzen hasita.

Hobariaren zenbatekoa kalkulatzeko hartuko den zerga oinarria udalean aurkeztutako edo Eusko Jaurlaritzan aurkeztutako obra aurrekontu handiena izango da.

c. Kuotaren %95eko hobaria, Debagoieneko Mankomunitateak egiten dituen eraikin, obra eta instalazioetan.

d. Eusko Jaurlaritzak bultzatutako Bizigune programa barruan egindako obrek %50eko hobaria izango dute.

e. Kuotaren hobaria % 95ean, eraikuntza, instalazio eta obretarako, birgaikuntza edo egokitzea denean (eraikuntza berria ez denean), Euskal Autonomia Erkidegoak egina bada hezkuntzako eraikinetan.

f. Kuotaren hobaria % 95ean, eraikuntza, instalazio eta obretarako, birgaikuntza edo egokitzea denean (eraikuntza berria ez denean), Deba Bailarako Industrialdeak egina bada.

g. Arrazoi sozial eta enplegukoak medio, %95eko hobaria katastroan lokal komertzial izaera duten eraikin beheko lokaletan kokatzen diren ondasun higiezinetan jarduera ekonomiko berrien irekiera ahalbidetzeko burutzen diren obretan.

   Hobaria aplikatzeko baldintza izango da, udalerriko jarduera ekonomikoen matrikulan 1/1993 FORU DEKRETU ARAUEMAILEA, apirilaren 20koa Ekonomi Ihardueren gaineko Zergaren Testu Bateratzailea onartzeari buruzkoan jasotzen den I. Eranskineko Lehen Sekzioko 6. Saileko epigrafe batean altan emanda egotea.

   Hobaritik kanpo geldituko dira, aipatutako epigrafeetako batean altan egonda ere, azken lau urteetako ekitaldi baten 1.000.000 eurotik gorako fakturazioa izan duten jarduerak, edota fakturazio kopuru hori izan duten enpresen taldekoak direnak. Halaber, hobaritik kanpo geldituko dira frankizia, multinazional, enpresa taldeak eta antzekoak, eta, orohar, ohiko egoitza fiskala udalerritik kanpo daukatenak.

h. AE 47.-ALDE ZAHARRA antolamendu esparruan kokatzen diren etxebizitzetan obrak sustatzeko, kuotaren %50eko hobaria, esparruko etxebizitza eraikinen barruko etxebizitzetan egiten diren obretan, betiere obra horien aurrekontua 10.000 eurokoa (BEZa kontuan izan barik) baino handiagoa bada, eta, etxebizitza eraikin berrien obrak ez badira.

i. Kuotaren hobaria % 50ean, Euskal Autonomia Erkidegoak egina bada obra berriko osasun zentroa eraikitzeko

j. %95eko hobaria arrazoi historikoengatik eta ikerketa helburua daukan irabazi asmorik gabeko elkarte batek eskatuta arkeologia-indusketa lanak egiten direnean.

2. **Energia berriztagarriak sustatzeko,** hobari hauek:

2.1. Kuotaren %50eko hobaria, eraikuntza berrikoa ez den etxebizitzan eguzki energia edo beste energia berriztagarri batzuen aprobetxamendu termiko edo elektrikoa ahalbidetzen duten sistemak ezartzen badira. Hobari hori aplikatzekotan, beroa sortzeko instalazioek administrazio eskudunaren homologazioa duten kolektoreak edo berokuntzako eta ur beroko sanitarioko sistemak (UBS) eduki behar dituzte.

2.2. Kuotaren %95eko hobaria, eraikuntza berrikoa ez den, etxebizitza eraikin bateko elementu inguratzaile guztietan (fatxada, teilatu eta atarian) egiten diren obretan, xedea bada A edo B motako energia etiketa bat lortzeko energia birgaikuntza eta irisgarritasuna. Fatxada guztietan egiten ez denean, baina energia birgaikuntza eta irisgarritasun birgaitze obra horiek direnean, kuotaren %50eko hobaria aplikatuko da.

2.3. Kuotaren %75eko hobaria, eraikuntza berrikoa ez den, etxebizitza eraikin bateko elementu inguratzaile guztietan (fatxada eta teilatuan) egiten diren obretan, xedea bada A edo B motako energia etiketa bat lortzeko energia birgaikuntza. Fatxada guztietan egiten ez denean, baina energia birgaikuntza obra horiek direnean, kuotaren %50eko hobaria aplikatuko da.

Hobariok eraikuntza berrikoak ez diren etxebizitza eraikinetan aplikatu ahalko dira, eta 3.2 eta 3.3 hobariak aplikatzeko, derrigorrezkoa izango da obra amaierako aurrekontuarekin batera A edo B motako energia etiketa lortu izanaren ziurtagiria aurkeztea. Ziurtagiria lortzen ez bada, udalak hobari gabeko behin betiko likidazioa igorriko du.

Udalak obrarako diru laguntza ematen badu, diruz lagundu den obraren aurrekontuko atala hobaritik kanpo geldituko da. Halaber, zergadunek obra aurrekontua kontzeptuka eta banakatuta aurkeztu beharko dute, eta beharrezkoa izango da Hirigintza, Mugikortasun eta Ingurumen Sailaren aldeko txostena.

3. Kuotaren %50eko hobaria, **babes ofizialeko etxeak**, etxabeak eta garajeak egiteko obretan. Etxe promozio berean eta proiektu berean BOEko etxeak eta etxe, lokal, garaje edo trasteleku libreak daudenean, %40ko hobaria aplikatuko da.

4. **Pertsona ezinduen irisgarritasuna xede duten obretan**:

4.1. Kuotaren %90eko hobaria, pertsona ezinduen irisgarritasuna xede duten etxe barruko egokitze obretan, hala nola, komuneko obrak, barne eskailerak gurpildun aulkientzat egokitzeko obrak eta abar, eraikuntza berriko etxeak ez badira, udalak dirulaguntzarik eman ez badu, etxebizitzan erroldatuta %33 edo gehiagoko desgaitasuna aitortuta daukan persona bat badago eta familia unitatearen diru-sarrerak 60.000 eurotik beherakoak badira.

4.2. Kuotaren %90eko hobaria, pertsona ezinduen irisgarritasuna xede duten atarietako egokitze obretan, hala nola, atariko eskailerak gurpildun aulkientzat egokitzea eta abar, eraikuntza berriko etxeak ez badira eta udalak dirulaguntzarik eman ez badu.

Artikulu honetako hobaria zergadunak eskatu beharko du epe barruan. Hobaria aplikatzeko, beharrezkoa izango da Errenta eta Exakzio Sailaren eta Hirigintza, Mugikortasun eta Ingurumen Sailaren aldeko txosten teknikoa.

39/2015 Legearen 28.artikuluan eta 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, Arrasateko Udalak, interesdunak horren aurka egiten ez badu, Eusko Jaurlaritzaren erregistroan eta Nisae elkarreragingarritasun nodoaren bidez, zuzenean informazio hau kontsultatuko du, hobaria eskuratzeko baldintzak betetzen dituzten egiaztatzeko:

- Foru Ogasunaren PFEZ kontsulta.
- Etxebizitzan erroldatuta dagoen pertsonaren elbarritasun edo dependentzia agiria, Gizartekintzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko zerbitzuak edo beste organo eskudun batek emandakoa.

2016ko apirilaren 27ko Datuak Babesteko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 21 artikuluarekin bat etorriz eskatzaileak bere datuak kontsultatzearen aurka egin ahal izango du, aurka egiteko arrazoiak adieraziz; eta kasu horretan, Udalak dagokion agiria aurkeztera behartu ahal izango du.

Udalak eskaera jasotako unean beharrezkoa den dokumentazioa ezin badu modu telematikoan lortu edo daturen bat falta bazaio eskaera ebazteko, eskatzaileak dokumentu horiek aurkeztu beharko ditu Udalak dokumentuak aurkezteko errekerimendua jakinarazi eta 10 egunetara.

III. SUBJEKTU PASIBOAK

6. artikulua

1. Zerga honen subjektu pasibo dira, zergadun gisa, Zergari buruzko Foru Arau Orokorraren 35.3 artikuluan jasotzen diren pertsona fisikoak, juridikoak eta entitateak, baldin eta eraikinaren, instalazioaren edo obraren jabe badira, obra egiten den ondasun higiezinaren jabe izan edo ez izan.

Aurreko paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, eraikinaren, instalazioaren edo obraren jabetzat hartuko da lanek sortarazten dituzten gastuak edo kostua ordaintzen dituena.

2. Eraikina, instalazioa edo obra subjektu pasibo zergadunak egiten ez badu, zergadunaren ordezko subjektu pasibotzat joko dira lizentziak eskatzen dituztenak, erantzukizunpeko deklarazioak edo aurretiazko jakinarazpenak aurkeztu dituztenak, edo eraikinak, instalazioak edo obrak egin dituztenak.

Ordezkoak zergadunari eskatu ahal izango dio ordaindutako zerga kuotaren zenbatekoa.

7. Artikulua

1. Zergadunaren ordezko subjektu pasibotzat joko dira behar diren lizentziak eskatu dituztenak, edo bestela eraikinak, instalazioak edo obrak egin dituztenak, baldin eta zergaduna bera izan ez bada.

2. Nolanahi ere, udal administrazioak pertsona edo entitate zergadunaren nortasuna eta helbidea eskatu ahal izango dizkio zergadunaren ordezkoari.

IV. ZERGA-OINARRIA

8. Artikulua

1. Eraikinaren, instalazioaren edo obraren kostu erreal eta efektiboak osatuko du zergaren zerga-oinarria.

2. Udal lizentziarik gabeko eraikin, instalazio eta obren kasuetan, udal administrazioak ezarritakoa izango da zerga-oinarria.

V. TRIBUTU-KUOTA

9. artikulua

Zerga honen kuota ateratzeko, zerga-oinarriari Eranskinean adierazten den karga-tasa aplikatuko zaio.

VI. SORTZAPENA

10. artikulua

Eraikina, instalazioa edo obra hastean bertan sortuko da zerga, dagokion lizentzia eman gabe badago ere.

VII. KUDEAKETA

11. artikulua - Behin-behineko likidazioa - Autolikidazioa

1.- Leihatilan eman ohi diren obra txikien lizentziak eskatzen direnean, Udalak zerga hori autolikidazio erregimenean eskatuko du lizentzia ematen duen unean, eta interesdunak aurkeztutako aurrekontua hartuko du oinarri gisa.

Obra handien eta gainerako obra txikien lizentziak eskatzen direnean, Udalak behin-behineko likidazioa egingo du lizentzia ematen duen unean bertan.

2.- Behin lizentzia emanda hasieran aurkeztutako proiektua aldatzen bada, aurrekontu berria eskatuko da behin-behineko likidazio berria egiteko, eta aurrekontuen arteko aldea hartuko da oinarri gisa.

3.- Obra amaitu ondoren, behin-behineko onarpenaren osteko hilaren barruan, honako hauek aurkeztuko dira:

-Eraikuntza arautzen duen azaroaren 5eko 39/1999 legearen arabera edo proiektua bere borondatez proiektua aurkeztu duenak: obraren zuzendariaren ziurtagiria (obra bukaerako ziurtagiria) dagokion lanbide elkargoak ikus-onetsia. Obren kostu osoa ere agertuko da (obra bukaerako likidazioa).

-Obra txiki eta bestelakoetan: obraren kostuaren nondik norakoa azaltzeko beharrezkoa den dokumentazioa (fakturak).

Aurkeztutako behin-behineko aurrekontuaren artean eta obraren azken ziurtagiriak jasotzen duen kostuaren artean alderik egonez gero, eta kontrako txosten teknikorik ez badago, behin-behineko likidazio osagarri bat egingo da, alde hori oinarri gisa hartuta.

12. artikulua – Behin betiko likidazioa

1.- Egindako eraikinak, instalazioak edo obrak ikusirik eta haien kostu erreala azterturik, udal administrazioak, egiaztapena egin ostean eta hala badagokio, aldatu egingo du zerga-

oinarria, eta behin betiko likidazioa egingo du; hala, subjektu pasiboari dagokion zenbatekoa eskatuko edo itzuliko dio.

Ondorio horietarako, eta baita 11. artikuluan xedatzen diren behin-behineko likidazioetarako ere, bisatu gabeko aurrekontuen kasuetan, Aldundiak hiri ondasun higiezinak baloratzeko –hau da, katastroaren baloraziorako– erabiltzen dituen balioak gutxieneko kostutzat hartuko dira.

13. artikulua - Isiltasun administratiboa

Zerga likidatzearen ondorioetarako, isiltasun administratibo positiboa aplikatuz emandako lizentziek berariaz emandakoen eragin bera izango dute.

14. artikulua - Atzera egitea

Lizentziaren titularrak, baimendutako obra, eraikin edo instalazioari uko egin ahal izango dio, eskaera idatzia aurkeztuta. Eskaera idatzi horretan, zinpeko aitorpena sinatuko da eta itzulketa egiteko banku korronte zenbakia adieraziko da. Halaber, idatziari, zergaren ordainketaren ziurtagiria atxikitu beharko zaio.

15. Artikulua - Lizentziaren iraungipena

Lizentzia iraungi ondoren, Udalak egindako likidazioa itzuliko du, edo bertan behera utziko, salbu eta titularrak berritzea eskatu eta Udalak baimena ematen duenean.

16. artikulua - Tributu arloko arau-hausteak

Zerga honen likidazio, bilketa eta ikuskapenari dagokionez, bai eta tributu arloko arau-hausteen kalifikazioari eta, hala badagokio, zehapenen ezarpenari dagokionez ere, Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean xedatutakoa aplikatuko da.

VIII. AZKEN XEDAPENA.

Udalbatzak 1989ko irailaren 29ko bilkuran onartu zuen behin betiko ordenantza fiskal hau bere Eranskinarekin batera. 1990ko urtarrilaren 1ean sartu zen indarrean eta indarrean jarraitzen du aldaketen historialean agertzen diren aldaketekin. Indarrean segituko du indargabetzea erabaki arte.

IX. ALDAKETEN HISTORIALA

Udalbatzaren onarpen data	GAOn argitaratze data eta zenbakia.	Indarrean sartzen den data	Aldaketak
1989 IRA 29	89ABE30 - 247	90 URT 1	1. onespena
2000			Aldaketarik ez
2001 URR 25	01ABE31 – 249	02-URT 1	Eurotara egokitzea
2002 URR 18	02ABE31 – 247	03-URT 1	Hobarien 6 eta 7. puntuak eta11 eta 12. artikuluak
2003 URR 20	03ABE26 – 246	04- URT 1	Hobariak 6, 11, 12. art.
2004 URR 25	04ABE20 - 242	05- URT 1	Hobariak eta 12. art.

2005 URR 25	05ABE15 - 236	06- URT 1	Hobariak (baserriak)
2006 URR 23	06 ABE 20 - 240	07-URT-1	HOBARIAK-MINIMOA
2007 ABE 13	07 ABE 27 – 251	08 URT 1	Hobariak
2008 ABE 11	08 ABE 31 - 251	09 URT 1	OSORIK ARGITARATUA
2009 AZA 05	09 ABE 30 – 246	10 URT 1	Hobaria eskatzeko epea
2010 URR 7	10 ABE 1 - 230	11 URT 1	Hobaria – Birgaitze obra %50
2011 ABE 20	11 ABE 27-244	12 URT 1	KARGA-TASA
2012 URRIA 30	12 ABE 24 – 244	13 URT 1	Tf min kendu, 11 eta 12 art., hobaria berria
2014 ABE 18	2014 ABE 26– 246	15 URT 01	3. 6-2 eta 5-2 artikuluak
2015 ABE 15	2015 ABE 23 - 245	16 URT 01	Hobarien eskaerarako epea mugatu
2016 URR 25	2016 ABE 22 - 241	17 URT 01	3 hobari berri
2017 URR 3	2018 ABE 15 - 238	18 URT 01	Hobariak
2018 URR 04	2018 ABE 18 - 242	19 URT 01	1, 9, 12 hobariak aldatu eta 6. Hobaria indargabetu
2019 URR 01	2019 ABE 19-242	20 URT 01	Hobariak
2020 UZT 28	2021 AZAR 5-190	21 URT 01	Hobariak
2021 UZT 13	2021 IRAI 14-176	22 URT 01	Hobariak
2022 URR 4	2022 ABE 5 - 230	23 URT 01	Atzera egitea
2023 ABE 05	2023 ABE 20 - 243	24 URT 01	Hobariak
2024 ABE 03	2024 ABE 18 - 243	25 URT 01	Hobariak

ERANSKINA

ERAIKIN, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA

ONESPEN DATA: 2023ko abenduaren 3a

Tarifa	Karga-tasa
TASA OROKORRA	%5

ALKATEA **IDAZKARIA**

II ZERBITZUAK EMAN ETA JARDUERAK EGITEAGATIKO TASAK

ZERBITZU PUBLIKOAK EMAN ETA JARDUERA ADMINISTRATIBOAK EGITEAGATIKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua

Toki erakunde honek, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauari jarraiki, Eranskinean jasotzen diren tasak ezarri eta exijitzen ditu zerbitzu publikoak emateagatik eta jarduerak egiteagatik. Ordenantza honetan adierazten diren arauen arabera ezarri eta exijitzen dira tasa horiek, eta haren barruan geratzen dira jasota.

2. artikulua

Ordenantza udalerri osoan aplikatuko da.

II. EGITATE ZERGAGARRIA

3. artikulua

Toki administrazioak zerbitzu bat emateak edo jarduera bat egiteak osatzen du egitate zergagarria, dela eskatua izan delako, dela partikularren egintzaren edo egin ezaren ondorioz zeharka eragin delako.

III. SUBJEKTU PASIBOA

4. artikulua

1. Zerga honen subjektu pasibo dira, zergadun gisa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergari buruzko Foru Arau Orokorraren 35. artikuluan jasotzen diren pertsona fisikoak, juridikoak eta entitateak, baldin eta zerbitzuak edo jarduerak eskatzen badituzte edo haien onurarik edo eraginik jasotzen badute.

2. Zergadunaren ordezkotzat hartuko dira:

a) Etxebizitza edo lokalen okupatzaileei onura edo eragina dakarkieten zerbitzu eta jarduerengatik ezarritako tasetan: higiezin horien jabeak. Horiek, hala badagokio, onuradun desberdinei ordainarazi ahal izango dizkiete kuotak.

b) Suhiltzaile zerbitzuagatik, aurrien prebentzioagatik, eraikuntza eta eraispen zerbitzuengatik, salbamenduagatik eta, oro har, pertsonak eta ondasunak babesteko zerbitzuengatik ezarritako tasetan –zerbitzua mantentzea barne– arriskuaren entitate edo sozietate aseguratzaileak.

c) Lurzoruari eta hiri antolamenduari buruzko araudian jasotako hirigintza lizentziak emateagatik ezarritako tasetan, obren eraikitzaileak eta kontratistak.

5. artikulua

Tasa ordaintzera behartuta daude:

a) Partikularren eskariz egindako zerbitzu eta jardueretan, eskatzen dutenak.

b) Partikularrek eskatu ez baina haien egitez edo ez-egitez burutu diren zerbitzu edo jardueretan, egite edo ez-egite horiek egotz dakizkiekeenak.

6. artikulua

Ordenantza honetatik eratortzen diren tributu zorretan, tarifak aplikatzeko arauetan aipatzen diren pertsonek ere erantzungo dute.

IV. SALBUESPENAK, MURRIZTAPENAK ETA HOBARIAK

7. artikulua

Salbuespenak nahiz bestelako onura fiskalak, aplikagarri diren xedapen orokorretan ezarritakoaren arabera emango dira.

V. ZERGA-OINARRIA

8. artikulua

Zerbitzua gauzatzen den unitate bakoitzak eratzen du zerga oinarria, Eranskinean jasotakoaren arabera.

VI. KUOTA

9. artikulua

Eranskinean ezarritakoaren arabera, hauxe da tributu-kuota: edo tarifa bat aplikatzetik ateratzen den kopurua, edo horretarako jarritako kopuru finko bat, edo prozedura biak batera aplikatzetik atzeratzen den kopurua.

VII. SORTZAPENA ETA ZERGALDIA

10. artikulua

1.-Zerbitzua ematen edo jarduera egiten hasten denean sortuko dira tasak. Lizentzia ematen den unean eskatuko ditu Udalak, likidazio sistemaren bidez, tasa bakoitzaren arau espezifikoetan kontrako xedapenik ez badago; arauok Ordenantzaren ERANSKINean daude jasota.

VIII. LIKIDAZIOA ETA ORDAINKETA

11. artikulua

Tasaren likidazioaren jakinarazpenarekin batera ordainagiri bat bidaliko du Udalak, kuota ordain dadin, izan banketxe batean edo izan bezeroentzako arreta zerbitzuaren bulegoan (BAZ).

IX. TASEN KUDEAKETA

12. artikulua

Ordenantza honek arautzen dituen tasen likidazio, bilketa eta ikuskapenari dagokionez, bai eta tributu arloko arau-hausteen kalifikazioari eta, hala badagokio, zehapenen ezarpenari dagokionez ere, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean xedatutakoa aplikatuko da.

X. AZKEN XEDAPENA

Udalbatzak 1989ko irailaren 29ko bilkuran onartu zuen behin betiko ordenantza fiskal hau bere Eranskinarekin batera. 1990ko urtarrilaren 1ean sartu zen indarrean eta indarrean jarraitzen du aldaketen historialean agertzen diren aldaketekin. Indarrean segituko du indargabetzea erabaki arte.

XI. ALDAKETEN HISTORIALA

Udalbatzaren onespen data	GAOn argitaratze zenbakia	Indarrean sartzen den data	Aldaketak
89 IRA 29	89ABE30 - 247	90 URT 1	1. onespena
00 URR 26	00ABE29 – 247	01-URT 1	10. artikulua
01. URR 25	01ABE31 – 249	02-URT 1	Tarifak eta eurotara egokitzea
02 URR 18	02ABE31 – 247	03-URT 1	Tarifak eta abar
03 URR 20	03ABE26 – 246	04- URT 1	Tarifak, hobariak, eta zerbitzu berriak
04 URR 25	04ABE20 - 242	05- URT 1	Tarifak, hobariak eta zerbitzu berriak
05 URR 25	05ABE15 - 236	06-URT 1	Tarifak
06 URR 23	06 ABE 20-240	07-URT-1	Tarifak
07 ABE 13	07 ABE 27- 251	08 URT 1	Karga-tasak, hobariak
08 ABE 11	08 ABE 31- 251	09 URT 1	OSORIK ARGITARATUA
09 AZA 05	09 ABE 30 -246	10 URT 1	Ura, kiroldegia, etab.
10 URR 7	10 ABE 01 - 230	11 URT 1	Karga-tasa
11 ABE 20	11 ABE 27-244	12 URT 1	KARGA-TASA
12 URRIA 30	12 ABE 24 - 244	13 URT 1	TASAK
13 ABE 17	13 ABE 30 – 247	14 URT 1	TASAK
2014			TASAK
2015		15 URT 01	ITURBIDE-ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA-TUTORETZA
2016 URR 25	2016 ABE 22 - 241	17 URT 01	TASAK
2017 URR 03	2017 ABE 15 - 238	18 URR 01	TASAK
2018 URT 02	2018 ABE 18 – 242	19 URR 01	Tarifak eta hobariak
2019 URRI 01	2019 ABE 19-242	20 URT 01	Tasak
2020 UZT 28	2021 AZAR 5-190	21 URT 01	Hobariak
2020 AZAR	2021 OTS 1 - 19	21 URT 01	Hobariak

5			
2021 APIR 15	2021 EKAI 21-115	21 URT 01	Hobariak eta kiroldegiko ikastaroen taula
2021 UZT 13	2021 IRAI 14-176	22 URT 01	Hobariak
2022 EKAIN 14	2022 EKAIN 23 - 119	22 EKAIN 24	TASAK
2022 UZT 19	2022 IRAI 14 - 174	22 IRAI 15	Hautaketa Prozesuetan Parte Hartzeko Tasa
2022 URR 4	2022 ABE 5 - 230	23 URT 01	TASAK
2023 ABE 05	2023 ABE 20 - 243	24 URT 01	Tasak, tarifak eta hobariak
2024 ABE 03	2024 ABE 18- 243	25 URT 01	Tasak, tarifak eta hobariak
2025 EKAIN 03	2025 EKAIN 16-112	25 IRAI 01	Ikastaro tasak

ALKATEA **IDAZKARIA**

E R A S K I N A

ZERBITZU PUBLIKOAK EMAN ETA JARDUERAK EGITEAGATIKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA

I – ONESPEN DATA: 2024KO ABENDUAREN 3AN

II - TASAK

A EPIGRAFEA - hirigintza lizentziak ematea

Obra lizentzia:

.Kostua: 10.000 €-tik behera	68,26 €
.Kostua: 10.000 - 40.000 €	134,10 €
.Kostua: 40.000 - 120.000 €	465,19 €
.Kostua: 120.000 - 250.000 €	907,19 €
.Kostua: 250.000 - 500.000 €	1.511,83 €
.Kostua: 500.000 €-tik gora	2.979,35 €

Lurzatiak banandu eta bateratzeko lizentzia:

.Hiri-lurzoruetan eta urbanizagarrietan, baimen bakoitzeko…..	302,43 €
.Landa-lurzoruetan, baimen bakoitzeko	90,67 €

Lehen erabilerako lizentzia:

.Etxebizitza edo merkataritza lokala	
Lehen 20 lokalak (bakoitza)	60,49 €
Hurrengoak (bakoitza)	37,84 €
.Lokala edo garajea edo trastelekua	22,65 €
.Familia bakarreko eraikinak	241,84 €
.Familia biko eraikinak	260,14 €
.Industria< 500 m2	415,86 €
.Industria> 500 m2	823,96 €

HOBARIA

1. Herriko eraikinetako fatxadak birgaitzea sustatze aldera, <u>fatxadak txukuntzeko lanek %95eko hobaria</u> izango dute lizentzia izapidetzeko tasan; eta halakotzat hartuko dira fatxada pintatzea eta birgaitzea xede dutenak eta baita beste batzuk ere, hala nola ugerra kentzea, hormako altxatuak konpontzea eta abar, baldin eta lanak eraikinaren fatxada guztiak hartzen baditu.

2. Interes historikoagatik %95eko hobaria izango dute lizentzia izapidetzeko tasan irabazi asmorik gabeko elkarte batek eskatuta <u>arkeologia-indusketa lanak egiten direnean.</u>

B EPIGRAFEA - Establezimenduak irekitzeko lizentziak ematea, edo kontroleko administrazio jarduerak egitea, nahitaez izan beharreko lizentziaren ordez erantzukizunpeko adierazpena edo aldez aurreko jakinarazpena aurkezten den kasuetan

a) Lizentzia emateagatik, irekitzeko, kontroleko jarduera administratiboak egiteko, edo lizentzia ematea jarduera hasteko edo aurretiazko jakinarazpen bidez abiatzen diren jarduerentzako.

Spining Pump	2	32,74
Body Pump	2	32,74
Aquagym	2	32,74
Matrogym	2	32,74
Igeriketa haurtxoak	2	32,74
Igeriketa helduak	2	26,32
Gimnasia Egokitua	2	24,68
Igeriketa egokitua	1	24,68
Aero pilates	1	24,17
Yoga	1	24,17
Boxing Strong	1	24,17
Krosfit	1	24,17
Jumping	1	24,17
Entrenamendua suspentsioan	1	24,17
Aero pilates lasaia	1	24,17
Hipopresiboak	1	24,17
Igeriketa haurrak	1	24,17
Body Balance	1	19,69
Spining	1	19,69
Body Pump	1	19,69
Konbi Tono	1	19,69
Igeriketa haurtxoak	1	19,69
Haurraktibiti	1	16,42
Zumba gazteak	1	16,42
Spining gazteak	1	16,42
Aero pilates gazteak	1	16,42
Gimnasia +60	2	14,69
HIIT-TRX	2	32,74
HIIT	2	32,74
HIIT 30	1	24,17
Total training	1	24,17
Krosfit para jóvenes	1	16,42

- Haurren igeriketa ikastaroetan izena ematerakoan, kupoa gainditzen denetan, lehentasuna izango dute Arrasaten erroldatutako haurrek.

- Ez abonatuek gehigarri bat izango dute ikastaroetan: 6€ egun bateko ekintzetan eta 10€ bi egunekotan.

- Bigarren ekintzatik aurrera %50eko deskontua aplikatuko da preziorik baxuena duen ekintzan, ekintzetako bat 2 egunekoa baldin bada. Igeriketa ikastaroak ez dira kontuan hartzen deskontu honetarako.

6.- KIROL HELBURUETARAKO - ERRESERBA

	Abonudunak		Ez abonudunak / Entitateak: (eguneko sarreraz gain)
MUSAKOLA	**Argi barik**	**Argiaz**	
Musakolako kantxa	5,6	7,8	42,10
Antoñako kantxa	5,6	7,8	28,15
Pilotalekuak	1,1	2,3	5,65
Tenis pista	1,1	2,3	5,65
Padel pista	2,3	3,3	5,65
Argia			3,85
Squash (45 min)	1,1	2,3	6,35
Futbol/errugbi zelai erdia	8,9	20	39,65
Futbol/errugbi zelai osoa	16,1	26,8	39,65
*Atletismo pista	39,7		
*Gimnasio (salas)	31,9		
* Igerilekua (denboraldiz kanpo, aurrez baimena)			
Handia	184,4		
Txikia	98,3		
Kale bat	30,7		
ITURRIPE			
Kantxa	5,6	7,8	42,10
Pilotaleku handia	1,1	2,3	5,45
Pilotaleku txikia	1,1	2,3	4,25
Argia			2,45
Kanpoko kantxa	3,3	5,6	11,10
Tenis pista	1	2,2	4,10
UARKAPE			
Pilotalekua	3,2	5,4	16,05
Argia, 1 fasea			5,25
Errebotilloa	1,00	2,2	6,51
*Boulderra	30,7		
*Soilik entitateek erreserbatu dezakete			

OHARRAK:

NORBANAKOEN ERRESERBAK

- Erreserba tasa ordainduko dute abonatu ez direnek kasu guztietan; abonatuek ordainduko dute, aldiz, hiruhileko erreserba egiten dutenek eta aste bete baino aurrerapen gehiagorekin erreserba egiten dutenek. Aste baten barruan abonatuek doako erreserba egin ahalko dute.
- Hiruhileko erreserba egiteko beharrezkoa da taldeko kide guztiak abonatuak izatea "kiroldegia abonua" edo "abonu plusa" modalitatean. Salbuespen moduan, erreserba duten abonatuekin ez abonatuak jokatu ahal izateko kiroldegiko sarrera ordaindu beharko dute.
- Eguneko erreserben alokairua sarreran kobratuko da. Hiruhileko erreserba, aldiz, helbideratze bidez kobratuko da: hiruhileko osoa aurrez kobratuko da eta hiruhilekoan erabiltzen ez diren egunengatik ez da dirurik itzuliko. Kirol klubei ez zaie kobratuko entrenamendu eta partidu ofizialetarako erreserba.
- Ez abonatuek instalazio baten erreserba puntuala egin ahal izango dute erreserbaren aurreko egunean.
- Uarkapeko errebotiloa alokatzeko, gutxieneko denbora izango da ordu eta erdikoa. Gainontzeko kasuetan ordubetekoa.

KOLEKTIBOEN ALOKAIRUAK

- Udalaren Kirol Politikaren barruan Arrasateko ikastetxeek klase orduetan erabilitako lehorreko instalazioen tasarekiko % 100eko hobaria aplikatuko da alokairu prezioan eta bere ohiko jarduerari lotuta erreserba egiten dutenean, ez dute ordainduko eguneko sarrerarik.
- Talde bereziko prezioa aplikatuko zaie talde eratuei (eguneko zentroa, tutoretzapeko pisuak, Aita Menni eta abar) eta, ohiko erabilera egiten dutenek ez dute ordainduko eguneko sarrerarik.

Arrasateko kirol taldeei, bere ohiko jardueratik kanpoko kirol ekintzak antolatzen dituztenean, erabilitako lehorreko instalazioen tasarekiko % 100eko hobaria aplikatuko zaie zuzenean.

J EPIGRAFEA –ATARTEA eguneko udal arreta zerbitzua

1.Artikulua

Tasa honek erregulatzen dituen zerbitzuengatik erabiltzaileak hilero ordaindu beharko du diru kopuru bat, kalkulatua kontuan hartuta haren ahalmen ekonomikoa. Ahalmen hori finkatzeko, kontuan hartuko da eskatzailearen errenta.

Ekarpenak ez du loturarik izango erabiltzailea joatearekin hileko edo hilabete horretan aktibo dagoen egunetako saio guztietara edo batzuetara.

Ekarpena urtean 11 hilabetez egingo da (abuztuan izan ezik). Zerbitzua abuztuan eskaintzen bada, dagokion ekarpena ere egingo da.

Diru kopurua ordaintzea ezarriko da elementu horien arabera eta 2.artikuluan ezarritako irizpideen arabera.

Erabiltzaileak pertsona helduak badira, dihardutenean legezko ordezkari baten bidez edo izatezko zaintzaile baten bidez sarbide araudian aurreikusitako baldintzetan, azken horiek behartuta egongo dira diru kopurua ordaintzera, baina, halako kasuetan, ordezkatuaren

errentaren kontura ordainduko da, eta ahalmen ekonomiko zenbatua izango da ordezkatuarena.

Ahalmen ekonomikoari buruz datuak faltsutu edo ezkutatuz gero, eskaera artxibatu egingo da, edo, zerbitzua emanda badago, zerbitzua iraungi egingo da, eta, gainera, gertaera horietatik erantzukizunak egon daitezke.

Zerbitzuen erabiltzaileak eta, hala badagokio, haien legezko ordezkariak, behartuta daude udalari jakinarazten, gertatu eta 30 egunean, edozein aldaketa gertatzen bada familia unitatearen errentan, ondarean edo pertsona kopuruan, eta erabiltzaileak ordaindu beharreko diru kopuruan eragina izan dezakeen beste edozein gorabehera gertatzen bada.

Erabiltzaileak ordaindu behar duen diru kopurua ofizioz berrikusi beharko dute udal teknikariek, erabiltzaileak edo haren ordezkariak eskatuta, aldaketaren bat gertatzen bada egoera eta baldintzetako edozeinetan, prezio publikoari eraginez.

2.Artikulua

A) Ahalmen ekonomikoaren kalkulua:

Ahalmen ekonomikoa kalkulatuko da elementu hauek balioetsiz:

- Errenta: Errentatzat hartzen dira zerbitzuaren onuradun direnen diru sarrera garbi guztiak. Diru sarrera horiek hauetatik datozenak izango lirateke:

    - Lan etekinak, pentsioak eta gizarte aurreikuspeneko prestazioak barne, horien erregimena edozein izanik ere, aldi baterako errentak edo biziartekoak eta Diru sarrerak Bermatzeko Errenta.
    - Kapital higigarriaren nahiz higiezinaren etekinak.
    - Enpresa edo lanbide jardueren etekinak.

  Errenta zenbatzean ez da diru sarrera bezala kontuan izango:
    - Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarria, Etxebizitzarako osagarria KGPen titularrentzat eta etxebizitzaren legearen ondorioz izan litezkeen laguntzak.
    - Prestazio ekonomikoak, Autonomia pertsonala sustatzeari eta menpekotasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko Legetik eratorritakoak.
    - Gizarte Segurantzako Institutuaren prestazio ekonomikoa, seme edo alaba adingabe bat ardurapean edukitzeagatik.
    - Haborokin ekonomikoak, okupazio zentro batera joateagatik jasotakoak.
    - Aurretiko ohiko etxebizitza batetik jasotako alokairua, utzi behar izan dena oztopo arkitektonikoengatik edo salbuespenezko zirkunstantziengatik (genero indarkeriaren biktima diren emakumeak …), etxebizitza berria bat alokatzeko edo erosteko kredituaren gastuei aurre egiteko beharrezko kopururaino (etxebizitza berriaren gastuaren zenbatekoa gainditzen ez duen zatian). Soberakinik egonez gero zenbateko baten eta bestearen artean, diru sarrera gisa zenbatuko litzateke.

Diru sarrera guztietatik kenduko dira:

- Konpentsazio pentsioak ordaintzea, banantzearen ondorioz eta/edo guraso eta seme-alaben arteko neurrien ondorioz, egonez gero, epai judizialaren arabera, dagokion justifikazioa aurkeztuta.
- Zerbitzuak aldi berean erabiltzeagatik jarritako diru kopuruak: erabiltzailea aldi berean beste gizarte zerbitzu asistentzial edo okupazional baten onuradun bada, urteko bat kenduko zaio diru sarreretatik, eguneko prezioaren arabera, dagokion beste laguntza zerbitzuaren administrazio eskudunaren ebazpenak ezarritako diru kopurua jartzeagatik.

B) Kalkulatzea zer diru kopuru ordaindu behar den

Zerbitzuaren erabiltzaileak diru kopuru bat jarriko du hilero zerbitzu horretan parte hartzeagatik, eta kopuru hori jasoko da zerbitzua eskuratzeko ebazpenean.
Onuraduna ezkonduta badago edo izatezko bikotea bada, irabazpidezko erregimenean edo ondasunak banantzeko erregimenean, kontuan hartuko da bikotearen errenta osoa, eta, gero, errenta hori zati bi egingo da.
Ahalmen ekonomikoa erabiltzailearen diru sarreren araberakoa izango da, urteko diru sarrera garbiak kontuan hartuta:

• Kapital higigarriaren urteko etekin garbia
• Kapital higiezinaren urteko etekin garbia
• Urteko diru sarrera arrunt garbiak

Programan diru kopurua jartzeko, lau tarte ezarriko dira, erabiltzailearen ahalmen ekonomiko
indibidualaren mailaren arabera:

Erabiltzailearen ahalmen ekonomiko indibiduala	Hileko aporazioa
LGSa baino gutxiago	5 €
1 eta 2 bidez arteko LGSa	10 €
2 eta 4 arteko LGSa	30 €
4 bidez LGStik gora	60 €

C) Beste zerbitzu batzuk batera erabiltzea

Erabiltzailea aldi berean Gizarte Zerbitzuen Zorroaren beste zerbitzu batzuen onuradun izanez gero, hark ordaindu beharreko prezio publikoa honela kalkulatuko da:

Zerbitzuari dagokion diru kopuru osoa kenduko da diru sarreretatik.

K EPIGRAFEA - Etxez etxeko zerbitzua

1. Artikulua- Esparrua

Arautegi hau etxez etxeko laguntza zerbitzuari aplikatuko zaio, izan zerbitzua zuzeneko kudeaketa erregimenekoa nahiz beste erakunde publiko batzuekiko hitzarmen bidezkoa edo beste erakunde pribatu batzuekiko itun, hitzarmen edo kontratu bidezkoa.

2. artikulua. Ordaintzera behartuta dauden pertsonak.

1. Tasa hau ordaintzera behartuta daude:

a) Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren zuzeneko onuradun diren pertsona fisikoak, non eta ez dauden 1. paragrafo honetako b) eta c) ataletan aipatzen diren egoeretan.

b) Zerbitzuaren erabiltzaileak adingabeak badira, haien gaineko guraso agintea, tutoretza edo zaintza duen/duten pertsona/pertsonak.

c) Pertsona helduak, zerbitzura sartzeko arautegian aurreikusitako moduan legezko ordezkari edo izatezko zaintzaile bidez dihardutenean; hala ere, kasu horretan, ordezkatutako pertsonaren errentaren eta ondarearen kontura egingo da ordainketa, eta ordezkatutako pertsonaren ahalmen ekonomikoa hartuko da kontuan.

d) Zerbitzuan sartzeko eskaria egin aurreko bost urteetan erabiltzaileak doan egindako ondare eskualdatze baten edo gehiagoren onuradun izan diren pertsonak, baldin eta zerbitzuaren titularrak ezin badio aurre egin legokiokeen prezio publikoaren ordainketari, Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legearen 57.6 artikuluan adierazitakoari jarraituz.

3.artikulua. Prezio publikoa.

Gehienezko prezio publiko hau aplikatuko zaie erabiltzaileei:

Lan eguneko ordua: 15 €.
Igande eta jai egunetako ordua: 20 €

4. artikulua. Ekarpen koadroa.

Zerbitzuaren erabiltzailearen ekarpena:
Erabiltzaileak zerbitzuaren kostuari egin beharreko ekarpena honako ekarpen koadro honen arabera zehaztuko da:

EAEAP sarrerak	***LAGS sarrerak***	***Ekarpena***
*EAEAP*ren ≤%120	LAGSren ≤%75	%1,5
>%120-%125	>%75-78	%4
>%125-%130	>%78-81	%8
>%130-%150	>%81-94	%15
>%150-%175	>%94-110	%24
>%175-%200	>%110-125	%35
>%200-%225	>%125-140	%48
>%225-%250	>%140-155	%61
>%250-%275	>%155-170	%74
>%275-%300	>%170-190	%87
*EAEAP*ren >%300	LAGSren>%190	%100

Familia unitateko kideen arabera, gehienezko honako ondare muga hauek ezartzen dira. Muga horiek gainditzen ez badira, aurreko taula aplikatuko zaie; muga horiek gainditu gero, berriz, prezio publikoaren %100 ordainduko dute.

KIDE KOPURUA	**GEHIENEZKO ONDAREA**

1	50.000 €
2	70.000 €
3 edo gehiago	85.000 €

6. artikulua. Libreki erabiltzeko zenbatekoa.

Libreki erabiltzeko zenbatekoa izango da LAGSren %100ari dagokion zenbatekoa. Baldin eta familia edo bizikidetza unitateko kideen kopurua bat baino handiagoa bada, LAGSren %40 gehituko zaio zenbateko horri bigarren kideagatik eta LAGSren %30 gainerako kideetako bakoitzagatik.

7. artikulua. Kobrantza.

Zerbitzua hilero kobratuko da, emandako zerbitzuaren arabera.

L EPIGRAFEA – TUTORETZAPEKO ETXEBIZITZA ZERBITZUA

1. artikulua. Egitate zergagarria.

Arrasateko Udalak ematen duen tutoretzapeko etxebizitza zerbitzua erabiltzea da egitate zergagarria.

2. artikulua. Kontzeptua.

Arrasateko Tutoretzapeko Etxebizitzen Funtzionamendu Erregelamenduan zehazten direnak joko dira tutoretzapeko etxebizitza plaza hartzen duten pertsonei emandako zerbitzutzat. Erregelamendu hori 2000ko martxoaren 30ean egindako bilkuran onartu zuen Udalbatzak (GAO, 104. zk., 2000ko ekainaren 2koa).

3. artikulua. Zerbitzua emateagatiko tasa:

Arrasateko Udalaren Tutoretzapeko Etxebizitza plaza bakoitza erabiltzeagatiko tasa, **2025. urterako, hilean 670,30 € da.**

4. artikulua. Erabiltzaileen ekarpena.

Ordenantza honen 6. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera kalkulua egin eta erabiltzailearen familia-unitateak nahikoa baliabide ekonomiko ez badauka, eta, ondorioz, kuota osoa ordaintzerik ez badu, zorraren aitorpen-agiri bat egin behako du, non pertsona horrek Arrasateko Udalarekin dituen obligazio ekonomiko guztiak jasoko diren. Erabiltzaileak, agiri horretan, sinatzeko unean zein ondare duen jakinarazi beharko du, eta bai uneko ondarea bai etorkizuneko gehikuntzak aitortutako zor hori ordaintzeko konprometituko ditu. Familia unitatea zera da: ezkontideak eta haien ardurapeko adin txikikoak edo elbarriak eta epai bidez ezindutzat jo eta guraso-ahal luzatu edo berrezarriaren menpe jarritako adin nagusikoak. Erabiltzaileak bere ondarean izan litezkeen aldaketa guztien berri eman beharko dio Arrasateko Udalari. Erabiltzaileak baja hartu ondoren, Arrasateko Udalak kobratu egingo du zor zaion kopurua; horretarako, zorraren kopurua haren finantza-kontuetatik –halakorik balego– hartuko luke.

5. artikulua. Erabiltzailearen eta haren familia-unitatearen baliabide ekonomikoak zehaztu eta kalkulatzea.

5.1. Erabiltzailearen baliabide ekonomikoak. Erabiltzaileak ordaindu beharreko kuota honako arau hauek aplikatuz aterako da:

5.1.1 Erabiltzaileak bere hileroko pentsioaz gainera ez baldin badauka bestelako dirusarrera edo ondasunik, kuota hileroko pentsioaren %75 izango da, eta gainerako %25a erabilera libreko dirua izango da. Edozelan ere, erabilera libreko diru hori ez da inoiz 200 € baino gutxiago izango. Ordainsari berezien zati proportzionala hileko pentsioan sartuko da.

5.1.2. Erabiltzaileak finantza ondasunik edukiz gero eskudirutan, finantza kontuetan, aurrezki kontuetan eta abarretan (finantza merkatuan dagoen edozein formulatan), 5. artikuluko lehen atalean zehaztutako ekarpena osorik ordaindu beharko du, bere pentsioaren/pentsioen zenbatekoa gorabehera, harik eta finantza ondasunon zenbatekoa 103 / 66 eta erabilera libreko urteko diru kopurua, zeina 2020. urterako 3.000 € baita, parean jarri arte.

5.1.3. Ondasun higiezinen kasuan, honela egingo da:

a. Erabiltzailearen jabetzako ohiko etxebizitza. Hiru egoera bereiziko dira:

a.1 Familia-unitatea osatzen duen kideren batek etxebizitzan jarraitzen du: etekinik gabekotzat joko da.

a.2 Erabiltzailearen familia unitatearen barruan ez dagoen baina familiakoa den kide batek etxebizitzan jarraitzen du: balio katastralaren %2aren pareko etekina hartuko da kontuan, eta, hala badagokio, horri kenduko zaio etxebizitza erosteko hipoteka maileguaren interesen eta amortizazioaren kontzeptuagatik ordaindu beharreko urteko zenbatekoa.

a.3 Etxebizitza hutsik, edo erabiltzailearen familiakoa ez den pertsona batek erabilia: balio katastralaren %10en pareko etekina hartuko da kontuan, eta, hala badagokio, horri kenduko zaio etxebizitza erosteko hipoteka maileguaren interesen eta amortizazioaren kontzeptuagatik ordaindu beharreko urteko zenbatekoa.

a.4 Errenta. Errentaren zenbatekoa, eta, hala badagokio, horri kenduko zaio etxebizitza erosteko hipoteka maileguaren interesen eta amortizazioaren kontzeptuagatik ordaindu beharreko urteko zenbatekoa.

b. Beste etxebizitza batzuk (edo beste ondasun higiezin batzuk). 2 egoera bereizten dira:

b.1 Etxebizitza hutsik, edo erabiltzailearen familiakoa ez den pertsona batek erabilia: balio katastralaren %10en pareko etekina hartuko da kontuan, eta, hala badagokio, horri kenduko zaio etxebizitza erosteko hipoteka maileguaren interesen eta amortizazioaren kontzeptuagatik ordaindu beharreko urteko zenbatekoa.

b.2 Errenta. Errentaren zenbatekoa; edozelan ere balio katastralaren %10en parekoa izango den gutxieneko bat baloratuko da, eta, hala badagokio, horri kenduko zaio etxebizitza erosteko hipoteka maileguaren interesen eta amortizazioaren kontzeptuagatik ordaindu beharreko urteko zenbatekoa.

5.1.4. Erabiltzailearen baliabide ekonomikoak zehazteko prozedura: Artikulu honetako 1.1 atalean xedatutakoa aplikatu eta pentsio erabilgarriak zehaztutako ekarpenari erantzuteko nahikoa badira, erabiltzaileak ordaindu beharreko kuota bat etorriko da ekarpen horrekin. Pentsio erabilgarrien zenbatekoa nahikoa ez bada ekarpen osoa ordaintzeko, alde hori ordaintzeko, artikulu honetako 1.2 atalean jasotako araua aplikatuko da. Pentsio erabilgarrien zenbatekoa eta finantza aktibo erabilgarriak ez badira nahikoa ekarpen osoa ordaintzeko, alde hori ordaintzeko, artikulu honetako 1.3 atalean jasotako araua aplikatuko da.

5.2. Familia unitatearen baliabide ekonomikoak. Aurreko eragiketak egin eta gero erabiltzailearen baliabide ekonomikoak ez badira nahikoa ekarpen osoari aurre egiteko, Udalak familiaren gainerako kideengana joko du, erantzule subsidiario gisa, elkarri janariak emateko obligazio zibila betearazteko, Kode Zibilaren 143tik 146ra bitarteko artikuluetan xedatutakoari jarraituz, Gizarte Zerbitzuei buruzko 5/1996 Legearen 33. artikuluko baldintzak betetzen badira (Euskal Autonomia Erkidegoa).

6. artikulua. Kuota ordaintzera behartuak.

Erabiltzaileak behartuta daude aurreko artikuluak aplikatuz lortzen diren zenbatekoak ordaintzera, egindako egonaldiengatik edo, hala dagokionean, plazen erreserbagatik; gainera, subsidiarioki, Kode Zibilaren 143 eta 144. artikuluek aipatzen dituzten pertsonak ere ordaintzera behartuta daude, baldin eta gizarte zerbitzuei buruzko urriaren 18ko 5/1996 Legearen 33. artikuluko baldintzak betetzen badira.

7. artikulua. Sortzapena.

Ateratzen den kuotaren zenbatekoa, orokorrean, hilabete natural bakoitzaren lehen egunetik eskatu ahal izango zaie beharturik dauden pertsonei, edo, hala badagokio, egoitzan sartzen diren egunetik, Arrasateko Udalak administratu eta kobratzeko zehazten dituen arauen arabera; horrek ez du esan nahi, ordea, Udalak aurrerakin bat edo aurretik diru kopuru bat jartzeko eskatuko ez duenik.

8. artikulua.

Kudeaketa, likidazioa eta kobraketa Arrasateko Udalari egokituko zaio aplikagarri diren hobariak zehaztu eta kalkulatzea, baita horiek aplikatzeagatik jartzen diren erreklamazioak ebaztea ere. Erregelamendu honetan araututako tasen likidazioa eta kobraketa hilabete natural bakoitzaren amaieran egingo da. Ordaintzeko modua Iturbide Egoitzak zehazten duena izango da.

9. artikulua. Premiamendu-prozedura.

Ordenantza honetan jasotako tasengatiko zorrak premiamenduzko administrazioprozedura bidez eskatuko dira tasaren sortzapen-egunetik bi hilabete igaro ondoren. Epealdi hori amaitzen denean, Udalaren zerga-bilketak tasa hori premiamendu bidez kobratzeari ekingo dio, eta, horretarako, zordunen zerrenda eta aurreko paragrafoan xedatutako zirkunstantziak egiaztatzen dituzten agiriak erantsiko dira.

M EPIGRAFEA - Azoka

Saltoki finkoa erabiltzea, hileko ..... 10,3 €
Saltoki bereziak erabiltzea hileko ..... 10,3 €
(Baserritarren saltokia erabiltzea hileko gehieneko kopurua
…….Indargabetuta.)

Saltoki bereziak erabiltzea azoka txikian, Jose M. Arizmendiarrieta plazan, egubakoitzetan, metro linealeko eta eguneko..... 3,05 €

Baserritarrek eta artisauek, % 100eko hobaria izango dute saltoki bereziak erabiltzean azokan eta azoka txikian.

Saltoki bat erabiltzeko baimena eskuratzeko beharrezkoa izango da udalarekin zorrik ez izatea.

Periodizitatea: hilekoa.
Hainbanaketa: ezin da hainbanatu.

N EPIGRAFEA - Kontagailuak mantendu eta kontserbatzea

Kontagailuak mantendu eta kontserbatzea; € / hiru hileko, diametroaren arabera:

mm	7/13/15	20/25	30/40	50/65	80	100
€	2,08	3,23	7,04	21,11	29,35	36,62

Tasa hau ur-tasarekin batera kobratuko da.

Ñ EPIGRAFEA - Udal euskaltegi zerbitzua

IKASTAROA	**2025-2026**
Ikasle arrunta eskola-orduko	1,30
Ikasle arrunta eskola - orduko aurre matrikula ekaina eta uztailean	1,15
Enpresako taldeak	1,55
Moodle bidezkoa ikasturtea	420,24
Moodle bidezkoa ikasturtea aurre matrikula ekaina eta uztailean	378,22
Moodle hiru hileko bat	210,12
Ume eta nerabe	22,06
AISA programa	27,32
C2 maila eskola orduko	1,63
C2 maila eskola orduko aurre matrikula	1,46

HOBARIAK/SALBUESPENAK:

Diru-sarrerak bermatzeko errenta edo gizarte-larrialdietarako laguntza jasotzen duten herritarrak salbuetsita daude.
Langabetu, ikasle, jubilatuei eta lanik ez duten pentsiodunek %50eko hobaria izango dute tasa hauetan: ohiko ikasleak, autoikaskuntza programa eta modalitate mistoa.

50 ordutik beherako ikastaroetan ez dira hobariok aplikatuko.

O EPIGRAFEA - Ingurumen hezkuntzari buruzko jarduerak (EMA)

IKASTAROA	2025-2026
Herrikoak ez diren ikastetxeetan egin beharreko eginaldia pertsonako/eguneko	8,09
Herriko ikastetzeetan egin beharreko egonaldien prezioak pertsonako	4,05
Beste talde batzuen egonaldi bereziak	9,19

Q EPIGRAFEA - Ibilgailuak bide publikotik eramateko eta ibilgailuok zaindu eta ibilgetzeko zerbitzua

Arrasateko Udalak, ibilgailuak bide publikotik eraman, gero ibilgailuok zaindu eta ibilgetzeko zerbitzua emate aldera, araudi hau aplikatuko du, honako hauen babesean: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 25.2.b artikuluan xedatutakoa;

Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 7.artikuluan eta V. Tituluaren IV: Kapituluan ezarritakoa; 11/1989 Foru Araua, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituena, eta gaiari buruz idarrean dauden gainerako arauak.

I. EXAKZIOAREN XEDEA

1. artikulua

Hauxe da Ordenantza honetan arautzen den exakzioaren xedea:

A. Ibilgailua bide publikoan jaso eta horretarako prestatutako biltegira eramateko zerbitzua ematea Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 105. Artikuluak ezarritako kasuetan.

B. Bide publikotik kendu ostean edo beste edozein arrazoi dela eta, Udalaren auto-biltegian dauden ibilgailuak ezarritako kasuetan.

C. Ibilgailuen ibilgetzea Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 104.artikuluak ezarritako kasuetan.

II. ORDAINTZEKO OBLIGAZIOA

2. artikulua

Ibilgailua bide publikotik eramateko ibilgetze operazioak hasten diren unean sortzen da ordaintzeko obligazioa; hau da, garabia ibilgailuaren ondoan dagoenean, nahiz eta oraindik ibilgailua eramaten edo ibilgetzeko tresna mekaniko nahiz zepo bidez ibilgetzen hasi ez.

III. ORDAINTZERA BEHARTURIK DAUDEN PERTSONAK

3. artikulua

Ordaintzera beharturik daude urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 104.6 eta 105.2 artikuluetan zehaztutako pertsonak, Trafikoari, ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.

IV. KARGA-OINARRIAK

4. artikulua

Hauxe izango da exakzioaren oinarria: zerbitzu unitatea eta eramandako ibilgailu mota.

V. TARIFAK

5. artikulua

Tarifa honen arabera sortuko dira tasak.

A. Ibilgailuak eramateagatik

Bizikletak, motor-bizikletak, motozikletak, trizikloak, moto gurditxoak, mugikortasun pertsonaleko ibilgailuak eta gainerako ibilgailuak, antzeko ezaugarriak dituztenak, bakoitzak:	**€**
1. Zerbitzua egiten joan doanean eta, egin behar diren tramiteak hasita udal gordailuetara eramateko, eta eramaterik ez dagoenean, gidaria edo titularra dagoelako.	30,9
Zerbitzua osorik egiten duenean, ibilgailua, araua hautsi duena, udal gordailuraino eramanda.	30,9
Turismoak, autokarabanak, karabanak, atoiak, 750 kg arte, eta kamioiak eta gainerako ibilgailuak, 3.500 kg arte.	**€**
1. Zerbitzua egiten joan doanean eta, egin behar diren tramiteak hasita udal gordailuetara eramateko, eta eramaterik ez dagoenean, gidaria edo titularra dagoelako.	51,5
2. Zerbitzua osorik egiten duenean, ibilgailua, araua hautsi duena, udal gordailuraino eramanda.	103
Kamioiak, 3.500 kg-tik gora, autobusak, atoiak, 750 kg-tik gora, eta erdi atoiak	**€**
1. Zerbitzua egiten joan doanean eta, egin behar diren tramiteak hasita udal gordailuetara eramateko, eta eramaterik ez dagoenean, gidaria edo titularra dagoelako, ibilgailu bakoitza, garabiaren fakturaren arabera, gutxienez. Ibilgailua eraman behar bada udal garabiaren bidez, aplikatuko da gutxieneko tarifa.	61,8
2. Zerbitzua osorik egiten duenean, ibilgailua, araua hautsi duena, udal gordailuraino eramanda, ibilgailu bakoitza, garabiaren fakturaren arabera, gutxienez. Ibilgailua eramaterik dagoenean udal garabiaren bidez, aplikatuko da	123,6

gutxieneko tarifa.	

B. Eramandako ibilgailuak biltegian utzi eta zaintzeagatik:

3. egunetik aurrera ibilgailua biltegian eduki eta zaintzeagatik kobratuko da tarifa hau, hirugarren eguna barne

1. Bizikletak, motor-bizikletak, motozikletak, trizikloak, moto gurditxoak, **mugikortasun pertsonaleko ibilgailuak** eta gainerako ibilgailuak, antzeko ezaugarriak dituztenak, egun eta frakzio bakoitzak:	4,10 €
2. Turismoak, autokarabanak, karabanak, atoiak, 750 kg arte, eta kamioiak eta gainerako ibilgailuak, 3.500 kg arte.	10,3 €
3. Kamioiak, 3.500 kg-tik gora, autobusak, atoiak, 750 kg-tik gora, eta erdi atoiak, egun edo frakzioko.	20,6 €
4. Gehienezko tarifa ondorengoa izango da:	
-Turismoak, autokarabanak, karabanak, atoiak, 750 kg arte, eta kamioiak eta gainerako ibilgailuak, 3.500 kg arte.	1.545 €
-Kamioiak, 3.500 kg-tik gora, autobusak, atoiak, 750 kg-tik gora, eta erdi atoiak, egun edo frakzioko.	3.090 €

C. Ibilgailuak ibilgetzegatik

1. Ibilgetzea edozein tresna mekaniko edo zepo bidez, A atalean agertzen diren tasen % 50.	50%
2. Ibilgailuak jarraitzen badu ibilgeturik, hirugarren egunetik aurrera (barne hartua) eta eguneko, B atalean agertzen diren tasen % 50.	50%

D. Ibilgailua eramateagatik eta ondoren Trafikon behin betiko baja emateagatik

1. Ibilgailua eramatea bide publikotik, jabeak eskatuta edo ofizioz, gero ematea BEHIN BETIKO BAJA Trafiko Burutzan.	92,7 €

VI. ORDAINTZEKO MODUA

6. artikulua

Eskubideon ordainketa jardunean den udaltzainari edo ibilgailuen biltegian ari den langileari egin beharko zaio, dagokion ordainagiriaz, eta ezinbesteko baldintza izango da ibilgailuak itzultzeko edo —hala badagokio— hasitako operazioak bertan behera uzteko.

VII. ARAUKETA OROKORRAK

7. artikulua

Ordenantza honen bidez ezartzen den eskubide exakzioak ez du salbuesten zirkulazio arauak hausteagatik egoki diren zehapenak edo isunak ordaintzetik.

8. artikulua

Ibilgailuak bide publikotik eraman eta udal auto-biltegian badaude eta jabeek ez badituzte legez ezarritako epean jasotzen Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 106.artikuluan jasotako prozesua betearaziko da. Ibilgailuak bide publikotik kendu eta horretarako jarritako lekuetan utzi ostean jabeek ez badituzte –egin beharreko jakinarazpenak egin eta gero– jarritako epean jasotzen, abandonatutako automobilak kendu eta biltegian uztea arautzen duen 1974ko otsailaren 24ko Aginduan xedatutakoa egingo da.

VIII. ZEHAPEN PROZEDURA

9. artikulua

Ordenantza honekin lotutako arau-hausteengatik hasi beharreko zehapen prozedurak tramitatuko dira Trafiko, Motordun Ibilgailuen Zirkulazio eta Bide Segurtasun gaietan Zehapen Prozedura arautzen duen otsailaren 25eko 320/1994 Errege Dekretuari eta haren aldaketei jarraituz.

IX. INDARRALDIA

10. artikulua

Ordenantza honek eragina izango du Udalak behin betiko onartzen duenean eta testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denean, eta, Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 65.2 artikuluari dagokionez, 70. artikuluan adierazitako epea igaro ostean.

R EPIGRAFEA - Bide publikotik ibilgailu abandonatuak eramateko eta ibilgailuok zaintzeko zerbitzua

Legeak agintzen dituen baldintzak bete ondoren, kasu hauetan, udal zerbitzuongatik kobratuko da ibilgailu ez-abandonatu eta gaizki aparkatuentzako garabiarengatik kobratzen den tasa berbera.

S EPIGRAFEA - Txakurrak kaletik jasotzeko zerbitzua

Txakurra jasotzea:	53,85 €
Txakurtegian mantenua, eguneko:	8,40 €

T EPIGRAFEA - Adinekoentzako jantoki zerbitzuagatiko tasa

a) Bazkaria:	5 €.
b) Afaria:	4 €.

U EPIGRAFEA - Termitak prebenitu, tratatu eta desinfektatzeko zerbitzua emateagatiko tasa. Indargabetuta

V EPIGRAFEA - Salmenta ibiltariko salgaiak konfiskatu eta eramateagatiko tasa

Egitate zergagarria zera da: salmenta ibiltariko salgaiak konfiskatu, hartu eta eramatea horretarako lizentziarik ez dagoenean.

Konfiskatutako produktua berreskuratzea eskatzen den unean ordainaraziko da tasa.

Subjektu pasiboa izango da produktua konfiskatu zaion pertsona. Konfiskatutako produktua hamabost eguneko epean erreskatatu ezean, produktua Udalaren esku egotera pasatuko da.

Tasaren zenbatekoa hauxe izango da:

- produktua berreskuratzen denean ..... 54,70 €
  (gehi garraio berezia, halakorik balego)
- 48 ordu igaro eta gero, biltegian egondako egun bakoitzeko .....1,10 €

W EPIGRAFEA – Hautaketa Prozesuetan Parte Hartzeko Tasa

Art. 1.- Oinarria eta izaera

Konstituzioaren 133.2 eta 142. artikuluetan eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 106. artikuluan jasotako ahalmenak erabiliz, eta III. kapituluan xedatutakoarekin bat etorriz, berezko zergak, eta Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 15. artikulutik 19. artikulura eta 20. eta 21. artikuluekin lotuta, Udal honek hautaketa prozesuetan parte hartzeagatiko tasa ezartzen du. Tasa horrek ordenantza fiskal honetan ezarritakoa bete beharko du, eta haren arauek Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen aipatutako foru-arauaren 20. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitakoa betetzen dute.

Art. 2.- Zergapeko Egitatea.

Zergapeko egitatea da:

Tasaren zergapeko egitatea da funtzionarioen edo lan-kontratudun langileen plantillan lanpostu hutsak betetzeko egiten diren hautaketa prozesuen berezko udal jarduera administratiboa, udalak onartutako deialdietan izena ematen dutenen artean, bai funtzio publikoan sartzeko, bai bitarteko edo aldi baterako langileak hautatzeko, bai lan poltsak egiteko.

Art. 3- Subjektu pasiboak

Aurreko artikuluan aipatzen diren hautatze probetan izena ematea eskatzen duten pertsona fisikoak dira tasaren subjektu pasiboak, hau da, hautagaiak.

Ez dute subjektu pasiboaren izaerarik eta, beraz, ez daude tasa honetara loturik, Arrasateko Udaleko karrerako funtzionario izaera edo lan kontratudun finkoaren izaera edukita barne sustapenetako hautaketa prozesuetan izena ematea eskatzen duten hautagaiek edo lanpostuak behin betiko hornitzeko diren lehiaketetan edo beste deialdi batzuetan parte hartzen dutenek.

Art. 4- Sortzapena

Tasaren sortzapena hautatze prozesuan parte hartzeko izena ematea eskatzen den unean sortuko da.

Izena emateko eskaera hori ez da izapidetuko, tasaren zenbatekoa Ordenantza honetako 5. artikuluan aurreikusitako baldintzetan ordaintzen ez den bitartean

Dagokion espedientea osatzeak ezartzen du betebeharra, beraz ez dagokio eskubide horiek itzultzea, nahiz eta eskatzailea edozein arrazoirengatik lehiaketatik, oposiziotik eta oposizio-lehiaketatik edo kontratazio-zerrendetako hautaketa-prozesuetatik kanpo utzi.

Art. 5- Zerga-kuota.

Honako zerga-kuota hauek ezarri dira:

a). **10,00 euro** dagokion lan eskaintza publikoan karrerako funtzionario edo lan kontratuko langile finko bezala sartutako plantillako plazak behin betiko betetzeko hautaketa prozesuetan izena emateko eskaera egiten denean.

b). **5,00 euro,** lan poltsak osatzeko edo bitarteko funtzionario edo aldi baterako lan kontratudunak hautatzeko egiten diren hautaketa probetan izena emateko eskaera gertatzen denean.

HOBARIAK

Enplegu zerbitzu publikoetan gutxienez 6 hilabeteko antzinatasuna duten enplegu eskatzaile gisa agertzen diren langabeen alde aurreikusitako tarifen zenbatekoaren % 50eko hobaria aitortzen da, dagokion hautaketa proben deialdia argitaratzen den datari dagokionez.

SALBUETSITA: DSBE edo GLL jasotzen dutenak.

Art. 6- Kudeatze-arauak.

Subjektu pasiboek Udalak zehaztutako banku korronte zenbakian egin beharko dute diru-sarrera. Halaber, diru-sarrera horren ziurtagiria izena ematearekin batera aurkeztuko da. Ez da onartuko epez kanpo ordaintzea.

Tasa hori aurreko paragrafoan adierazitako unean ordaintzen ez bada, ez da onartuko hautatze- probetarako izengaia izatea.

Izena emateko eskaerarekin batera aurkeztu beharko da, beti, diru-sarreraren kopia, diru-sarrera behar bezala eginda.

Subjektu pasiboari egotzi ezin zaion arrazoiengatik zergapeko egitatea den jarduera teknikoa eta/edo administratiboa egiten ez denean, bidezkoa izango da dagokion zenbatekoa itzultzea. Hau da, hautaketa prozesua bertan behera uztea erabakitzen duen ebazpen edo egintza administratiboaren ondoren ofizioz itzuliko da ordaindutako zenbatekoa. Ez da inolako itzulketarik egingo, interesatuari egotzi dakizkiokeen arrazoiengatik kanpo geratzen bada.

X EPIGRAFEA - Aparkaleku arautuagatiko tasa (TAO – OTA)

Jarraian azaltzen diren tarifak egokituko dira Arrasateko udalerriko zenbait gunetan aparkatze eta igarotze mugatuko sistema (TAO sistema) ezartzea arautzen duen udal ordenantzaren arabera.

- Aparkaldi Tiketa: Aparkatzeko gune mota bakoitzaren arabera sailkatutako tarifak:

TAO EXPRESSA		TAO MERKEA		TAO ARRUNTA		TAO LUZEA	
15 min	0,00 €	120 min	0,00 €	2 ordu arte	0 €	Goiz osoan	1 €
30 min	0,20 €			2,5 ordu	0,40 €	Arratsalde osoan	1 €
				3 ordu	0,80 €	Egun osoan	2 €
				3,5 ordu	1,20 €		
				4 ordu	1,60 €		

- Salaketa deuseztatzea …….10.20 €
- Bertakoentzako txartela:

URTE NATURALERAKO	UZTAILETIK AURRERA EGINDAKOAK
Lehena 30,00 €	Lehena 15,00 €
Bigarrena 65,00 €	Bigarrena 32,50 €

- Alta eta baja kasuetan ez da urteko tarifaren zenbatekoa zati proportzionalean banatuko, hots, uztailetik aurrera egiten diren txartelen alta eskaerei, aurreko atalean jasotako uztailetik aurrera egindakoen tarifak aplikatuko zaizkie eta, baja eskaeren kasuan, ez da itzuliko ordaindutakoaren zati proportzionalik.
- Txartela altan egongo da erabiltzaileak espresuki aldaketa edo baja eskaera egin arte. Halaber, txartelaren aldaketa edo baja eskaerek sortzen dituzten tarifa aldaketek, hurrengo ekitalditik aurrera izango dute eragina.
- Aurreko ekitaldian (urte naturalean) TAO Ordenantzaren aldaketa onetsi den kasuetan, eta, aldaketa horrek TAO txartelen alta, baja edo aldaketak eragin dituenetan, sei hilabete baino gutxiagoko zerbitzua jaso duten herritarrei, bertakoentzako txartelaren urteko tarifa %50ean ordainaraziko zaie.

Y EPIGRFEA - Larreak erabiltzeagatiko tasa

- Behiak eta behorrak, buruko .....5 €
- Ardiak, bildotsak eta ahariak, buruko ..... 0,21 €

Z EPIGRAFEA - Garagartzako ortu ekologikoen zerbitzuaren tasa

Tasa ortuak erabiltzearren, hiruhileko..... 5 €

ALKATEA ***IDAZKARIA***

III . ZERBITZUAK EMAN ETA JARDUERAK BURUTZEAGATIKO PREZIO PUBLIKOAK

ZERBITZUAK EMAN ETA JARDUERAK BURUTZEAGATIKO PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA

1. artikulua

Udal honek, Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/89 Foru Arauaren 43. artikuluan xedatutakoaren arabera, Eranskineko tarifetan zehaztuta dauden ZERBITZUAK ESKAINI eta JARDUERAK BURUTZEAGATIKO PREZIO PUBLIKOAK ezartzen eta exijitzen ditu Ordenantza honetan jasotzen diren arauei jarraituz, kontuan izanik horiek ere Ordenantza honen atal bat direla.

2. artikulua

Ordenantza udalerri osoan aplikatuko da.

3. artikulua

1 - Ordenantza honetan arautzen diren PREZIO PUBLIKOAK, zerbitzuen eta jardueren onuradunek ordainduko dituzte.

2 – Zergadunaren ordezkotzat hartuko dira –etxebizitzak edo lokalak erabiltzen edo okupatzen dituztenei eragiten dieten edo onuragarri zaizkien zerbitzuengatik edo jarduerengatik ezarritako prezioen kasuan– higiezinon jabeak edo jabekideak. Jabeek, hala badagokio, maizter edo errentariei ordainarazi ahal izango diete zorra.

4. artikulua

Prezio publikoaren zenbatekoa jakiteko, emandako zerbitzu edo egindako jarduera bakoitzerako Eranskinean azaltzen diren tarifetara jo beharko da, BEZa aparte.

5. artikulua

Ordainarazi daitezkeen kopuruak, eskatu edo egindako zerbitzu nahiz jarduera bakoitzeko ordainduko dira eta dagokien epigrafeetan adierazitako kopuruak ezin izango dira murriztu.

6. artikulua

Ordenantza honetan aipatzen diren zerbitzuak emateko edo jarduerak egiteko, aldez aurretik baimena eskatu behar zaio udal administrazioari. Zerbitzu edo jarduera horiek emandakotzat jotzeko, nolanahi ere, Ordenantza honetan araututako prezio publikoak ordaindu beharko dira, eta epea luzatu ondoren prezio publikoa ordaintzen ez bada, horrek zerbitzua emateko edo jarduera egiteko aukera galaraztea ekarriko du.

7. artikulua

Ordenantza honetan araututako prezio publikoak ordaindu beharra, zerbitzua ematen edo jarduera egiten hasten denean sortzen da.

Hala ere, dena delako zerbitzu-emate edo jarduera-egitea dagoeneko onetsi eta luzatu egin bada, zerga ordaindu beharra sortuko da dagokien tarifetan adierazitako epealdi natural bakoitzaren lehenengo egunean.

8. artikulua

Prezio publikoa honela ordainduko da:

a) Zerbitzu-emateen eta jarduera-egiteen kasuan, udal kutxetan zuzenean gordailu bat –adierazitako gutxieneko kopurukoa– sartuz, zerbitzua eman edo jarduera egin aurretik.

b) Beren izaera dela-eta aldez aurreko gordailua jartzeko aukera ematen ez duten zerbitzu-emate edo jarduera-egiteen kasuan, administrazioak dagokion faktura aurkezten duenean.

c) Urtez urteko zerbitzu-emate edo jarduera-egiteen kasuan, horiek prezio publikoen matrikuletan sartu ondoren, urte naturalen arabera.

9. artikulua

Prezio publikoa ordaindu beharrarekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik jarduera egiten ez denean, itzuli egingo da dagokion zenbatekoa.

10. artikulua

Prezio publiko hauengatiko zorrak premiamenduzko prozedura administratiboa erabiliz ordainarazi ahal izango dira.

11. artikulua

Prezio publiko honen likidazio, bilketa eta ikuskapenari dagokion guztian, bai eta, hala badagokio, tributuaren arau-hausteen kalifikazioan eta zehapenen zehaztapenean ere, Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean xedatutakoa aplikatuko da.

ALDAKETEN HISTORIALA

Udalbatzaren onespen data	GAOn argitaratze data eta zenbakia.	Indarrean sartzen den data	Aldaketak
1989 IRA 29	89ABE30 - 247	90 URT 1	1. onespena
1990 URR 31	90ABE21 - 245	91 URT 1	Artikuluak eta tarifak
1991 URR 11	91ABE31 - 248	92 URT 1	Prezioak
1992 URR 23	92ABE31 - 249	93 URT 1	Prezioak
1993 URR 08	93ABE31 - 249	94 URT 1	Prezioak
1994 URR 11	94ABE13 - 234	95 URT 1	Prezioak
1995 URR 27	95ABE27 - 244	96 URT 1	Prezioak
1996 URR 25	96ABE27 - 249	97 URT 1	Prezioak

1997 URR 20	97ABE19 – 242	98 URT 1	Prezioak
1998 URR 26	98ABE14 – 237	99 URT 1	Prezioak
1999.URR 28	99ABE28 - 247	00-URT 1	Prezioak
2000 URR 26	00ABE29 – 246	01 URT 1	Prezioak
2001. URR 25	01ABE31 – 249	02-URT 1	Prezioak
2002 URR 18	02ABE31 – 247	03-URT 1	Prezioak
2003 URR 20	03ABE26 - 246	04-URT 1	Prezioak
2004 URR 25	04ABE20 - 242	05-URT 1	Prezioak
2005 URR 25	05ABE15 - 236	06-URT 1	Prezioak
2006 URR 23	06 ABE 20 - 240	07-URT-1	Prezioak
2007 ABE 13	07 ABE 27 – 251	08 URT 1	Karga-tasak, hobariak
2008 ABE 11	08 ABE 31 - 251	09 URT 1	OSORIK ARGITARATUA
2009 AZA 05	09 ABE 30 - 246	10 URT 1	Kulturate
2010 URR 7	10 ABE 1 - 230	10 URT 1	Karga-tasa
2011 ABE 20	11 ABE 27 – 244	12 URT 1	Karga-tasak
2012 URR 30	12 ABE 24 – 244	13 URT 1	Karga-tasak
2013 ABE 17	13 ABE 30 – 246	14 URT 1	Tasak
2014 ABE 18	2014 ABE 26– 246	15 URT 01	
2015 ABE 15	2015 ABE 23 - 245	16 URT 01	Tasak borobildu
2016 URR 25	2016 ABE 22 - 241	17 URT 01	
2017 URR 03	2017 ABE 15– 238	18 URT 01	
2018 URT 02	2018 ABE 18 –242	19 URR 01	
2019 URRI 01	2019 ABE 19-242	20 URT 01	Prezioak
2022 EKAIN 14	2022 EKAIN 23 - 119	22 EKAIN 24	TASAK
2022 URR 4	2022 ABE 5 - 230	23 URT 01	TASAK
2023 ABE 05	2023 ABE 20 - 243	24 URT 01	PREZIOAK
2024 ABE 03	2024 ABE 18 - 243	25 URT 01	PREZIOAK

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau, bere Eranskinarekin batera, 1989ko irailaren 29an izandako bilkuran behin-betiko onetsi zuen Udalbatzak, eta 1990ko urtarrilaren 1ean sartu zen indarrean. Aldaketen historialean agertzen diren aldaketekin dago indarrean, eta indarrean segituko du indargabetzea erabaki arte.

ALKATEA **IDAZKARIA**

ERANSKINA

ZERBITZUAK EMAN EDO JARDUERAK EGITEAGATIKO PREZIO PUBLIKOAK

I. ONESPEN DATA: 2024ko abenduaren 3an

II. TARIFAK – PREZIO PUBLIKOAK - PREZIOETAN BEZA EZ DAGO SARTUTA

A EPIGRAFEA - Pertsonalaren zerbitzuak (BEZa aparte)

AOT orduko eta frakzioko ..... 54,68 €
Arduraduna orduko eta frakzioko ..... 43,55 €
Ofiziala orduko eta frakzioko ..... 36,10 €
Beste batzuk orduko eta frakzioko ..... 27,26 €

B EPIGRAFEA - Zerbitzuak emateko materiala (BEZa aparte)

Argiteria publikoko ibilgailua erabiltzaile partikularrentzat, orduko eta frakzioko ..... 43,55 €
Argiteria publikoko ibilgailua enpresa eta beste erabiltzaile batzuentzat orduko eta frakzioko ..... 186,98 €
Sonometroa ..... 186,98 €
Land-Roverra, orduko eta frakzioko ..... 25,43 €
Konpresorea, orduko eta frakzioko ..... 31,44 €
Fatxadak garbitzeko makina, orduko edo frakzioko ..... 15,64 €
Ur kontagailuen hornikuntza:
Kalibrea:
13 edo 15 mm ..... 73,81 €
20 mm ..... 88,69 €
25 mm ..... 152,48 €
30 mm ..... 189,33 €
40 mm ..... 309,87 €
40 mm-tik gora ..... KOSTU ERREALA +%10 ADM.GASTUAK
Mailu elektrikoak, eguneko ..... 13,34 €
Udal oholtza, (txikia), m²-ko eta eguneko ..... 6,16 €
Udal oholtza handia (lantaldeak muntatu eta desmuntatzea):
. egun bateko erabilpena ..... 2.275,93 €
. hurrengo egunak (eguneko) ..... 22,71 €
Megafonia, eguneko ..... 45,96 €
Zerbitzuetako sareak ikuskatzeko bideo ekipoa, orduko ..... 18,64 €
Kamioi garabia: partikularrentzat, orduko edo frakzioko ..... 39,53 €
enpresentzat, orduko edo frakzioko ..... 98,92 €
Karpa: moduloa/eguneko ..... 72,41 €
Generadore txikia, eguneko ..... 13,34 €
Generadore handia, eguneko ..... 24,10 €
Hesi metalikoak, unitateko eta eguneko ..... 11,78 €
Soldagailu motorduna, eguneko ..... 26,41 €
Hormigoi makina, eguneko ..... 15,97 €
Xukatzeko ponpa txikia, eguneko ..... 13,23 €

Xukatzeko ponpa handia, eguneko ..... 22,50 €
Udalaren mahaiak lagatzea, bakoitzeko eta eguneko
irabazi asmorik gabe ..... 2,14 €
bestelakoak ..... 4,07 €
Udalaren aulkiak lagatzea, bakoitzeko eta eguneko
irabazi asmorik gabe ..... 0,38 €
bestelakoak ..... 0,77 €
San Kristobal hilerriko orga jasotzailea, orduko edo frakzioko ..... 26,51 €
Ibi plaka ..... 22,81 €
Udal parrilak lagatzea
- parrila bakoitzeko eta eguneko, irabazteko asmorik gabeko ekintzetan ..... 5,46 €
- parrila bakoitzeko eta eguneko, irabazteko asmoa duten ekintzetan ..... 10,98 €
Ferixalekuko igogailuaren giltzen kopia..... 4,12 €
Hirugarren batek egindako zerbitzuaren kostua, esaterako, giltzak hobitik jasotzea, zerbitzuaren kostuaren zenbatekoa.

HOBARIAK

Hobaria %100ekoa izango da udal oholtzak, karpak, mahaiak eta aulkiak lagatzerakoan, honako kasu hauetan:

A) Pertsona judikoek:
1. kasua: -Irabazi asmorik ez dutenean.
-Eskaera jende guztiari irekitako jarduera bat egiteko denean, edo ez.
-Haien jarduerari dagozkion zerbitzuak hirugarrenei kobratzen ez dieten entitateez ari garenean.
2. kasua: -Irabazi asmorik ez dutenean.
-Haien jarduerari dagozkion zerbitzuak hirugarrenei kobratzen dieten entitateez ari garenean. (Musika, euskara, folklore, kirol edo ongintza jarduerekin lotutako erakundeei egiten zaizkien ekarpenak ez dira hirugarrenei egindako kobraketatzat joko)
-Haien jarduerarekin zerikusirik ez duten gizarte, kultura, ongintza eta antzeko ekintzetarako eskaera batez ari garenean.
-Eskaera jende guztiari irekitako jarduera bat egiteko denean.
3. kasua: -Irabazteko asmoa duten entitateak.
-Haien jarduerarekin zerikusirik ez duten gizarte, kultura, ongintza eta antzeko ekintzetarako eskaera batez ari garenean.
-Jende guztiari irekita.

B) Pertsona fisikoek:
1. kasua: -Gizarte, kultura, ongintza edo antzeko ekintzetarako eskaera denean.
-Eskaera jende guztiari irekitako jarduera bat egiteko denean.

2. kasua: -Eskaera izaera ekonomikoa duen jarduera bat egiteko denean.
-Irabazi asmorik gabeko helburua.
-Eskaera jende guztiari irekitako jarduera bat egiteko denean.

C EPIGRAFEA - AMAIA ANTZOKIA alokatzea (BEZa aparte)

Antzokia alokatzea:
Irabazteko asmoa duten erakundeentzat, eguneko ..... 2.679,82 €

Irabazi asmorik gabeko erakundeentzat, eguneko ..... 614,55 €

Sarrerako gunea, agertokia eta barra bakarrik alokatzen direnean:
Irabazteko asmoa duten erakundeentzat, eguneko ..... 494,19 €
Irabazi asmorik gabeko erakundeentzat, eguneko ..... 122,97 €

HOBARIAK

Arrasateko irabazi asmorik gabeko elkarteek antolatzen duten ekintzetarako Amaia antzokia alokatzen denean %100eko hobaria aplikatuko da baldintza hauek betetzen direnean:

- Ekitaldia irekia izango da
- Herritar guztiei eskainia
- Herriko kultura eskaintza aberastu edota osatuko dute
- Ekitaldiak 1000 €tik gorako etekinak izan ezkero, 85,5 € B.E.Z. gabe -ko prezioa ordainduko da
- Elkarteek erabileraren ondoren zinpeko adierazpen bat aurkeztuko dute ("declaración responsable") ekitaldiak sortutako gastu eta sarreren balantzearekin

D EPIGRAFEA - KULTURATEko lokalak alokatzea (BEZa aparte)

ARETOA	
Areto Nagusia (egun erdi, lau ordu gehienez)	180,71 €
Areto Nagusia (egun osoa, zortzi ordu gehienez)	271,33 €
Biteri eta Garibai gelak (egun erdi, lau ordu gehienez)	72,41 €
Biteri eta Garibai gelak (egun osoa, 8 ordu gehienez)	108,41 €
Jokin Zaitegi eta Loramendi gelak (egun erdi, lau ordu gehienez)	108,41 €
Jokin Zaitegi eta Loramendi gelak (egun osoa, 8 ordu gehienez)	145,25 €
Klaustroa (egun erdi, lau ordu gehienez)	662,74 €
Klaustroa (egun osoa, zortzi ordu gehienez)	1.325,51 €

KUDEAKETA ARAUA:

Soilik irabazi asmorik gabeko gizarte, kultura eta kirol elkarteei emango die Udalak doan erabiltzeko baimena ekitaldiak egiteko. Aretoak doan erabiltzeko baimena emateak berekin dakar ekitaldiak publikoak eta doakoak izatea.

E EPIGRAFEA - ETXALUZEKO lokalak alokatzea (BEZa aparte)

Egun erdi (lau ordu gehienez)/Egun osoa (zortzi ordu gehienez)		€
A aretoa: Anporreta (1. solairua)	Egun erdi	89,45
	Egun osoa	119,27
B aretoa: Karraskain (1. solairua)	Egun erdi	89,45

	Egun osoa	119,27
E aretoa: Axeri (2. solairua)	Egun erdi	89,45
	Egun osoa	119,27
F aretoa: Solozar (2. solairua)	Egun erdi	89,45
	Egun osoa	119,27
G aretoa: Labeko (2. solairua)	Egun erdi	59,62
	Egun osoa	89,45
H aretoa: San Josepe (2. solairua)	Egun erdi	59,62
	Egun osoa	89,45

F EPIGRAFEA: SANTA MARINAKO LEHENGO ALKATETZAren lokala alokatzea (BEZ aparte)

Lokala	Alokairuaren iraunaldia	Prezioa
Santa Marinako lehengo alkatetzaren lokala	Egun erdi	59,62 €
	Egun osoa	89,45 €

1. ESKAERAK

1.1 BAZen bulegoan aurkeztu behar dira, horretarako dagoen inprimakian

1.2 Etxaluze eraikinean, tokia eta bertan dauden aulkiak eta mahaiak baino ez dira lagako. Bestelako ekipamenduak (telebista, kanoia, proiektorea…) ezin dira laga.

1.3 Gutxienez 15 egun lehenago.

2. ARAUAK

2.1. Areto bat erabiltzeko baimena emateko, irizpide hauek nagusituko dira:

- Zentroaren programazioa.
- Aretoen erabilgarritasuna. Axeri, Solozar, Labeko eta S. Josepe aretoen erabileran lehentasuna izango dute San Andres hiri edo baserri alkatetzek antolaturiko ekitaldiek. Era berean, Anporreta eta Karraskain aretoen erabileran Abaroa elkarteak antolaturiko ekintzek izango dute lehentasuna.
- Ordutegiak. Hauxe da Etxaluzeko erreferentzia ordutegia
- Astelehenetik igandera: 10:00 – 21:30

2.2 Ekitaldiak egiteko, soilik irabazi asmorik gabeko gizarte, kultura eta kirol elkarteei emango die Udalak erabiltzeko baimena.

2.3 Bilerak egiteko: bilera pribatuak egiteko, goian aipaturiko entitate eta elkarteez gain, pertsona fisikoei ere eman ahalko zaie baimena, baldin eta kultura, gizarte edo kirol arlokoa bada bilera.

2.4. Aretoak doan erabiltzeko baimena emateak berekin dakar ekitaldiak publikoak eta doakoak izatea.

2.5. Egingo diren ekitaldiak zentroaren ordutegira egokitu beharko dira, eta ezin izango dute zentroen programazioa nahastu edo eragotzi, ez eta ETXALUZEko eguneroko funtzionamenduari traba egin ere.

2.6. Eskatzaileak konpromisoa hartuko du ekitaldian parte hartzen duten pertsona guztiek honako hauek bete ditzaten:
Ohiko erabilera ordutegia.
Arrasateko Udalak zehaztuko dituen sarrera eta erabilera arauak.

2.7. Eskatzaileak honako hauen ardura hartuko du:
Aretoa zegoen bezala uztearena.
Erabiltzean edo mantentzean ardura faltagatik ekitaldian zehar aretoetan gerta daitezkeen kalteena.

2.8. Arrasateko Udalak aurrez baimendu beharko du aretoetan behar den edozein aldaketa, eraldaketa edo seinaleztatze. Kasu horretan, betiere behin-behinekoa edo aldi baterakoa izan beharko da, eta zoruetan, hormetan nahiz sabaietan ezin izango dira finkapenak behar dituzten elementuak erabili.

G EPIGRAFEA - JAIALDI ETA OSPAKIZUNETAN BAXERA MAILEGUZ EMATEA (BEZa aparte)

Gobernu Batzarrak, 2014ko irailaren 29an egindako bilkuran, jaialdi eta ospakizunetan hondakinak kudeatzeko eta baxera maileguz emateko protokoloa onartu zuen.

Hona hemen baxera maileguz emateko prezioak (BEZa aparte):

-	Edalontzi bakoitzaren garbiketa:	0,08 €
-	Plater bakoitzaren garbiketa:	0,12 €
-	Entregatzen ez den edalontzi edo plater bakoitzeko:	1,67 €
-	Bilketa edo entrega zerbitzu bakoitzeko:	27,90 €

· Udalak garbiketa zerbitzua kobratuko dio erabiltzaileari.
· Entrega eta bilketa Udalak egiten badu, zerbitzu hori ere erabiltzaileari kobratuko zaio.
· Bueltatzen ez den materiala kobratu egingo da.
. Mailegu bakoitzaren tasa 10 € baino gutxiagokoa bada, Udalak hartuko du bere gain zerbitzuaren tasa, hau da, 10 €-ko minimoa finkatzen da tasaren likidazioa egiteko.

H EPIGRAFEA – JAME-KO AUDITORIUM eta APRENDIZESA ANTZOKIEN ALOKAIRUA (BEZa aparte)

JAMEko Auditorium a alokatzea:

Irabazteko asmoa duten erakundeentzat, eguneko	589,56 €
Irabazi asmorik gabeko erakundeentzat, eguneko	135,20 €

JAMEko Aprendizesa antzokia alokatzea:

Irabazteko asmoa duten erakundeentzat, eguneko	535,96 €

Irabazi asmorik gabeko erakundeentzat, eguneko ..... 118,11 €

HOBARIAK

Arrasateko irabazi asmorik gabeko elkarteek antolatzen duten ekintzetarako alokatzen denean %100eko hobaria aplikatuko da baldintza hauek betetzen direnean:

- Ekitaldia irekia izango da
- Herritar guztiei eskainia
- Herriko kultura eskaintza aberastu eta osatuko dute
- Ekitaldiak 1000 €tik gorako etekinak izanez gero, 85,50 € (B.E.Z barik) prezioa ordainduko da
- Elkarteek, erabili eta gero, zinpeko adierazpen bat aurkeztuko dute ("declaración responsable") ekitaldiak sortutako gastu eta sarreren balantzearekin

ALKATEA **IDAZKARIA**

IV . UDAL JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBO ETA APROBETXAMENDU BEREZIAGATIKO TASAK

HERRIKO JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBO ETA APROBETXAMENDU BEREZIAGATIKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua

Toki erakunde honek, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan xedatutakoari jarraituz, Eranskinean zehaztutako herriko jabari publikoaren erabilera pribatibo eta aprobetxamendu bereziagatiko tasak ezartzen eta exijitzen ditu Ordenantza honetan agertzen diren arauen arabera, kontuan izanik horiek ere Ordenantza honen atal bat direla.

2. artikulua

Toki erakundearen lurralde eremu osoan aplikatuko da Ordenantza.

II. EGITATE ZERGAGARRIA

3. artikulua

Hauxe da egitate zergagarria: herriko jabari publikoaren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia.

a) Hornidura-zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresen kasuan:

1. Egitate zergagarria da interes orokorreko edo herritar guztiei edo gehienei dagozkien hornidura-zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresek Udalaren bide publikoetako lurzorua, lurpea nahiz hegaldura modu pribatiboan edo aprobetxamendu berezietarako erabiltzea.

2. Hala, honako hauek hartuko dira hornidura-zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresatzat:

a) Argindarrez, urez eta gasez hornitzen duten enpresak.
b) Herritarrentzako telekomunikazio zerbitzuak ematen dituzten enpresak, baldin eta udal bide publikoen lurzoruan, lurpean edo hegalduran modu pribatiboan edo aprobetxamendu berezietarako instalatutako telekomunikazio-sare publikoak –osorik edo zati batean– erabiltzen badira.

c) Hornidura-zerbitzuak ematen dituen beste edozein enpresa, baldin eta zerbitzu horiek emateko udal lurzorua, hegaldura edo lurpea hartzen duten hodiak, kableak eta gainerako instalazioak erabiltzen badituzte.

3. Artikulu honetan jasotakoaren ondorioetarako, halako zerbitzuak banatzen eta merkaturatzen dituzten enpresak ere zerbitzuok ustiatzen dituzten enpresen multzoan sartuko dira.

b) Finka pribatuetara sartzeko jabari publikoa zeharkatu behar denean, ibilgailuz hiri lurzoruan dauden higiezinetara sartzeko eskubidea bermatuko da fisikoki hala egiterik dagoenean.

Eskubide hori erabili ahal izango da udal antolamenduaren ondoriozko trafiko mugen bidez, eskubidea modu iraunkorrean bermaturik geratzen bada (aparkatzea debekatuz, pasabide mugatuak seinaleztatuz eta abar) edo aparkalekuak kendu eta, ondorioz, espazio publikoa erreserbatuz, ibilgailuak pasatu daitezen.

III. SUBJEKTU PASIBOA

4. artikulua

1.- Zerga honen subjektu pasibo dira, zergadun gisa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergari buruzko Foru Arau Orokorraren 35. artikuluan jasotzen diren pertsona fisikoak, juridikoak eta entitateak, baldin eta herriko jabari publikoa norberaren onurarako gozatzen, erabiltzen edo bereziki aprobetxatzen badute, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 20.2 artikuluan xedatutako kasuren baten arabera.

2.- Ibilgailuz jabari publikoa zeharkatu eta finka pribatuetara sartzeko erabilera pribatiboagatik edo aprobetxamendu bereziagatik ezarritako tasetan, zergadunaren ordezkotzat joko dira ibilgailuen sarrera horiei sarbidea ematen dieten finken eta lokalen jabeek. Jabe horiek, hala badagokio, kuotak ordainaraziko dizkiete onuradunei.

3.- Estatua, autonomia erkidegoak eta toki erakundeak ez daude behartuta tasak ordaintzera jabari publikoaren erabilera pribatigoagatik edo aprobetxamendu bereziagatik, zuzenean ustiatzen dituzten komunikazio-zerbitzu publikoen aprobetxamenduetan eta, bereziki, herritarren seguratasunarekin edo nazioaren defentsarekin zerikusia duten guztietan.

5. artikulua

Lizentziak beren izenean jasotzen dituztenek ordainduko dituzte tasak eta, halakorik ezean, aprobetxamenduaren onuradun direnek.

IV. SALBUESPENAK, MURRIZKETAK ETA HOBARIAK

6. artikulua

Aplikatzekoak diren xedapen orokorretan ezartzen denaren arabera emango dira salbuespenak edo bestelako onura fiskalak.

V. ZERGA-OINARRIA

7. artikulua

Zerga-oinarria herriko jabari publikoaren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia gauzatzen den unitate bakoitzak osatuko du, Eranskinean jasotakoaren arabera.

VI. KUOTA

8. artikulua

1.- Eranskinean ezarritakoaren arabera, hauxe izango da zerga-kuota: tarifa bat aplikatzetik ateratzen den kopurua, horretarako ezarritako kopuru finkoa, edo prozedura biak batera aplikatzetik ateratzen den kopurua.

2.- Erabilera pribatiboak edo aprobetxamendu bereziak herriko jabari publikoa suntsitu edo hondatzen duenean, onuradunak, dagokion tasari aurre egiteaz gainera, osorik itzuli beharko ditu berreraikuntza edo konponketa gastuen kostuak, eta zenbatekoa aldez aurretik ordaindu beharko du.

Kalteak konponezinak badira, toki erakundeak kalte-ordaina jasoko du. Kalte-ordain horrek suntsitutako ondasunen pareko balioa izango du, edo, bestela, kaltetutako ondasunen zenbatekoarena.

Toki erakundeak ezin izango ditu barkatu, ez osorik ez zati batean, atal honetan aipatzen diren kalte-ordainak edo diru-itzulketak.

VII. SORTZAPENA ETA ZERGALDIA

9. artikulua

1.- Herriko jabari publikoaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatiko tasa honakoetan sortuko da egitate zergagarriaren arabera: erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia hasten denean –eta orduan zenbateko osoa edo haren zati bat aldez aurretik ordaintzeko exijituko da–, edota, bestela, jarduketari edo espedienteari hasiera ematen dion eskaera aurkezten denean; horrelakoetan, eskaera aurkeztean autolikidazio bidez ordaindu beharko da.

2.- Tasaren izaera materialak sortzapena aldizkakoa izatea eragiten duenean, sortzapen bori urte bakoitzaren urtarrilaren 1ean gertatuko da eta zergaldia urte naturalari egokituko zaio, erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia hasi edo uzten denean izan ezik. Halakoetan, zergaldia zirkunstantzia horri egokituko zaio eta dagokion hainbanaketa aplikatuko da kuotan, Eranskinean xedatutakoari jarraituz.

3.- Jabari publikoa erabili edo aprobetxatzeko eskubidea, subjektu pasiboari egozterik ez dagoen zergatiengatik erabili edo gauzatu barik geratzen denean, itzuli egingo da dagokion zenbatekoa.

VIII. LIKIDAZIOA ETA DIRUA SARTZEA

10. artikulua

Toki erakundeak kontzeptu bakoitzaren likidazioa egingo du, eta likidatutako diru kopurua eskudirutan sartuko du, Eranskinak exakzio bakoitzerako ezartzen dituen arau partikularren arabera.

IX. TASAK KUDEATZEA

11. artikulua

Ordenantza honek arautzen dituen tasen likidazio, bilketa eta ikuskapenari dagokion guztian, bai eta, hala badagokio, tributuaren arau-hausteen kalifikazioan eta zehapenen zehaztapenean ere, Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean xedatutakoa aplikatuko da.

12. artikulua. Jabari Publikoa okupatzeko baimena eskatu ondoren, erabilera baimenari uko egitea okupazio data baino gutxienez 7 egun natural lehenago jakinarazi beharko zaio Udalari, jabari publikoaren erabilera pribatiboaren tasaren zenbatekoa itzuli edo deuseztatu ahal izateko. Jakinarazpen hori egin ezean edo epez kanpo egiten bada, okupazioa egikaritu dela ulertuko da dagokion ondorioetarako.

X. ALDAKETEN HISTORIALA

Udalbatzaren onespen data	GAOn argitaratze data / zenbakia.	Indarrean sartzen den data	Aldaketak
1989 IRA 29	89 ABE 30 - 247	90 URT 1	1. onespena
2000 URR 26	00 ABE 29 - 246	01 URT 1	Tasak
2001. URR 25	01 ABE 31 - 249	02-URT 1	Tasak
2002 URR 18	02 ABE 31 - 247	03-URT 1	Tasak
2003 URR 20	03 ABE 26 - 246	04-URT 1	Tasak
2004 URR 25	04 ABE 20 - 242	05-URT 1	Tasak
2005 URR 25	05 ABE 15 - 236	06-URT 1	Tasak eta hobariak
2006 URR 23	06 ABE 20 - 240	07-URR-1	Tasak
2007 ABE 13	07 ABE 27 - 251	08 URT 1	Karga-tasak, hobariak
2008 ABE 11	08 ABE 31 - 251	09 URT 1	OSORIK ARGITARATUA
2009 AZA 05	09 ABE 30 - 246	10 URT 1	IBIAK
2010 URR 7	10 ABE 1 - 230	10 URT 1	Karga-tasa
2011 ABE 20	11 ABE 27 – 244	12 URT 01	Karga-tasa
2012 URR 30	12 ABE 24 – 244	13 URT 1	Karga-tasa
2013 ABE 17	12 ABE 30 – 247	13 URT 01	Tarifak
2014 ABE 18	2014ABE26 – 246	15 URT 01	
2015 ABE 13	2015 ABE 23-245	16 URT 01	
2016 URR 25	2016 ABE – 241	17 URT 01	
2017 URR 03	2017 ABE - 238	18 URT 01	
2018 URT 02	2018 ABE 18 -242	19 URR 01	
2019 URRI 01	2019 ABE 19-242	20 URT 01	Karga Tasa eta hobariak
2020 AZA 05	2021 OTS 1- 19	21 URT 01	Hobariak
2021 APIR 15	2021 EKAIN 21-115	21 URT 01	Hobariak
2023 ABE 05	2023 ABE 20 -243	24 URT 01	Karga tasa eta tasa berria
2024 ABE 03	2024 ABE 18 - 243	25 URT 01	Karga tasak

XI. AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau, bere Eranskinarekin batera, 1989ko irailaren 29an izandako bilkuran behin-betiko onetsi zuen Udalbatzak, eta 1990ko urtarrilaren 1ean sartu zen indarrean. Aldaketen historialean agertzen diren aldaketekin dago indarrean, eta indarrean segituko du indargabetzea erabaki arte.

E R A S K I N A

HERRIKO JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBO ETA APROBETXAMENDU BEREZIAGATIKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA

I. ONARPEN EGUNA: 2024KO ABENDUAREN 3AN

II. TASAK.

A EPIGRAFEA - Kalikatak eta zangak irekitzea

Kalikatak eta zangak irekitzea	KALEAREN KATEGORIA			
	1	2	3	4
€/eguneko eta m^2-ko edo frakzioko (gutxienez metro 1eko zabalera)	0,75 €	0,64 €	0,54 €	0,43 €
€/hileko eta m^2-ko edo frakzioko (gutxienez metro 1eko zabalera)	12,93 €	10,77 €	8,62 €	5,39 €

Aprobetxamenduak Udalak emandako epea gaindituz gero, tasa hauek %400eraino igoko dira.

B EPIGRAFEA - Jabari publikoa eraikuntzako materialez okupatzea

	KALEAREN KATEGORIA			
	1	2 (%75)	3 (%50)	4 (%25)
€/m^2-ko eta eguneko	1,34	1,01	0,66	0,33
" " eta hileko (1)	26,78	20,09	13,38	6,70
" " eta hiru hileko (1,25)	33,48	25,10	16,73	8,36
" " eta urteko (2,0)	53,55	40,16	26,76	13,38

HOBARIAK:

%50eko hobaria: okupatutako lekuak, oinezkoen ibilguneak murriztu arren, oinezkoon joan-etorria galarazten ez duenean.

%50eko hobaria: juridikoki jabari publikoa diren guneak okupatzen direnean, baldin eta hartzen diren unean oraindik urbanizatzeko badaude.

%60ko hobaria izango dute titulartasun pribatukoak izan arren erabilera publikoko zortasuna duten lurzoruen jabeek.

%60ko hobaria: eraikuntza, obra eta instalazioen gaineko zergan %75etik gorako hobaria aplikatu zaion obra-lizentzia bati dagokion okupazio batez ari bagara, 9. hobaria salbuetsiz.

C EPIGRAFEA - Udal bide publikoetako lurzoru, lurpe edo hegalduraren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia, hornidura-zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresen alde

Herritar guztiei edo herritarren zati bati dagozkien hornidura-zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresek, bide publikoetako lurzorua, lurpea nahiz hegaldura modu pribatiboan edo aprobetxamendu berezietarako erabiltzeagatik, udalerrian lortzen duten fakturazioaren ondoriozko diru-sarrera gordinen %1,5eko tasa izango dute; horrek ez du esan nahi, ordea, mailaz gorago dagoen beste lege xedapen batek agindutakoa bete beharko ez dutenik.

Ondorio horietarako, zerbitzu horiek ustiatzen dituzten enpresen multzoan, zerbitzuok banatzen eta merkaturatzen dituzten enpresak ere sartuko dira.

Telefonia mugikorreko zerbitzuak ez dira tasa kuantifikatzeko araubide berezi honetan sartuko.

D EPIGRAFEA - Bide publikoko zorua, hegaldura eta lurpea modu pribatiboan erabiltzea

		KALEAREN KATEGORIA			
		1	2	3	4
		%100	%75	%50	%25
a) Mahaiak eta aulkiak					
m^2-ko eta hileko		5,71	4,31	2,85	1,45
" " eta urteko		15,08	11,31	7,54	3,77
• Baimena lortzeko, beharrezkoa izango da jardueraren titularrak Udalarekin zorrik ez izatea. • Jubilatuen etxeetako tabernek %50eko hobaria izango dute mahaien eta aulkien tasan. • Lurzoruak hartzen duenean aparkaleku lurzorua, baldin eta, erabilera hori baimentzen baldin bada, betiere hirigintza sailetik ezartzen diren baldintzetan, 1,5 koefizienteaz biderkatutakoa da kale bakoitzari dagokion tasa. • Jarduera berdinaren urteko baimenak egun ezberdinetarako okupazio azalera ezberdinak jasotzen baditu, azalera handieneko okupazioa hartuko da kontuan urteko tasaren zenbatekoa zehazteko.					
b) Oholtzak, tribunak, plataforma					
m^2-ko, denboraldia edo urtea	%100	28,45	21,34	14,22	7,12
m^2-ko, igande eta jaiegunetan	%50	14,44	10,83	7,22	3,61
m^2-ko, hilabetetik behera	%20	5,71	4,28	2,85	1,43
m^2-ko, herriko jaietan	%10	2,84	2,13	1,42	0,71
c) Kioskoak					

m^2-ko eta urteko	%100	27,69	20,80	13,85	6,95
d) Kalez kaleko salmenta, barrakak, ikuskizunak, etab.					
a) m^2-ko, urtea	%100	114,24	85,68	57,11	28,56
b)m^2-ko, denboraldia, 3 hilera arte	%80	91,38	68,54	45,69	22,85
c) m^2-ko, hilabete baino gutxiago	%70	79,97	60,02	40,03	20,02
d) m^2-ko, 15 egunetik behera	%60	68,59	51,45	34,29	17,18
e) m^2-ko, herriko jaietan (5 egun)					
Irabazteko asmoaz	%30	34,37	25,75	17,18	8,59
Irabazteko asmo barik	%10	11,42	8,64	5,74	2,90
f) m^2-ko egun baterako					
Irabazteko asmoaz	%15	17,14	12,86	6,43	3,23
Irabazteko asmo barik	%5	5,71	4,32	2,15	1,43

1.- Jaiegunetan zehazki, honako atal hauek aplikatuko dira bide publikoa okupatzeko:

- Sanjuanetan "e" atala aplikatuko da.
- Santamasetan eta gabonetan, "c" atala.
- Santamas egunean, "f" atala.
- San Andresko edo beste auzo bateko jaietan, "e" atala.
- San Andresko eta Musakolako jaietan, "d" atala.
- Maritxu Kajoi egunean, "f" atala.
- Inauterietan, "e" atala.
- Inauteri martitzenean, "f" atala.
- Iñauterietako zapatuan, San Juanetako jaietan 2 egun, Maritxu kajoi egunean, Santamas egunean eta Gabon zahar egunean kamioi-dendatik janariak saltzea d) atala. Baimena egun guztietarako izango da eta ordainketa bakarrekoa, eta gauzatuko da baimena erabiltzen hasi aurretik. Kuota zatiezina izango da.

Goian aipatutako jaiegunetatik kanpo bide publikoa hartuz gero, hortik aparte eta okupazio aldiaren arabera ordainduko dira zergak.

Jendaurreko ikuskizunak, erakusketak eta antzekoak egiteko bide publikoa erabili eta 100 m2-tik gora hartzen direnean, kobratu beharreko gehieneko **tasa 500 euro** izango da.

2.- **HOBARIA:** %100ekoa izango dute "d" atalean aipatutako tasetan:

A) Pertsona judikoek**, kasuaren arabera**:

1. - Irabazi asmorik ez dutenak.
   - Eskaera jende guztiari irekitako jarduera bat egiteko denean, edo ez.
   - Haien jarduerari dagozkion zerbitzuak hirugarrenei kobratzen ez dieten entitateez ari garenean.

2.- Irabazi asmorik ez dutenak.

-Haien jarduerari dagozkion zerbitzuak hirugarrenei kobratzen dieten entitateez ari garenean. (Musika, euskara, folklore, kirol edo ongintza jarduerekin lotutako erakundeei egiten zaizkien ekarpenak ez dira hirugarrenei egindako kobraketatzat joko)

-Haien jarduerarekin zerikusirik ez duten gizarte, kultura, ongintza eta antzeko ekintzetarako eskaera batez ari garenean.

-Eskaera jende guztiari irekitako jarduera bat egiteko denean.

3.- Irabazteko asmoa duten erakundeak.
-Haien jarduerarekin zerikusirik ez duten gizarte, kultura, ongintza eta antzeko ekintzetarako eskaera batez ari garenean.
-Jende guztiari irekita.

B) Pertsona fisikoek**, kasuaren arabera**:

1. Gizarte, kultura, ongintza edo antzeko ekintzetarako eskaera denean.
   -Ekaera jende guztiari irekitako jarduera bat egiteko denean.
2. Eskaera izaera ekonomikoa duen jarduera bat egiteko denean.
   -Irabazi asmorik gabeko helburua.
   -Eskaera jende guztiari irekitako jarduera bat egiteko denean.

3.- HOBARIA.- Irabazteko asmorik gabeko erakundeek eta/edo gizarte, kultura edo hizkuntza normalizazioko helburuak dituztenek, Arrasatekoak badira edo egoitza badute Arrasaten, hobaria izango dute, % 100ekoa, espazio publikoa erabiltzen dutenean, ekintza zehatz bat egiteko.

e) Jarduera ekonomikoak gauzatzen diren lokalen aurrealdean utzitako elementuak.

		%100	%80	%60	%40
m^2-ko, denboraldia edo urtea	%100	5,54	4,18	2,77	1,41
m^2-ko, 3 hilera arteko aldia	%80	14,64	10,98	7,32	3,66
m^2-ko, hilabete baino gutxiago	%70	5,54	4,18	2,77	1,41

e) atal honetarako hobaria:

1. Bide publikoa elementu apaingarriz okupatzeko eskaera egiten duten jarduera ekonomikoen titularrek kuotaren %100eko hobaria izango dute. Hobari hori emateko, utzitako elementuak ezin izango dira izan ez dendaren beraren salgaiak, ez jardueraren elementu osagarriak, ez eta ez bada jardueraren edo markaren baten publizitatea egiteko elementu bat.

f) Hodiak, errailak, deposituak, tangak ...

Azalera, m2-ko edo frakzioko, urtekoa	15,85	12,68	9,52	6,34
Luzera, ml-ko edo frakzioko, urtekoa	0,56	0,56	0,56	0,56

g) Elementu unitarioak, habeak, horma-besoak, zutabeak, eusteko kutxak, banaketa eta konexio kaxak eta antzekoak, baldin eta proiektatutako azalerak gainditzen ez badu

Metro karratua, urtekoa:		22,64	22,64	22,64	22,64

TASA hauek aplikatzeko, kaleak eta udalerriko lekuak oro har, kategoriatan sailkatzen dira, honelaxe:

1. kategoria **2. kategoria** **3. kategoria** **4. kategoria**

Alfontso X.
Arrasate P.
Azoka
Biteri E.
Biteri plaza
Erdiko kale
Ferrerias
Garibai E.
Gazteluondo
Herriko plaza
Ignacio Zuloaga
Iparraguirre
Iturriotz
J.M. Eguren
Jokin Zaitegi
Jose Letona enparant.
Juan C. Guerra
Kanpatorpea
Kontzezino
Kontzezino Estalia
Laubide plaza
Maalako E.
Arano eta Garaia maisu-maistren Kalea
Mitarte
Mondragones
Okendo
Olarte
Olarte kantoia
Otalora Liz.
Pablo Uranga
S. Bixente F.
San Frantzisko
Seber Altube
Uharkape Pl.
Zarugalde
Zeharkale Estal
Zerkaosteta
Zerrajera kalea
Zurginkantoi

Aldai
Aldaigain
Altamirazpi
Andalucia
Antso Abarka
Aprendices kalea
Araba E.
Aragoa
Aramaio
Arima-Zubi
Bizkai Et.
Dr. Bañez
Dr. Bolibar
Dr. Cordoba y Oro
Deba Etorbidea
Elkano
Elma kalea
Errando Gebar.
Errebuelta
Etxetxikiak kalea
Euskalherria plaza
Garro Jenerala
Gernika Ibilbidea
Gipuzkoa E.
Gipuzkoako F.Pl.
Gudarien Pl.
Hiruki plaza
J.L.Iñarra (1-15)
J. M. Arizmendiarrieta
Juan Bengoa
Kale Txiki
Kurtze Txiki
Lapurdi kalea
Larrea plaza
Legargain
Legarra plaza
Leintzibar
Loramendi
Maiatzaren Bata
Maisu Aranbarri
Maisu Guridi
Markoalde
Martxoaren 8 kalea
Munar
Nafarroa E.
Nao Santiago
Navas de Tolosa
Oñati kalea
Obenerreka
Osiñaga kalea
Sailuente plaza

Agerre
Alfontso VIII
Anboto
Arruena parkea
Azeri
Bidekrutzeta
Donestebe Portuko
Elizalde
Erguin
Erguinarro kalea
Errekalde
Etxagibel Notari J.
Etxeazpia
Etxeostea
Galizia
Goiru kalea
Hondarribia
Ibarreta kalea
Isasi kalea
Itxaropena plaza
Jauregibarria
J.L.Iñarra(goialdea)
Kalealdea
Larragain
Maitena
Makatzena
Olaran
Santa Teresa
Santamaina
Udalpe
Uriburu
Zalduspe
Zubikoa kalea

Bedoña auzoa
Ekutio kalea
Garagartza auzoa
Gesalibar auzoa
Intxausti kalea
Istizabal-Garag.
Meatzerreka
Musakola
S. Andres auzoa
S. Andres kalea
San Josepe
Telleria kalea
Udala auzoa
Uribarri auzoa

Txaeta kalea
Uribarri E.
Uribe Auzategia
Uribe kalea
Usaetxe Plaza
Zaldibar kalea
Zigarrola kalea
Zuberoa kalea

Elementuak balorazio desberdineko bi bide publikoren edo gehiagoren artean jarrita badaude, balio handieneko bide publikoari dagokion kuota hartuko da kontuan.

E EPIGRAFEA -Ibilgailuak finketara sartzeko eta bide publikoan aparkalekuak erreserbatzeko udal lizentzia

1. Eraikuntzako tailerren eta ibilgailuak konpontzeko tailerren lokalak ..... 96,37 €

2. Ekonomia jardueren gaineko zerga ordaintzen duten lokalak:
   - 15 langile baino gutxiago ..... 48,23 €
   - 15 langile baino gehiago ..... 96,37 €

3. Aurreko ataletakoen kontsiderazioa ez duten lokaletan:
   - 1- 5 leku baino gutxiago ..... 36,20 €
   - 2- 5etik 25 lekura bitartean ..... 51,18 €
   - 3- 26tik 100 lekura bitartean ..... 65,09 €
   - 4- 100 leku baino gehiago ..... 88,15 €

b) Zamalanak egiteko erreserba iraunkorra:

metro linealeko eta eguneko, 6 ordura arte ..... 34,48 €
metro linealeko eta eguneko, 6 ordutik gora..... 59,72 €

c) Leku erreserba noizean behingo beharretarako,

Metro linealeko eta eguneko..... 1,12 €

d) IBI ez den sarbide bermatua,

IBI tarifaren zenbatekoari buruz, a) atala, 3-1 puntua 70 %

e) Aparkaleku erabilerarako bide publikoa erreserbatzea, m2-ko: 11,15 €

Tarifak aplikatzeko arauak:

A) Espaloiko pasabideen zabalera zehazteko, ertz jaitsien metro linealak hartuko dira kontuan, halakorik egonez gero. Espaloiaren ertza jaitsi ez bada eta espaloia kendu ez bada, lokalean edo orubean sartzeko tartearen luzera erabilgarri osoa izango da neurria.

B) Aparkaleku gastuak, hau da, aparkalekuak egitea, zaintzea, berritzea, pasabideak erretiratzea nahiz erreserbatzea eta horiek debekatzea, baita seinaleak jartzea ere, eskatzailearen kontura izango dira.

C) Hasteko eta eteteko kasuetan, erabilera pribatiboan nahiz aprobetxamendu berezian, kuota hilabete naturaletan hainbanatuko da.

F EPIGRAFEA – Landa-bideen erabilera berezia

Erabilera berezitzat joko da baimendutako gehieneko pisu gordina (20 tona) gainditzen duten garraio-ibilgailuak landa-bideetan ibiltzea.

Edozelan ere, halako ibilgailuak bertatik pasatzea nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategiekin zuzenki lotuta dagoenean (bazka, pentsuak, etab. eramatea), ez da erabilera berezitzat joko.

Erabilera berezitzat joko da lehen paragrafoan adierazitako ibilgailuak ibiltzea, baldin eta baserrian edo nekazaritza eta abeltzaintzako instalazioan obrak egiteko bada, edo betelanak eta basogintzako lanak egiteko bada.

Hauek izango dira TASAren tributu-elementuak: ibilgailua eta bidaia kopurua. Interesdunek udal baimena beharko dute zolatuta dauden landa-bideak erabiltzeko. Eskaerarekin batera, honako hauek aurkeztu behar dira derrigorrez:

Erabiltzailearen datuak (garraiolaria edo kontratista), ibilgailuaren datuak (matrikula, tara, baimendutako gehieneko pisua), bidaia kopurua, eraman beharreko material tonak (pisua) eta noiz hasi eta bukatuko den.

BIDAIAKO ETA IBILGAILUKO TASA ..... 19,38 €

Dena delako landa-bidea egiteko finantzaketan parte hartu duten erabiltzaileek %75eko hobaria izango dute (1997ko martxoko Udalbatzarrak onartu zuen).

G EPIGRAFEA – Jabari publikoa kutxazainekin, "vending" makinekin eta antzekoekin okupatzea

		KALEAREN KATEGORIA			
		1	2	3	4
		%100	%80	%60	%40
Metro karratua, urtekoa:		114,24	85,68	57,11	28,56

ALKATEA **IDAZKARIA**

V KONTRIBUZIO BEREZIAK

KONTRIBUZIO BEREZIEN ORDENANTZA FISKAL OROKORRA.

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua

Udal honek, Toki Ogasunak arautzen dituen Lurralde Historikoko Foru Arauan xedatutakoaren arabera, obrak egiteagatiko edo udal zerbitzuak ezarri edo hedatzeagatiko kontribuzio berezien Ordenantza Orokorra onesten du.

2. artikulua

Ordenantza udalerri osoan aplikatuko da.

II. EGITATE ZERGAGARRIA

3. artikulua

Kontribuzio berezien egitate zergagarria zera izango da: udal obrak burutzearen edo Udalak udal zerbitzu publikoak ezarri nahiz hedatzearen ondorioz subjektu pasibo batek lortzen duen onura edo bere ondasunen balioaren gehikuntza.

4. artikulua

1. Honako hauek joko dira udal obra eta zerbitzutzat:
ri
a) Udalak bere helburuak betetzeko eta bere eskumenen barruan egiten dituenak. Multzo horretatik kanpo geratuko dira Udalak bere ondare-ondasunen jabe gisa egiten dituenak.
b) Udalak, beste entitate publiko batzuek egotzita edo eskuordetuta, egiten dituenak; bai eta, legeriarekin bat etorriz, titulartasuna bere gain hartu ondoren egiten dituenak ere.
c) Beste entitate publiko batzuek edo horien kontzesiodunek egiten dituztenak, baldin eta Udalaren ekarpen ekonomikorik badute.

2. Aurreko zenbakian adierazitako a) hizkian sartutakoek ez dute udal obra edo zerbitzu izaera galduko, nahiz eta kapital sozial osoa Udalarena duten erakunde autonomoek edo merkataritza sozietateek egindakoak izan, Udalaren ekarpenez egindako kontzesiodunenak izan edo zergadunen administrazio elkarteek egindakoak izan.

5. artikulua

Kontribuzio bereziengatik bildutako zenbatekoak bakarrik erabili ahal izango dira kobraketaren arrazoi izan diren obra eta zerbitzuen gastuak ordaintzeko.

III. SUBJEKTU PASIBOA

6. artikulua

1. Kontribuzio berezien subjektu pasibo izango dira pertsona fisiko zein juridikoak eta Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 35. artikuluak aipatzen dituen entitateak, baldin eta zerga ordaindu beharra sortzen duten obretatik edo udal zerbitzuak jarri eta handitzetik onura berezia ateratzen badute.

2. Honako hauek pertsona bereziki onuraduntzat joko dira:

a) Ondasun higiezinei eragiten dieten obrak egiteagatik edo zerbitzuak ezarri nahiz handitzeagatik ordaindu beharreko kontribuzio berezietan, ondasun higiezinon jabeak.
b) Enpresa ustiapenekin lotutako obrak egiteagatik edo zerbitzuak ezarri nahiz handitzeagatik ordaindu beharreko kontribuzio berezietan, haien titularrak diren pertsonak edo entitateak.
c) Suteak itzaltzeko zerbitzuak handitu edo hobetzeagatik ordaindu beharreko kontribuzio berezietan, eragindako ondasunen jabeez gain, beren jarduerak udalerriko alor horretan egiten dituzten aseguru etxeak.
d) Lurpean galeriak eraikitzeagatik ordaindu beharreko kontribuzio berezietan, galeria horiek erabiliko dituzten enpresa eraikitzaileak.

3. Jabetza horizontaleko erregimena duten kasuetan, jabeen komunitatearen ordezkariak jabekideen izenak eta komunitatean duten partaidetzaren koefizientea jakinaraziko dizkio udal administrazioari, banakako kuotak igortzeko. Horrela egiten ez bada, ulertuko da kuota bakarra igortzea onartzen dela, eta komunitatea bera arduratuko dela banaketaz.

IV. ZERGA-OINARRIA

7. Artikulua

1. Kontribuzio berezien zerga-oinarria, gehienez ere, Udalak obrak egiteko edo zerbitzuak ezarri nahiz handitzeko jarriko duen diruaren %90 izango da. Udalak, agintzeko erabakia hartzerakoan, kasu bakoitzean aplikatzekoa den ehunekoa zehaztuko du.

2. Kostua honako kontzeptu hauek osatuko dute:

a) Peritu lanen, proiektu idazketa eta zezendaritza lanen, planen eta programa teknikoen benetako kostua.
b) Egin beharreko obren zenbatekoa, baita zerbitzuak jarri edo handitzeko lanena ere.
c) Obra edo zerbitzuek hartu behar dituzten lurzoruen balioa, salbu eta erabilera publikoko ondasunak badira, Udalari doan eta nahitaez lagatako lurzoruak badira edo legeen arabera lagatako higiezinak badira.
d) Eraikinak eraisteak, edo landaketa, obra edo instalazioak suntsitzeak eragindako kalte-ordainak, baita eraitsi edo okupatu beharreko ondasunen maizterrei ematen zaizkienak ere.
e) Obra edo zerbitzuetan inbertitu den kapitalaren interesa, Udalak kontribuzio berezien bidez ordaindu ezin den zatia finantzatzeko krediturik eskatu behar badu, edo kontribuzioen bidez ordaindutakoa haiek orokorrean zatikatzen badira.

3. Obren nahiz zerbitzuen aurrekontuan agertzen den kostu osoa aurreikuspen bat baino ez da izango. Benetako kostua aurreikusitakoa baino handiagoa edo txikiagoa bada, horixe erabiliko da dagozkion kuotak kalkulatzeko.

4. Ordenantza honen 4.1.c) artikuluan aipatzen diren obra eta zerbitzuen kasuan, edo Udalaren ekarpenak dituzten kontzesiodunek –artikulu bereko 2. paragrafoan aipatuak– egindakoak badira, kontribuzio berezien zerga-oinarria ekarpen horien zenbatekoaren arabera kalkulatuko da; hala ere, beste administrazio publiko batzuek ere ezar ditzakete zergak, obra edo zerbitzu berarengatik. Nolanahi ere, artikulu honetako lehen zenbakian aipatzen den %90eko mugari eutsiko zaio.

5. Zerga-oinarria ezartzeko, udal administrazioak bere gain hartutako kostua kalkulatzeko, udal administrazio horrek jasotzen dituen diru-laguntzen edo laguntzen zenbatekoa kenduko zaio kostu osoaren zenbatekoari.

6. Kontribuzio bereziaren subjektu pasiboak ematen badu diru-laguntza edo laguntza hori, berorren zenbatekoa pertsona edo entitate horren kuota konpentsatzeko erabiliko da lehenengo eta behin. Diru-laguntzaren edo laguntzaren zenbatekoa kuota hori baino handiagoa bada, gaindikina gainerako subjektu pasiboen kuotak gutxitzeko erabiliko da, hainbanaketaren bidez.

V. KUOTA

8. artikulua

1. Kontribuzio berezien zerga-oinarria subjektu pasiboen artean banatuko da, obraren eta zerbitzuen mota eta izaera kontutan hartuz eta arau hauei jarraituz:

a) Oro har, hauek aplikatuko dira, denak batera edo banaka eta ondasun higiezinen gaineko zergaren ondorioetarako, banaketa modulu gisa: higiezinen fatxadako metro linealak, azalera, bolumen eraikigarria eta katastroko balioa.
b) Kontua suteak itzaltzeko zerbitzua jartzea, handitzea edo hobetzea bada, udalerrian dauden eta ondasunen arriskua estaltzen duten entitateen edo sozietateen artean proportzionalki banatu ahal izango da zenbatekoa, aurreko urtean bildutako primen zenbatekoaren arabera. Subjektu pasibo bakoitzari eska dakiokeen kuota berak bildutako primen %5 baino gehiago bada, gaindikina hurrengo ekitaldietara pasatuko da, guztia amortizatu arte.
c) Ordenantza honen 6. artikuluaren 2. zenbakiko d) atalean aipatutako obren kasuan, konpainia edo enpresa erabiltzaileen artean banatuko da kontribuzio bereziaren zenbateko osoa, bakoitzari gordetako espazioaren arabera edo obren sekzio osoarekiko proportzioan, berehala erabiltzen ez badute ere.

9. artikulua

Aplikagarri den araudiak edo nazioarteko itunek onura fiskalak ematen badituzte, onuradunei dagozkien kuotak ez dira gainerako zergadunen artean banatuko.

10. artikulua

Ordaindu beharreko kuota ezarri ondoren, subjektu pasiboak hala eskatzen badu, Udalbatzak aukera eman dezake edo kuota zatikatzeko, edo gehienez ere bost urtez luzatzeko.

VI. TRIBUTUAREN SORTZAPENA

11. artikulua

1. Kontribuzio bereziak obrak burututakoan edo zerbitzua ematen hasitakoan sortuko dira. Obrak zatikatzerik badago, obraren zati bakoitza egindakoan ordaindu beharko du subjektu pasibo bakoitzak.

2. Aurreko zenbakian xedatutakoa alde batera utzi gabe, kontribuzioa ezarri eta agintzeko erabaki zehatza onartutakoan, Udalak eska dezake kontribuzio bereziak aldez aurretik ordaintzea, hurrengo urterako aurreikusi den kostuaren zenbatekoaren arabera. Obrak egiteko aurrerakina eskatzen bada, obra horiek bukatu arte ezin izango da beste urtebeteko aurrerakinik eskatu.

3. Ordenantza honen 6. artikuluan xedatutakoari jarraituz ordaintzera behartutako pertsona zein den zehazteko, kontribuzio bereziak sortu diren unea hartuko da aintzat, nahiz eta agintzeko erabaki zehatzean subjektu pasibotzat ageri dena hura onartu zen egunaren erreferentziaz dagokiona izan eta hark kuoten ordainketa aurreratuta eduki, artikulu honetako bigarren zenbakian xedatutakoaren arabera. Agintzeko erabaki zehatzean subjektu pasibo gisa agertzen den pertsonak, horren jakinerazpena jasota, kontribuzioa ezartzea eragin duten ondasun edo ustiapenen gaineko eskubideak eskualdatzen baditu, eta hori erabakia hartzen denetik zorra sortu arteko aldian gertatzen bada, udal administrazioari eman beharko dio egindako eskualdaketaren berri, eskualdaketa egin eta hilabeteko epean; hori egin ezean, administrazio horrek espedientean subjektu pasibo gisa ageri zenaren kontra jo ahal izango du kobraketa egiteko.

4. Obrak osorik edo partzialki gauzatu ondoren, edo zerbitzua ematen hasi ondoren, behin betiko zehaztuko da zein diren subjektu pasiboak, oinarria eta banakako behin betiko kuotak, dagozkion likidazioak egingo dira eta konturako entrega gisa konpentsatuko dira aldez aurretik egindako ordainketak. Udal administrazioak egingo du behin betiko zehaztapena, kasuan kasuko obra edo zerbitzurako tributua agintzeko erabaki zehatzaren arauek xedatzen dutenera egokituz.

5. Alde aurreko ordainketak tributuaren sortzapen egunean subjektu pasiboaren izaera ez duen batek egin baditu, edo dagokien behin betiko kuota indibidualetik gorakoak badira, udal administrazioak ofizioz egingo du egin beharreko itzulketa.

VII. ZERGA EZARTZEA ETA AGINTZEA

12. artikulua

1. Kontribuzio bereziak ordainarazteko, aldez aurretik kasu bakoitzerako ezarpen erabakia hartu beharko da.

2. Kontribuzio berezien bidez ordaintzekoa den obra bat egiteko erabakia edo zerbitzu bat jartzeko nahiz handitzeko erabakia ezin izango da gauzatu kontribuzioen agindua onartu arte.

3. Aginduaren erabakia nahitaezkoa izango da; bertan, obra eta zerbitzuetarako aurreikusten den kostua, onuradunen artean banatu beharreko zenbatekoa eta banatzeko

irizpideak zehaztuko dira. Agintzeko erabaki konkretua Ordenantza honen araberakoa izango da.

4. Kontribuzio bereziak agintzeko erabaki zehatza hartu eta ordaindu beharreko kuotak zehaztu ondoren, banan-banan jakinaraziko zaizkie subjektu pasiboei baldin eta subjektuok edo euren helbideak ezagunak badira, edo, bestela, ediktu bidez. Interesdunek berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango dute Udalean, edo, hala badagokio, erreklamazio ekonomiko-administratiboa jarri ahalko dute Lurralde Historikoko Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboan, honako gai hauen gainean: kontribuzio berezien egokitasuna, bereziki onuradun direnek kostuetatik ordaindu beharreko ehunekoa, edo dagozkien kuotak.

13. artikulua

1. Udalak bere eskumeneko obrak eta zerbitzuak beste toki erakunde baten laguntza ekonomikoarekin egin edo ematen baditu, betiere kontribuzio bereziak foru araudian xedatutakoarekin bat etorriz ezarrita, obrak egitea edo zerbitzuak jartzea nahiz handitzea bere gain hartu duen entitateak kudeatu eta bilduko ditu kontribuzio horiek; hala ere, entitate bakoitzak berari dagokion eskumena mantenduko du, kontribuzioa ezartzeko eta agintzeko erabakiei dagokienez.

2. Horietako entitateren batek agintzeko erabaki zehatza onartzen ez badu, baterako jarduna bertan behera geratuko da, eta bakoitzak bere aldetik hartuko ditu dagozkion erabakiak.

VIII. HERRITARREN LANKIDETZA

14. artikulua

1. Obrek eragindako jabeek edo titularrek zergadunen administrazio elkarte bat osa dezakete, eta obrak egiteko edo udal zerbitzuak jartzeko nahiz handitzeko eskatu. Bestalde, Udalak jarri beharreko zatia ordaintzeko konpromisoa hartu beharko dute baldin eta Udalaren egoera ekonomikoa dela-eta berak ordaindu ezin badu, obra edo zerbitzuaren izaerarengatik dagokienaz gain.

2. Halaber, Udalak sustatutako obrak egiteak edo zerbitzuak jarri edo handitzeak eragindako jabe edo titularrek zergadunen administrazio elkarteak osatu ahal izango dute kontribuzio bereziak agintzeko erabakia jendaurrean dagoen aldian.

15. artikulua

Aurreko artikuluan aiptatutako zergadunen administrazio elkarteak osatzeko, eragindakoen gehiengo osoak hartu beharko du erabakia, betiere ordaindu beharreko kuoten bi heren gutxienez ordezkatuz.

16. artikulua

1. Zergadunen elkarteen funtzionamendua egokituko zaio Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Araua garatuko duten erregelamenduzko arauek xedatzen dutenari.

2. Nolanahi ere, zergadunen administrazio elkarteak kideen gehiengoarekin eta ordaindu beharreko kuoten bi heren ordezkatuz hartutako erabakiak derrigorrez betetzekoak izango

dira gainerakoentzat. Halako elkarte batek, eduki beharreko quorumarekin, batzorde beterazle bat izendatzen badu, batzorde horren erabakiek nahikoa indar izango dute interesedunek derrigorrez bete ditzaten.

3. Zergadunen administrazio elkarteek, 14. artikuluaren lehen eta bigarren zenbakietan xedatutakoaren arabera osatu ondoren, obrak eta zerbitzuak zuzenean gauzatzeko eskatu ahal izango diote Udalari.

Horretarako, honako baldintza hauek hartuko dira kontuan:

a) Obrak nahiz zerbitzuak gauzatzeko, udal administrazioak egindako proiektuan jasotako baldintza eta epeak bete beharko dira; edo behintzat elkarteak aurkeztu eta Udalak onartutako proiektua bete beharko da.
b) Obrak nahiz zerbitzuak, betiere, Udalak izendatutako teknikarien zuzendaritzapean gauzatuko dira.
c) Elkarteak bere gain hartuko ditu interes publikoek nahiz pribatuek jasan ditzaketen kalteak, obrak eta zerbitzuak gauzatzean izan daitezkeen atzerapenak eta behin betiko jaso eta hurrengo bost urteetan ager daitezkeen ezkutuko akatsak.
d) Udalak ahalmena izango du aipatutako obra eta zerbitzuak gauzatze aldera zergadunen administrazio elkarteek egindako proposamenak onartzeko zein baztertzeko.
e) Udalak obrei nahiz zerbitzuei egindako ekarpena –halakorik balego– behin betiko jaso eta berehala ordainduko da.

IX. AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau Eranskinean jasotzen den datan onartu zen behin betiko, **1990eko urtarrilaren 1ean** sartuko da indarrean eta halaxe segituko du aldatzea edo indargabetzea erabaki arte.

ALKATEA **IDAZKARIA**

E R A N S K I N A

KONTRIBUZIO BEREZIEN ORDENANTZA FISKAL OROKORRA

Kontribuzio Berezien Ordenantza Fiskal Orokorra, Eranskin hau barne, 1989ko irailaren 29an onartu zen behin betiko.

ALKATEA **IDAZKARIA**